

PLAN HIDROLOGIKOA

BERRIKUSPENA 2015 - 2021

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatia

ARAUDIA

Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak onartua.



PETRSONA HELBURU



Horrenbestez, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministroaren proposamenez, aurrez Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroak onetsirik, Estatu Kontseiluarekin adosturik eta Ministro Kontseiluak bere 2015eko abenduaren 22ko bileran hala erabaki ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Erkidego arteko arroen 2015-2021 aldirako plan hidrologikoak onartzea.*

1. . Uraren Legearen Testu Bateginaren 40.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz –uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen–, honako demarkazio hidrografiko hauen plangintzaren bigarren zikloaren plan hidrologikoak onartzen dira:

- a) Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa.
- b) Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoa.
- c) Espainiako zatiko Miño-Sileko Demarkazio Hidrografikoa.
- d) Espainiako zatiko Dueroko Demarkazio Hidrografikoa.
- e) Espainiako zatiko Tajoko Demarkazio Hidrografikoa.
- f) Espainiako zatiko Guadianako Demarkazio Hidrografikoa.
- g) Guadalquivirreko Demarkazio Hidrografikoa.
- h) Ceutako Demarkazio Hidrografikoa.
- i) Melillako Demarkazio Hidrografikoa.
- j) Segurako Demarkazio Hidrografikoa.
- k) Jucarreko Demarkazio Hidrografikoa.
- l) Espainiako zatiko Ebroko Demarkazio Hidrografikoa.

Demarkazio hidrografikoen lurralde-eremua finkatzen duen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuak definitzen ditu aipatutako demarkazio bakoitzaren lurralde-eremua.

2. Honako hau da onartu diren plan hidrologikoen egitura formala:

- a) Memoria eta horren eranskinak, neurrien programa barne.
- b) Araudia eta horri dagozkion gehigarriak.

3. Onartu den plan bakoitzaren arau mailako xedapenak errege-dekretu honetan jasoko dira eranskin gisa, zenbaketa honekin:

I eranskina: Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

II eranskina: Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

III eranskina: Espainiako zatiko Miño-Sileko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

IV eranskina: Espainiako zatiko Dueroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

V eranskina: Espainiako zatiko Tajoko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

VI eranskina: Espainiako zatiko Guadianako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

VII eranskina: Guadalquivirreko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

VIII eranskina: Ceutako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

IX eranskina: Melillako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

X eranskina: Segurako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

XI eranskina: Jucarreko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

XII eranskina: Espainiako zatiko Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arau mailako xedapenak.

2. artikulua. *Azpiegitura hidraulikoak egiteko baldintzak.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrek sustatzen dituen eta plan hidrologikoetan aurreikusten diren azpiegitura hidraulikoen bideragarritasun teknikoari, ekonomikoari eta ingurumenekoari buruzko analisia egingo du aipaturiko administrazioak, azpiegiturok gauzatu aurretik. Nolanahi ere, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko indarreko xedapenek eta urari buruzko legediak baldintzatuko dute azpiegiturok eraikitzea –eraiki baino lehen, dagokion emakida, baimena edo jabari-erreserba lortzeko beharrari dagokionez–. Era berean, obrak eraikitzea aurrekontuen eta sektorekako planen menpe egongo da, berariazko araudiak hala aurreikusten duenean.

2. Sustatzaile publiko nahiz pribatu batek ur-masa baten edo zenbaiten ezaugarri fisikoak aldatzen dituen jarduerarik egiten badu eta aldaketok plan hidrologikoetan aurreikusita ez badaude eta, aldaketon ondorioz, ur-masaren edo ur-masen egoera narriatzen bada, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 39. artikulua eskatutako analisiak egin beharko ditu –uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuak onartu zuen–, eta eskumeneko agintaritzari igorri; alegia, bai arroaren erakundeari, jabari publiko hidraulikoari dagokionez, bai dagokion administrazioari, kostaldeko eta tarteko urei dagokienez.

3. Eskumeneko agintaritzak berariazko kontsulta- eta jendaurreko informazio-aldian jarriko du dokumentazioa, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen eskakizunei jarraiki –lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu–. Berariazko prozesu horren aldi berean, dagokion ingurumen-ebaluazioko prozedurak eskatutakoa egingo da, halakorik bada.

4. Eskumeneko agintaritzak aipatu 39. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen diren egiaztatuko du nahitaezko txosten loteslearen bitartez. Azkenik, organo substantiboak jarduera egokia den erabakiko du, eta, hala badagokio, plan hidrologikoaren hurrengo berrikuspenean dagokion dokumentazioa sartzeari proposatuko du.

3. artikulua. *Onura publikoaren deklarazioa.*

1. Uraren Legearen Testu Bateginaren 44.2 artikuluari eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 91. artikuluari jarraikiz, onura publikokotzat jotzen dira arau honen bidez

onartzen diren plan hidrologikoetako neurrien programekin erlacionatutako azpiegitura guztiak, ur-masen ingurumen-helburuak lortzeko behar direnak, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen ondorioetarako. Onura publikotzat jotzen dira, halaber, jabari publikokoak ez diren eta adierazitako azpiegiturak gauzatzeko behar diren lurzoruak.

2. Onura publikoaren deklaraziorako, Uraren Legearen Testu Bateginaren 60.2 artikuluan aurreikusitako emakiden nahitaezko desjabetzeen ondorioetarako, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Arroaren plan hidrologikoarekin bateragarria izatea.
- b) Baliabide hidrikoa lortzeko modu bakarrak lehentasun-ordena txikiagoko beste aprobetxamendu batzuk desjabetzea edo emakida-baldintzak aldatzea izatea.
- c) Aprobetxamendua txertatuko den ustiapen-sistemaren errendimendu hidrauliko orokorrak okerrera ez egitea aurretik zegoenarekin alderatuta.
- d) Aprobetxamendua txertatuko den baliabide-ustiapeneko sistemaren gainerako aprobetxamenduek plan hidrologikoaren berme-irizpideak betetzen jarraitzea.
- e) Aprobetxamendua interes orokorrekotzat jo izana izatea.

3. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 95. artikuluan aurreikusitako kasuetan – apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartu zuen–, onura publikoaren deklarazioa egiteko eskumena duen agintaritzak aurreko zenbakian deskribatutako betekizunei buruzko txosten bat eskatuko dio arroaren erakundeari.

4. Onura publikoaren deklarazioaren eskaeran, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 106.2.a) artikuluekin bat, kaltetutako ondasunen eta desjabetu daitezkeen lehentasun-ordena txikiagoko aprobetxamenduen zerrenda bat jaso beharko da, eta ondasun horien nahiz aprobetxamenduak kaltetutako beste ondasun edo zerbitzu batzuen alderdi materialak eta juridikoak deskribatuko dira.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Mugaz haraindiko ur-masak, eta aldameneko beste estatu batzuekin lankidetzan aritzea.*

1. Plan hidrologikoetan mugaz haraindiko ur-masei egiten zaizkien erreferentzia guztiak demarkazio hidrografikoen zati espainiarrera mugatuko dira, arauak emateari dagokionez.

2. Miño-Sil, Duero, Tajo eta Guadiana ibaien demarkazio hidrografikoen mugaz haraindiko ur-masak (bakoitzaren planean azaltzen direnak), bai eta beren tipologiak, erreferentzia-baldintzak, ingurumen-helburuak eta beste alderdi batzuk ere, aldatu egin ahal izango dira, Portugalekin batera egiten diren lankidetzaren emaitzei jarraikiz. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egiten ditu lanok, Espainiako eta Portugalgo arro hidrografikoetako urak babesteko eta jasangarritasunez aprobetxatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena betetz (Albufeira, 1998ko azaroaren 30a). Aldaketok, hala balegokie, dagokien plan hidrologikoa berrikustea eskatuko dute. Aurrekoari lotuta, bi aldeek akordio bat sinatu zuten 2015eko uztailan, aipatutako ur-masak identifikatzeko zerrenda bat egiteko. Hitzarmena Aplikatzeko eta Garatzeko Batzordearen webgunean dago argitaratuta aipaturiko zerrenda (www.cadc-albufeira.eu).

3. Era berean, aurreko zenbakian aipatutako kasu beretan, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazioen mugaz haraindiko ur-masak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak

eta Frantziak uraren kudeaketari buruzko administrazio-akordioaren esparruan egindako lankidetzaren emaitzen mende egongo dira (Toulouse, 2006ko otsailak 15).

4. Ceuta edo Melillako Plan Hidrologikoen elementuren bat Marokoko Erreinuarekin koordinatu behar bada, Espainiako Erreinuaren eta Marokoko Erreinuaren arteko Laguntasuneko, Auzoarte jatorreko eta Lankidetzako Itunak (Rabat, 1991eko uztailaren 4a) ematen dituen tresnak erabiliko dira, ahal dela.

Bigarren xedapen gehigarria. Neurrien programak.

1. Plan hidrologiko bakoitzaren parte diren neurrien programei dagokienez –horien edukia nahitaezkoa eta loteslea da–, Eskumeneko Agintaritzen Batzordeak egoera edo potentzial «ona baino okerragoa» duten ur-masei eragingo dieten jarduerak lehenetsiko ditu, proposatutako ingurumen-helburuak lortzeko eta egoera ona edo potentziala aurreikusitako epeetan erdiesteko. Halaber, jarduera horien barruan, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik jasagarrienak diren neurriak sustatuko dira.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den lehentasuna zehazteko, kontuan hartuko dira eskumen-esparrua, aurrekontua eta tartean diren administrazioen arteko behar bezalako koordinazioa.

3. 1. eta 2. zenbakietan xedatutakoa gorabehera, aldeek nahitaez bete beharko dituzte 1.2.b) artikuluan aipatutako arauzko xedapenetara sartutako neurrien programak –horien izaerak ekarriko du nahitaezkoak izatea–.

4. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, plan hidrologikoetan sartutako neurrien programak garatzea bermatuko duten koordinazio-lanak errazte aldera, datu-base bat izango dute. Arroen erakundeek urtero emango duten informazioarekin eguneratuko da datu-basea, Eskumeneko Agintaritzen Batzordearen adostasunarekin, eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 87. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako behar diren jarraipen-txostenak lortzeko erreferentzia izango dira.

Hirugarren xedapen gehigarria. Publizitatea.

1. Plan hidrologikoak publikoak direnez, Uraren Legearen Testu Bateginaren 40.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, edozeinek kontsultatu ahal izango du planen eduki osoa dagokion arroaren erakundearen egoitzan. Halaber, informazio publikoa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justizia eskuratzeko eskubideak ingurumen arloan arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako baldintzetan eskuratu ahal izango da plan hidrologikoen edukia. Bestalde, arroen erakundeen webguneetako plangintza-atalean ere eskuragarri dago informazioa, jarraian azaldu bezala:

- Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chcantabrico.es eta www.uragentzia.euskadi.eus
- Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chcantabrico.es
- Espainiako zatiko Miño-Sileko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chminosil.es

- Espainiako zatiko Dueroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chduero.es
- Espainiako zatiko Tajoko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chtajo.es
- Espainiako zatiko Guadianako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chguadiana.es.
- Guadalquivirreko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, Ceutako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa eta Melillako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chguadalquivir.es
- Segurako Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chsegura.es
- Jucarreko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chj.es
- Espainiako zatiko Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa: www.chebro.es

2. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26.2 artikuluan jasotako publizitate-betebehar osagarria betetzen dela bermatzeko, plan hidrologiko bakoitzaren araudiaren gehigarrien artean, agindutako dokumentazio osagarriaren laburpen bat dago, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren parte izan dena.

Laugarren xedapen gehigarria. *Plan hidrologikoak berrikustea.*

1. Errege Dekretu honen bitartez onartuko diren plan hidrologikoak 2021eko abenduaren 22a baino lehen berrikusi beharko dira berriro, Uraren Legearen Testu Bateginaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren 6. zenbakiarekin bat.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoa gauzatzeari ez diote inongo kalterik egingo adierazitako epea baino lehen nahitaezkoak izan daitezkeen bestelako jarduerak. Zehazki, baina ez bakarrik, plan hidrologiko hauek emari ekologikoei eta uholdeen kudeaketari buruz Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan aurreikusitako aldaketetara egokitu ahal izan daitezten, bai eta kutsaduraren eta narriaduraren kontrako lurpeko uren babesari buruzko beste arau orokor batzuetakoetara ere.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Guadiana Garaiaren Plan Berezia aldi baterako aplikatzea.*

Guadiana Garaiaren Plan Berezia onartzen duen urtarrilaren 11ko 13/2008 Errege Dekretuaren 5. artikuluekin bat, aipatu plan bereziaren indarraldia luzatuko da, harik eta Guadianaren demarkazio hidrografikoaren zati espainiarraren plan hidrologikoak, etorkizuneko berrikuspenen batean, Guadiana Garaiaren ur-masa guztiak egoera onean daudela zehaztu arte.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Ur-masen egoera ebaluatzea.*

1. Plan hidrologiko hauen indarraldian, horietan jasotako lurrazaleko ur-masen egoeraren eta potentzialaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak aplikatuko dira. Horiek, bada, pixkana ordeztzen joango dira, lurrazaleko uren egoeraren eta ingurumen-kalitateko arauen jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak zehazten dituen irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzetan.

2. Era berean, lurpeko ur-masen egoeraren ebaluazioa egiteko irizpide berriak aplikatuko dira, hain zuzen ere, kutsaduraren eta narriaduraren kontrako lurpeko uren babesa arautzen duen

urriaren 2ko 1514/2009 Errege Dekretuaren aldaketan –azaroaren 27ko 1075/2015 Errege Dekretuaren bidez– jasotakoa.

Bigarren xedapen iragankorra. *Bateragarritasun-txostenak eginda dauden baina ebatzi ez diren espedienteetan.*

Azken ebazpena falta duten espedienteak izapidetzean, dagokion konfederazio hidrografikoen plangintza-bulegoak edo Euskal Autonomia Erkidegoan zeregin horiek egiten dituen unitateak, bere eskumen-arloaren barruan, errege dekretu hau indarrean jarri aurretik egin dituen plan hidrologikoarekiko bateragarritasun-txostenak berretsi beharko ditu. Berresten ez baditu, beste bateragarritasun-txosten bat egin beharko du, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 108.3 eta 108.4 artikuluei jarraikiz kasuaren arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Indargabetzeak.*

Errege Dekretu hau indarrean sartzean, xedapen hauek indargabetuta geldituko dira:

- a) 285/2013 Errege Dekretua, apirilaren 19koa, Espainiako zatiko Miño-Sileko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- b) 354/2013 Errege Dekretua, maiatzaren 17koa, Espainiako zatiko Guadianako Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- c) 355/2013 Errege Dekretua, maiatzaren 17koa, Guadalquivirreko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- d) 399/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- e) 400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- f) 478/2013 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Espainiako zatiko Dueroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- g) 739/2013 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, Ceutako Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- h) 740/2013 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, Melillako Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- i) 129/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Espainiako zatiko Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- j) 270/2014 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Espainiako zatiko Tajoko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- k) 594/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Segurako Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- l) 595/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Jucarreko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoa onartzen duena.

Azken xedapenetatik lehena. *Lehorte-planak aldatzea.*

1. Dagokion plan hidrologikoan zehaztutako ingurumen-helburuen, Adierazle Hidrologikoen Sistema Orokorraren eta Alerta eta Behin-behineko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezia

zehaztutako lehorreak prebenitzeko eta arintzeko neurrien –martxoaren 21eko MAM/698/2007 Aginduaren bidez onartu ziren– arteko koherentzia bermatu ahal izateko, honako demarkazio hauei dagozkien lehorre-planak aldatzen dira, jarraian adierazi bezala:

a) Dueroren demarkazio hidrografikoa (memoria, 11. kapitulua, 13.1 eranskina):

I. Zenbait neurrik erreferentzia egiten dioten «luzaroko lehorre» kontzeptuaren definizioa sartzea.

II. Órbigo ustiapen-sistemaren lehorre-egoeraren adierazlea aldatzea.

III. Águeda ustiapen-sistemaren lehorre-egoeraren adierazlea aldatzea, Irueñako urtegia abiarazi delako.

b) Tajoren demarkazio hidrografikoa: Cabecera sistemaren funtzionamendu-adierazleak eta -atalaseak, Plan Hidrologikoaren 2. artikuluan definituta daudenak eta Tajoren arro hidrografikoaren Alerta eta Behin-behineko Lehorre Egoeretan Jarduteko Plan Bereziari aplikatu daitezkeenak, bat etorriko dira Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duen uztailaren 20ko 21/2015 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian eta Tajotik Segurara ura eramateko akueduktuaren zenbait arau erregulatuak onartzen dituen irailaren 12ko 773/2014 Errege Dekretuaren 1. artikuluan zehaztutakoekin. Horri jarraikiz, bada, Tajoren Ceberera ustiapen-sistemako «normaltasun», «aurrealerta», «alerta» eta «larrialdi» egoerak bat etorriko dira aipatu arauetan definitutako 1., 2., 3. eta 4. mailekin.

c) Guadianaren demarkazio hidrografikoa: Honako hauek eguneratu dira Guadianaren arroaren Alerta eta Behin-behineko Lehorre Egoeretan Jarduteko Plan Bereziari:

I. Plan Hidrologikoan definitutako ustiapen-sistemak hartzea.

II. Ekarpenen serie hidrologikoak Plan Hidrologikoko datuekin eguneratzea.

III. Eskaeren datuak Plan Hidrologikoaren arabera eguneratzea.

IV. Lehorre-egoeren indizeak lehorre-atalaseak Plan Hidrologikoko datuetara egokitzea.

V. Gutxieneko emari ekologikoak Plan Hidrologikoko emari ekologikoen arabera eguneratzea.

VI. Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioan jasotako «luzaroko lehorre» kontzeptua sartzea.

VII. Plan Bereziaren aurreko idazketaz geroztik abiarazi diren erregulazio-azpiegiturak sartzea.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, Erkidego arteko arroren plan hidrologikoen eremuan alerta-eta behin-behineko lehorre-egoeretan jarduteko plan bereziak onartzen dituen martxoaren 21eko MAM/698/2007 Agindua aipatzen dituen lehorre-plan berezi guztiak 2017ko abenduaren 31 baino lehen berrikusi behar dira. Berrikuspen hori modu bateratuan egiteko, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak bidezko zatitza jotzen dituen jarraibide teknikoak emango ditu, zehazki, lehorre-egoerak eta eskasia-egoerak bereizita diagnostikatzeko aukera emango duten adierazle hidrologikoak zehazteko.

Azken xedapenetatik bigarrena. Eskumen-titulua.

1. Errege Dekretu hau Konstituzioaren 149.1.22 artikulua babesean ematen da. Artikulu horren arabera, bada, Estatuak baino ez du legegintza, antolamendu, emakida eta aprobetxamendu hidraulikoen arloko eskumen eskusiboa, urak autonomia-erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen direnean.

2. Gainera, Errege Dekretu honek Konstituzioaren 149.1.23 artikuluari jarraitzen dio; izan ere, artikulu horrek Estatuari esleitzen dio ingurumena babesteko oinarritzko legeria egiteko eskumena, autonomia-erkidegoek, oinarritzko legeria horren gehigarri, babes-arauak emateko dituzten ahalmenei kalterik egin gabe.

3. Bestalde, Euskadiren eskumenei eragiten dien Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoen Espainiako zatiko Plan Hidrologikoko sektoreari dagokionez batik bat, demarkazio horretan sartuta dauden erkidego barruko arroak direnez, araua Konstituzioaren 149.1.13 artikulua babesean ere ematen da; izan ere, horri jarraikiz, Estatuarena da jarduera ekonomikoaren oinarriak eta koordinazioa zehazteko eskumena.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Indarrean jartzea.

Errege Dekretu hau indarrean jarriko da «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean.

Madriren, 2016ko urtarrilaren 8an.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministroa

ISABEL GARCÍA TEJERINA

KANTAURI EKIALDEKO MUGAPE HIDROGRAFIKOAREN ESPAINIAKO ZATIAREN PLAN HIDROLOGIKOAREN ARAUDIA ETA ERANSKINAK

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA. LURRALDE-EREMUA, AGINTARI ESKUDUNAK, UR-MASEN DEFINIZIOA
ETA BABESTUTAKO EREMUEKIN ERREGISTROA
 1. artikulua. Lurralde-eremua eta denbora-horizonteak eta informazio geografikoko sistema
 2. artikulua. Agintari eskudunak
 3. artikulua. Lurgaineko ur-masen identifikazioa
 4. artikulua. Lurpeko ur-masen identifikazioa
 5. artikulua. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean
 6. artikulua. Lurpeko ur-masen egoera kimikoaren adierazleak
 7. artikulua. Ur-masa artifizialak edo oso aldatuta daudenak
 8. artikulua. Babestutako Eremuen Erregistroa
2. KAPITULUA. INGURUMEN-ARLOKO HELBURUAK
 9. artikulua. Ingurumen-arloko helburuak
 10. artikulua. Ur-masen egoeraren aldi baterako narriadura onartzeko baldintzak
 11. artikulua. Aldaketa berrietarako baldintzak
3. KAPITULUA. EMARI EKOLOGIKOEN ERREGIMENA
 12. artikulua. Emari ekologikoen erregimenaren inguruko alderdi orokorrak
 13. artikulua. Gutxieneko emari ekologikoak
 14. artikulua. Gehieneko emari ekologikoak
 15. artikulua. Emari ekologikoen erregimena ezartzeko prozesua
4. KAPITULUA. ERABILEREN LEHENTASUNA ETA BATERAGARRITASUNA
 16. artikulua. Uraren erabilera
 17. artikulua. Erabileren eta aprobetxamenduen arteko erabilera-lehentasunen ordena
5. KAPITULUA. BALIABIDEEN ESLEIPENA ETA ERRESERBA
 18. artikulua. Baliabideen ustiapen-sistemak zehaztea
6. KAPITULUA. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN ERABILERA
 1. SEKZIOA. Erabilera pribatiboak
 19. artikulua. Lurpeko uren hartuneen eta iturburuen arteko distantziak
 20. artikulua. Neurgailuen instalazioa
 2. SEKZIOA. Baimenak eta emakidak

21. artikulua. Emakidei buruzko arau orokorrak
 22. artikulua. Hiri-hornidurarako ur-zuzkidurak
 23. artikulua. Abeltzaintza-erabileretarako ur-zuzkidurak
 24. artikulua. Ureztatzeko ur-zuzkidurak
 25. artikulua. Industria-erabileretarako ur-zuzkidurak
 26. artikulua. Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatzeko eta igerilekuak betetzeko ur-zuzkidurak
 27. artikulua. Akuikulturarako eta beste batzuetarako ur-zuzkidurak
 28. artikulua. Ureztatzeko emakidak
 29. artikulua. Emakida-epeetarako mugak
 30. artikulua. Emakidak iraungitzea
 31. artikulua. Presen edo presa txikien bidezko aprobetxamendu-emakidetarako gutxieneko baldintzak
 32. artikulua. Emakida-emarien aldaketa eta berrikuspena
 33. artikulua. Lurpeko uren erabilera
 34. artikulua. Lurpeko uren hartuneen arteko gutxieneko distantziak
 35. artikulua. Lurpeko uren hartuneak zigilatzea
 36. artikulua. Kostaleko akuiferoak gazitzearen aurkako babes-a eta babes-araubide orokorra
 37. artikulua. Lurpeko ur-masak babesteko beste printzipio batzuk
 38. artikulua. Klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduetarako zundaketak
7. KAPITULUA. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA, ITSASOAREN ETA LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOA ETA UREN KALITATEA BABESTEA
1. SEKZIOA. Arau orokorrak
 39. artikulua. Urdien emari maximoak eta uholde-arriskuko eremuak zehaztea
 40. artikulua. Erabilera-mugak uholde-arriskuko zaintza-eremuan
 41. artikulua. Erabilera-mugak uholde-arriskupeko gainerako eremuetan
 42. artikulua. Uholdeen aurreko babes-neurriak
 43. artikulua. Zubien eta estalduren diseinuari eta ibilguen trazadura babestu eta aldatzeko egitura-neurriei buruzko berariazko arauak
 44. artikulua. Urbanizatu beharreko eremu berriak eta komunikabideak drainatzea
2. SEKZIOA. Itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko arauak
45. artikulua. Babes-zortasuneko eremuko jardueren inguruko xehetasun orokorrak
 46. artikulua. Babes-zortasuneko eremuan pasealekuak eta bideak egitearen inguruko xehetasunak
 47. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak
3. SEKZIOA. Eremu Babestuak
48. artikulua. Hornidurarako ur-hartuneak
 49. artikulua. Habitaten edo espezieen babes-eremu deklaraturako eremuak

50. artikulua. Ur mineralak eta termalak babesteko perimetroak
51. artikulua. Ibai-erreserba naturalak
52. artikulua. Hezeguneak
53. artikulua. Babes bereziko eremuak
4. SEKZIOA. Isurketak
54. artikulua. Jabari publiko hidraulikoan isurtzeko baimenak
55. artikulua. Hiri-eremuetatik datozen isurketak
56. artikulua. Hiri-saneamenduko sistema orokorrak
57. artikulua. Industrietatik eta industria-eremuetatik datozen isurketak
58. artikulua. Industria-jardueretako hondakin edo produktuen biltegiak, erauzketa-aprobetxamenduetakoak eta aire zabaleko beste biltegi batzuk
59. artikulua. Hiri-hondakinen biltegiak
60. artikulua. 2013ko ekainaren 9an jada bazeuden jardueretan lurgaineko uretako isurtzeetarako salbuespenak
61. artikulua. Isurketen inguruko neurri osagarriak aplikatzea
62. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak
63. artikulua. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoan isurtzeko baimenak
5. SEKZIOA. Araztutako urak berrerabiltzea
64. artikulua. Hondakin-urak berrerabiltzea
8. KAPITULUA. URAREN ZERBITZUAK KUDEATZEKO ANTOLAMENDU-EGITURAK. KOSTUAK BERRESKURATZEA. EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA. ESKAERA KUDEATZEKO PLANEN JARRAIBIDEAK. GARDENTASUNA, HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA ETA PARTE-HARTZEA SUSTATZEA
65. artikulua. Uraren zerbitzuak kudeatzeko orientazio-printzipioak eta sustapen-neurriak
66. artikulua. Uraren zerbitzuen kostuak
67. artikulua. Uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko jarraibideak
68. artikulua. Eskaera kudeatzeko planak. Planak prestatzeko jarraibideak
69. artikulua. Gardentasuna eta herritarren kontzientziazioa sustatzeko jarraibideak
70. artikulua. Parte-hartze publikoa gauzatzeko prozedura
71. artikulua. Neurrien programa
72. artikulua. Neurrien programaren finantzaketa
9. KAPITULUA. PLAN HIDROLOGIKOAREN JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA
73. artikulua. Plan Hidrologikoaren jarraipena
74. artikulua. Plan Hidrologikoaren berrikuspena
75. artikulua. Lehorteetarako plan bereziaren berrikuspena
76. artikulua. Uholde-arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena
77. artikulua. Plan Hidrologikoaren ondoren izendatutako eremu babestuak

1. ERANSKINA. LURGAINEN UR-MASAK

- 1.1. eranskina. Lurgaineko ur-masen tipologiak
- 1.2. eranskina. Lurgaineko ur-masa naturalak
- 1.3. eranskina. Lurgaineko ur-masa oso aldatuak
- 1.4. eranskina. Lurgaineko ur-masa artifizialak
- 1.5. eranskina. Lurgaineko ur-masak, mugaz gaindikoak

2. ERANSKINA. LURPEKO UR-MASAK

- 2.1. eranskina. Demarkazio hidrografikoko lurpeko ur-masak
- 2.2. eranskina. Beste demarkazio hidrografiko batzuekin partekatutako lurpeko ur-masak

3. ERANSKINA. LURGAINEN UR-MASA NATURALEN KALITATE-ELEMENTUETARAKO EGOERA-MOTA ALDATZEKO MUGAK ETA ADIERAZLEAK

4. ERANSKINA. LURGAINEN UR-MASA OSO ALDATUEN KALITATE-ELEMENTUETARAKO EGOERA-MOTA ALDATZEKO MUGAK ETA ADIERAZLEAK

5. ERANSKINA. EMARI EKOLOGIKOAK

- 5.1. eranskina. Ibaietako eta urtegiak ur-masen gutxieneko emari ekologikoen banaketa garaiaren arabera
- 5.2. eranskina. Tarteko ur-masen gutxieneko emari ekologikoen banaketa garaiaren arabera
- 5.3. eranskina. Gehieneko emari ekologikoen banaketa garaiaren arabera

6. ERANSKINA. INGURUMEN-ARLOKO HELBURUAK

- 6.1. eranskina. Lurgaineko ur-masa naturaletarako ingurumen-helburuak
- 6.2. eranskina. Lurgaineko ur-masa oso aldatuetarako ingurumen-helburuak
- 6.3. eranskina. Lurgaineko ur-masa artifizialeterako ingurumen-helburuak
- 6.4. eranskina. Lurpeko ur-masetarako ingurumen-helburuak

7. ERANSKINA. BABESTUTAKO EREMUEI ERREGISTROA

- 7.1. eranskina. Hornidurarako lurgaineko ur-hartuneak
- 7.2. eranskina. Hornidurarako lurpeko ur-hartuneak
- 7.3. eranskina. Hornidurarako ur-hartuneak, etorkizunekoak
- 7.4. eranskina. Ekonomikoki garrantzitsuak diren espezie urtarren babes-eremuak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Arrainak babesteko eremuak
- 7.5. eranskina. Ekonomikoki garrantzitsuak diren espezie urtarren babes-eremuak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Moluskuak eta bestelako ornogabeak babesteko eremuak
- 7.6. eranskina. Olgetarako erabilerako ur-masak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Tarteko eta kostaldeko uren bainu-eremuak
- 7.7. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako eremu sentikorrak
- 7.8. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako habitatak edo espezieak babesteko eremuak

7.9. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako ur mineralak eta termak babesteko perimetroak

7.10. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako ibai-erreserba naturalak

7.11. eranskina. Hezeguneen Inbentario Nazionalan, Ramsar hitzarmenean edo beste inbentario batzuetan sartutako hezeguneak

7.12. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako babes bereziko eremuak. Natura-eta ingurumen-intereseko tartekak

7.13. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako babes bereziko eremuak. Bestelako figurak

8. ERANSKINA. ERREFERENTZIAZKO BALIOAK JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN, ISURKETEN INGURUMEN-HELBURUAK BETETZEKO URARRI BEHEITI

9. ERANSKINA. INGURUMEN-KALITATEAREN INGURUKO ARAUAK ETA ATALASE-BALIOAK LURPEKO UR-MASETARAKO

10. ERANSKINA. NEURRIEN PROGRAMAREN LABURPENA

11. ERANSKINA. ERABILERAREN ARABERAKO UR-ZUZKIDURAK

11.1. eranskina. Hiri-hornidurarako gehieneko zuzkidura gordin onargarriak, biztanle eta eguneko, litrotan. Prozedura generikoa

11.2. eranskina. Etxe-erabilerarako gehieneko zuzkidura gordinak. Prozedura berezia

11.3. eranskina. Batez besteko zuzkidurak aldi baterako biztanleriarentzat

11.4. eranskina. Abeltzaintzarako ur-zuzkidurak

11.5. eranskina. Nekazaritzako ureztatzerako ur-zuzkidurak (m³/ha eta urtea)

11.6. eranskina. Industriadarako ur-zuzkidurak

11.7. eranskina. Elektrizitatea ekoizten duten zentraletarako ur-zuzkidurak

12. ERANSKINA. ZUBIAK DISEINATZEKO BABESAK

13. ERANSKINA. UDALERRIAK, LOTUTAKO MERKATARITZA-INDUSTRIA JARDUERAREN ARABERA

14. ERANSKINA. AZTERKETA HIDRAULIKOAK EGITEKO IRIZPIDE TEKNIKOAK

15. ERANSKINA. OLGETA-ERABILEREI BURUZKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDAK

16. ERANSKINA. BALIABIDEAK USTIATZEKO SISTEMAK

17. ERANSKINA. PUBLIZITATE-BALDINTZA OSAGARRIAK

KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN ESPAINIAKO ZATIAREN PLAN HIDROLOGIKOAREN ARAUDIA

I. kapitulua. Lurralde-eremua, agintari eskudunak, ur-masen definizioa eta babestutako eremuen erregistroa

1. artikulua. Lurralde-eremua eta denbora-horizonteak eta informazio geografikoko sistema

1. Uren Legearen Testu Bateratuaren (ULTB) 40.3 artikulua (1/2001 Errege Dekretu Legegileak, uztailaren 20koak, onetsitakoa) xedatzen du plan hidrologikoen lurralde-eremua dagokion demarkazio hidrografikoarekin bat etorriko dela. Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoen lurralde-eremua demarkazio hidrografikoen lurralde-eremua finkatzen duen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan zehaztutakoa da.

2. Denbora-horizonteak, ULTBaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren 6. atalaren arabera, eta uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuak onartutako Plangintza Hidrologikoen Araudiaren arabera (PHA), honako hauek dira: 2015., 2021. eta 2027. urteak.

3. Demarkazioaren lurralde-eremua, bertako baliabideak ustiatzeko sistemen mugak eta deskripzioa eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoen ur-masak mugatzen dituzten entitate geoespazialen datu geometrikoak informazio-sistema hauetan biltegitratutako informazio alfanumeriko eta geoespazialaren arabera dira:

- a) Kantauriko Demarkazio Hidrografikoen informazio geografikoko sistema (KMHIGS), Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa administratua. Beste xedapen batzuetan ez bada aurreikuspen zehatzik egin, KMHIGS informazio geografikoko sistemaren administrazio-lanak aroko organismoaren Plangintza Hidrologikoko Bulegoak egingo ditu. Helbide elektronikoa honetan dago eskuragarri jendearentzat: <http://sig.chcantabrico.es/sigweb/>.
- b) Uraren Informazio-sistema, Uraren Euskal Agentziak administratua. Helbide elektronikoa honetan dago eskuragarri jendearentzat: <http://www.uragentzia.euskadi.eus/informacion-del-agua/informacion-geografica-visor-gis/visor-gis/u81-0003711/es/>.

4. Zehazki, eta beste eginkizun batzuen artean, KMHIGS eta EUIS informazio-sistemek ur-masen egoeraren inguruko beharrezko informazio guztia ematen dute, aipatutako PHAren 87.2. artikuluen arabera.

5. Halaber, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoen esparru espainiarreko eremu babestuen erregistroa (bertan, bere araudi zehatza aplikatuko da) KMHIGS eta EUIS informazio geografikoko sistemetan sartuta dago, eta beti kontsulta daiteke helbide elektronikoa hauetan: <http://sig.chcantabrico.es/sigweb> eta <http://www.uragentzia.euskadi.eus/informacion-del->

agua/informacion-geografica-visor-gis/visor-gis/u81-0003711/es/. Sistema horietan, PHAren 24. artikuluari jarraiki barne hartu behar diren babes-elementuak jaso dira, baita kasuan kasuko erakunde geoespazialek zehaztutako geometriak ere.

2. artikulua. *Agintari eskudunak*

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan izendatutako agintari eskudunak Planaren Memoriako 15. kapituluari jasotzen dira.

3. artikulua. *Lurgaineko ur-masen identifikazioa*

1. Lurgaineko 138 ur-masa mugatu dira: 117 ibai-kategoriakoak dira (horietatik 9 urtegitzat har daitezke), 3 aintzira-kategoriakoak, 14 tarteko uren kategoriakoak eta 4 kostaldeko uren kategoriakoak. Ur-masa horiek guztiak 1. eranskinean daude zerrendatuta

2. Ibai-kategoriako ur-masen artean, 6 ibai-ardatz kantauriar-atlantiko nagusi karedunak motakoak dira; 23 ardatz kantauriar-atlantiko txiki karedunak motakoak dira; 40 Euskal Pirinioetako ibaiak motakoak dira; 30 ibai kantauriar-atlantiko karedunak motakoak dira; 9 kostaldeko ibai kantauriar-atlantikoak motakoak dira; urtegitzat har daitezkeen ibaietako 1 monomiktikoa, hezeguneetako silizeoa, 15 °C-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motakoa da; urtegitzat har daitezkeen ibaietako 1 monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, sare nagusiko ibaiei dagokiena motakoa da; eta urtegitzat har daitezkeen ibaietako 7 monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, 15 °C-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motakoak dira.

3. Aintzira-kategoriako ur-masak honela banatzen dira: sedimentazio-arroaren barrualdea, mineralizazio ertaina iraunkorra motako 1; monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, 15 °C-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motako 1; eta monomiktikoa, hezeguneetako silizeoa, 15 °C-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motako 1.

4. Tarteko uren kategoriako ur-masen artean: 2 estuario atlantiko intermareala ibaiaren nagusitasunaz estuarioaren gainetik motakoak dira; 8 estuario atlantiko intermareala itsas nagusitasunaz motakoak dira; eta 4 estuario atlantiko azpimareala motakoak dira.

5. Kostaldeko 4 ur-masak Kantauri Ekialdeko kostaldeko ur atlantikoak, azaleratzerik gabe agerian daudenak motakoak dira.

6. Lurgaineko 5 ur-masak mugak gaintzen dituzte (Frantziarekin) eta 1.5 eranskinean jaso dira.

4. artikulua. *Lurpeko ur-masen identifikazioa*

1. PHAren 9. artikulua betetzeko, Plan Hidrologiko honek lurpeko 20 ur-masa identifikatzen ditu bere barrutiaren barruan, eta 2.1. eranskinean zerrendatu dira.

2. PHAren 9.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Plan Hidrologiko Nazionalak aintzat har dezan, beste demarkazio batzuekin kudeatzen diren eta 2.2. eranskinean zerrendatu diren ur-masak proposatzen dira.

5. artikulua. *Erreferentziatzko baldintzak eta mugak egoera moten artean*

Lurgaineko ur-masen egoera edo potentziala baloratzeko erabili behar diren adierazleak dira irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan ezarritakoak (Errege Dekretu horren bitartez, lurgaineko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dira). Modu gehigarrian, 3. eta 4. eranskinetan, erreferentziatzko baldintzak eta egoera edo potentziala aldatzeko mugak, Errege Dekretuan sartuta ez dauden beste adierazle batzuenak, jasotzen dira, eta horiek erabili beharko dira ur-masek duten egoera edo potentziala ebaluatzea osatzeko.

6. artikulua. *Lurpeko ur-masen egoera kimikoaren adierazleak*

Lurpeko ur-masen egoera kimikoa baloratzeko erabili beharreko kutsatzaileei dagokienez, plan hidrologiko honetan jaso diren atalase-balioak kalkulatzeko, aintzat hartu da lurpeko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babesteko arauak finkatzen dituen urriaren 2ko 1514/2009 Errege Dekretuan ezarritakoa. Adierazitako errege-dekretuaren arabera, ur-masa bakoitzerako, hainbat substantziatarako atalase-balioak zehaztu dira. Substantzia horien artean daude: Amonioa, merkurioa, beruna, kadmioa, artsenikoa, trikloroetilenoa eta tetrakloroetilenoa. Adierazitako substantzietarako hartutako atalase-balioak, eta nitratoetarako eta plagizidetarako ingurumen-kalitateari buruzko arauak 9. eranskinean daude bilduta.

7. artikulua. *Ur-masa artifizialak edo oso aldatuta daudenak*

Nabarmenki aldatutako 34 ur-masa mugatu dira: 30 ibai-kategoriakoak dira (horietatik 9 urtegitzat har daitezke), eta 4 tarteko uren kategoriakoak. Era berean, aintziratzat har daitezkeen 2 ur-masa artifizial mugatu dira. Horiek guztiak 1. eranskinean daude zerrendatuta.

8. artikulua. *Babestutako Eremuen Erregistroa*

Babestutako Eremuen Erregistroan sartzen dira Europar Batasuneko araudiari eta beste araudi batzuei jarraiki babestu beharrekoak diren ingurune urtarrarekin lotutako eremuak. Babestutako Eremuen Erregistroko kategoriak, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 24. artikulua arabera, honako hauek dira:

- a) Gizakien kontsumorako ura ekoizteko ur-hartune gisa erabiltzen diren urak edo masak, baldin eta gutxienez 10 metro kubikoko batez besteko bolumena ematen badute egunero edo 50 pertsona baino gehiago hornitzen badituzte, eta egokia bada, babes-perimetro zedarrituak. Administrazio Hidraulikoak Erregistroan ura ateratzeko erabiltzen diren eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten beste eremu batzuk ere sartu ahalko ditu, modu arrazoituan, beren ezaugarrien arabera. 7.1 eta 7.2 eranskinetan biltzen dira, hurrenez hurren, *gizakien kontsumorako ur-hartuneak*, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, autonomia-erkidego horretako Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 32. artikuluan xedatutakoa betetzeko, 10 biztanle baino gehiago hornitzen dituzten hartuneak sartuko dira.
- b) Etorkizunean hiri-hornidurarako ur-hartune gisa erabiliko diren eremuak eta masak, a) atalean adierazten diren gutxienerako bolumenari edo hornitutako gutxienerako pertsona kopuruari buruzko baldintza betetzen dutenak. Katetoria horri dagozkion eremuak 7.3 eranskinean jasotzen dira.
- c) Ikuspegi ekonomikotik garrantzitsuak diren espezie urtarrak babesteko eremu gisa izendatu direnak:
 1. 7.4 eranskinean jasota daude arrainak bizitzeko babes berezikotzat izendatutako eremuak, irailaren 11ko 817/2017 Errege Dekretuaren arabera.
 2. 345/1993 Errege Dekretua, martxoaren 5koa, itsasoko uren, eta moluskuen eta itsasoko beste ornogabe bizi batzuen produkzioaren kalitateari buruzko arauak ezartzen dituena. 7.5 eranskinean jasotako eremuak.
- d) Olgeta-erabilerakotzat deklaraturako ur-masak, bainu-urtzat deklaraturako eremuak barne, bainu-uren kalitatea kudeatzeari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren arabera. 7.6 eranskinean, tarteko eta kostaldeko uretan deklaraturako bainu-eremuak zerrendatzen dira. 15. eranskinean, olgeta-erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak biltzen dira.
- e) Urrakortzat deklaraturako eremuak, nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sorrarazitako kutsaduraren aurka urak babesteari buruzko aruari jarraiki: 261/1996 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sorrarazitako kutsaduraren aurka urak babesteari buruzkoa. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan ez dago katetoria horretako eremurik.
- f) Kalteberatzat deklaraturako eremuak, hondakin-ur hiritarren tratamenduari buruzko aruari jarraiki: 11/1995 Errege Dekretu Legegilea, abenduaren 28koa, hondakin-ur hiritarren tratamenduan aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituena. Katetoria honetako eremuak 7.7 eranskinean jaso dira.

- g) Habitaten edo espezieen babesgunetzat jotzen diren eremuak, ura mantentzea edo uraren egoera hobetzea babesaren faktore garrantzitsu gisa dutenak. Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL), Hegaztiak Bereziki Babesteko Eremuak (HBBE) eta Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), Natura 2000 Sareko naturgune babestuetan sartutakoak. Horiek Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen esparruan izendatu dira. Atal honi dagozkion espazioak 7.8 eranskinean daude jasota.
- h) Ur mineral eta termalen babes-perimetroak, beren legeria zehatzaren arabera onartuak. Onartutako perimetroak 7.9 eranskinean zerrendatu dira.
- i) PHAren 22. artikulua arabera, Ibai Erreserba Naturalak. Ibai Erreserba Naturalak 7.10 eranskinean jasota daude.
- j) Ramsar-eko Hitzarmeneko Zerrendan jasota dauden Hezeguneak, martxoaren 12ko 435/2004 Errege Dekretuaren arabera Espainiako Hezeguneen Inbentarioan jasota daudenak eta beste hezegune batzuk. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako hezeguneen zerrenda 7.11 eranskinean jaso da.
- k) Babes Bereziko Eremuak: kategoria honen barruan honako tipologia hauek bereizten dira:
 - 1. Interes naturala edo ingurumenekoa duten ibai-tarteak; halakotzat hartuta babes berezia behar duten tarte bereziki bakanak. Tarte horiek 7.12 eranskinean zerrendatu dira.
 - 2. Beste babes-figura batzuk: 7.13 eranskinean, dagoeneko adierazitako inolako ataletan jasota ez dauden, baina egoki babesteko hautatu diren bestelako figurak jaso dira.

II. kapitulua. Ingurumen-arloko helburuak

9. artikulua. Ingurumen-arloko helburuak

- 1. ULTBaren 92 bis artikulua betetzeko, 6. eranskinean, Planaren esparruan identifikatutako ur-masa bakoitzerako ingurumen-helburuak eta horiek gauzatzeko epeak jaso dira.
- 2. Plan honetan ez dago aurreikusita ingurumen-helburu arinagorik ezartzea.
- 3. Ur-masa gisa izendatu ez diren elementuak, jabari publiko hidraulikokoak, edozein kasutan ere babestu egingo dira, aipatutako 92 bis artikuluan ezarritako ingurumen-arloko helburuak betetzeko, baita irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako balioak betetzeko ere, egoera-moten arteko mugak —3. eta 4. eranskinetako antzeko kategoriaren eta tipologiaren arabera— eta 8. eranskinean ezarritako erreferentziazko balioak ere.
- 4. Babestutako Eremuen Erregistroko eremuetarako ingurumen-helburuak ur-masetarako helburu orokorrekiko gehigarriak dira. Izan ere, horiekin lotuta daude eta adierazitako eremuak deklaratzeko baliatutako legerian jasotako helburuekin erlazionatuta daude, baita horiek babestu, antolatuta eta kudeatzeko tresnek ezartzen dituzten helburuekin ere.

5. Ingurumen-arloko helburuak betetzeko epeak eta helburu horiek erdiesteko luzapenak 6. eranskinean aurreikusi dira; nolana ere, ingurumen-arloko kalitate-arauak eta inguru hartzaileko erreferentziatzeko balioak —8. eranskinean daude jasota— indarrean sartzen direnetik bete behar dira.

6. PHAren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren kasuak esplizituki jaso dira Memoriaren 9. eranskinean, fitxa sistematikotan.

10. artikulua. *Ur-masen egoeraren aldi baterako narriadura onartzeko baldintzak*

1. Ur-masa baten ego gehiagoren egoera aldi baterako narriatuz gero, ondoko hauek dira PHAren 38. artikulua araberaren arrazionalki ezustekotzat edo apartekotzat har daitezkeen egoerak:

- a) Uholde larritzat hartuko dira probabilitate ertainekoak, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluko 1. ataleko b) kategoriarekin bat etorriz. Probabilitate handieneko uholdeak uholde larritzat hartu ahal izango dira, baldin eta uholde horien eraginak ere ezohikoak badira.
- b) Lehorte luzetzat joko dira aplikatzeko den Alerta eta Behin-behineko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezian xedatutakoaren araberaren deklaraturako larrialdi-egoerari dagozkionak.
- c) Arrazoiz aurreikusi ezin izan diren istripuztat hartuko dira, besteak beste: ustekabekoak diren noizbehinkako isurketak, hondakin eta produktu industrialak biltegitratzeko sistemetan izandako akatsak, azpiegitura hidraulikoen eta saneamenduko ustekabeko hausturak, industrietako suteak eta garraioan izandako istripuak. Baita baso-suteen ondoriozko egoeraren ondoriozkoak ere.
- d) Muturreko bestelako fenomeno naturalak, hala nola, lurrikarak, itsasikarak, tornadoak, elur-jausiak, etab.

2. Eskumenak dituen Administrazio Hidraulikoak erregistro bat izango du Plan Hidrologikoa indarrean dagoen bitartean gertatzen diren aldi baterako narriadurak biltzeko. Aldi baterako narriaduren kasuak eta eragindako ondorioak deskribatu eta justifikatuko dira, eta bai konpontzeko bai narriadura hori etorkizunean berriro gertatzea prebenitzeko hartutako neurriak adieraziko dira.

11. artikulua. *Aldaketa berrietarako baldintzak*

1. Ingurumen-arloko helburuak ULTBaren 92 bis artikuluan aurreikusitakoaren araberaren erdiestea galarazten duten arren justifika daitezkeen aldaketa berriei dagokienez, Plan Hidrologiko honek gauzatzea aurreikusten dituenak dira 6. eranskinean identifikatuta eta Memoriaren 9. eranskinean dokumentatuta daudenak.

2. Gainerako kasuetan, hau da, aurreikusita ez dauden aldaketa berrietarako, kontuan hartuko da onartzeko Errege Dekretuaren 2. artikuluan jasotakoa. Hartara, PHAren 39.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, aurreko atalean adierazitako kasuetarako erabilitako fitxa-eredua betetzearen bidez. Eskumenak dituen Administrazioak aldaketa berrien erregistro bat egingo du.

III. kapitulua. Emari ekologikoen erregimena

12. artikulua. *Emari ekologikoen erregimenaren inguruko alderdi orokorrak*

1. Emari ekologikoen erregimenari dagokionez, 13. artikulutik 15. artikulura aplikatuko dira Plan honen indarraldian zehar araudi aplikagarri orokorrik ez dagoen bitartean.
2. ULTBaren 59.7 artikulua araberako, emari ekologikoak edo ingurumen-eskaerak, Planaren hurrengo artikuluetan aurreikusitakoak, ez dira erabileratzat hartuko, eta ustiapen-sistemei oro har ezartzen zaien murrizketatzat jo behar dira, 13.6 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

13. artikulua. *Gutxieneko emari ekologikoak*

1. Ibai-kategoriako eta tarteko kategoriako ur-masetarako, 5. eranskinean agertzen diren gutxieneko emari ekologikoak finkatu dira, bai ohiko egoera hidrologikorako, bai aplikatzekoa den Alerta eta Behin-behineko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezia xedatutakoaren arabera deklaraturako lehortearen ondoriozko larrialdi-egoerarako.
2. Ohiko egoera hidrologikorako ezarritako emari ekologiko minimoei eragin gabe eskaerei erantzuteko irtenbide tekniko bideragarriak daudenean, zehaztutako emari ekologiko minimoen erregimena ez da aplikatuko deklaraturako lehortearen ondoriozko larrialdi-egoerarako.
3. Lehen puntuan adierazitako gutxieneko emari ekologikoak kontuan hartutako lurgaineko ur-masaren edo tartearen ibaian beherako muturrari dagozkie.
4. 5.1 eranskinekoekin bat ez datozen puntuetan, ibilguetako gutxieneko emari ekologikoak zehazteko, ondoko arauari jarraituko zaie:
 - a) 5.1 eranskinean adierazitakoaren arabera gutxieneko emari ekologikoak dituzten bi punturen artean kokatutako leku batean gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko, jarraian adierazten den formula aplikatuko da:

$$Q_x = (Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n) + \frac{Q_b - (Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n)}{A_b - (A_1 + A_2 + \dots + A_n)} * [A_x - (A_1 + A_2 + \dots + A_n)]$$

Non:

$Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n$: Gutxieneko emari ekologikoa ibaian gorako puntuan edo puntuetan, bai ibilgu nagusian, bai ibaiadarretan. 5.1 eranskinean zehaztutakoaren arabera ibilgu nagusi edo ibaiadar batean ibaian gora gutxieneko emari ekologikoa duen puntu bat baino gehiago egonez gero, kasu bakoitzean kalkulatu nahi direnen artean hurbilenekoa hartuko da $Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n$ gisa.

Q_b : Gutxieneko emari ekologikoa ibaian beheko puntuan. 5.1 eranskinean zehaztutakoaren arabera ibaian behera gutxieneko emari ekologikoa duen puntu bat baino gehiago egonez gero, ibilgailu nagusitik hurbilen dagoena izango da.

Q_x : Kalkulatu nahi den puntuko gutxieneko emari ekologikoa.

$A_1 + A_2 + \dots + A_n$: Arro isurleen azalerak ibaian gorako puntuan, $Q_1 + Q_2 + \dots + Q_n$ -ri dagozkionak.

A_b : Arro isurlearen azalera ibaian beheko puntuan.

A_x : Kalkulatu nahi den puntuko arro isurlearen azalera.

- b) Gutxieneko emarietako erregimenaren balioa estrapolatu behar denean (hau da, gutxieneko emariak izendatuta dituen lehen puntutik ibaian gorako erregimen bat kalkulatu behar deneko buruko tartetean), honako formula hau erabili beharko da:

$$Q_x = \frac{Q_1}{A_1} \times A_x$$

Non:

Q_1 : Gutxieneko emari ekologikoa ibaian beheko puntuan.

Q_x : Kalkulatu nahi den puntuko gutxieneko emari ekologikoa.

A_1 : Arro isurlearen azalera ibaian beheko puntuan.

A_x : Kalkulatu nahi den puntuko arro isurlearen azalera.

- c) Txikiak izateagatik ur-masatzat izendatu ez diren eta ibai-kategoriako inolako ur-masarekin lotuta ez dauden ibilgu-tartetean (batez ere, itsasora edo tarteko uretara isurtzen duten ibilgu txikiak), gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko, arro isurleko km^2 bakoitzeko 2,0 l/s-ko balioa kontuan hartuko da; beste balio bat behar bezala justifikatzen bada izan ezik.

- d) Iturburuetan edo ibilguetako lurgaineko urak lurrian zati batean edo erabat sar daitezkeen lekuetan, eta natura-ingurunean izan litezkeen eraginen ondorioz ULTBaren 92. eta 92 bis artikuluetan zehaztutako helburuak betetzea ezinezkoa izan litekeen lekuetan, gutxieneko emari ekologikoa berariazko azterlanen bidez zehaztuko da eta ez da aplikatuko aurreko ataletan deskribatutako prozedura. Berariazko azterlan horiek gutxieneko emari ekologikoak zehaztu beharko dituzte azterlan horietan eraginpekotzat hartzen den ibilguaren tarte osoan.

5. Ezin izango da exijitu unean-unean dagoen erregimen naturaletik gorako gutxieneko emari ekologikorik. Ibilguaren emaria ezarritako gutxieneko emari ekologikoa baino txikiagoa denean, ezingo da ur-deribaziorik egin, Plan Hidrologikoa honetan jasotako salbuespenak salbuespen.

6. Ohiko lehorte-egoeretan, herriak hornitzeko emakidek, ULTBaren 59.7 artikulua araberaren arabera, lehentasuna izango dute emari ekologiko minimoen erregimenaren gainetik, baldin eta, aurretiaz, Administrazio Hidraulikoak hari erantzuteko hornidura-aukera bideragarri ez dagoela irizten badio eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Emari zirkulatuaren % 75 baino gehiago ez ateratzea hornidurarako.
- b) Erabilitako ur kantitatea murrizteko neurri egokiak hartzea emari zirkulatuaren gutxieneko emari ekologikoak baino txikiagoak diren bitartean.
- c) Emakidaren erakunde onuradunak hartutako neurriei eta lortutako emaitzei buruzko txostena egin eta Administrazio Hidraulikoari bidaltzea hilabeteko epean, gehienez ere, egoera hasten denetik.
- d) Nolanahi ere, emari ekologiko minimoak eraginpean egon diren aldia amaitu eta luzeen jota 6 hilabetera, hornidura-emakidaren onuradun den erakundeak Administrazio Hidraulikoari jarduera-plan bat entregatuko dio, horrelakoak gertatzeko aukerak gutxiagotzera bideratutako jarduera-plan bat, hain zuzen. Plan horretan, bidezkoa denaren arabera, honako hauek identifikatuko dira: kontsumoa aurreztera bideratutako neurriak, hornidura-sarean eraginkortasuna hobetzeko neurriak eta bestelako baliabide-iturriak, dagokien kontrol- eta jarraipen-sistemeekin batera. Administrazio Hidraulikoak jarduera-plan horren aplikazioaren jarraipena egingo du eta, behar adinako edo egokia ez dela irizten badio, hartunearen lehentasuna aplikatzeari utzi ahal izango zaio, ULTBaren 50.4 artikulua araberaren arabera.

14. artikulua. *Gehieneko emari ekologikoak*

5.3 eranskinean, erregulazio-egitura handiak dituzten ibai-kategoriako ur-masa batzuetarako gehieneko emari ekologikoen erregimenak finkatu dira.

5.3 eranskinean adierazitakoak baino emari handiagoak presen huste-organoen bitartez husteak ez du esan nahiko gehieneko emarien erregimena hautsi denik uholdeak daudenean Ustiapen-arau onartuari jarraiki jokatzen bada.

15. artikulua. *Emari ekologikoen erregimena ezartzeko prozesua*

1. Emari ekologikoen erregimena Plan Hidrologiko Nazionalaren uztailaren 5eko 10/2001 Legearen 26.3. artikulua adierazten duenaren arabera indarrean dauden emakidei aplikatuko zaie, 2013ko ekainaren 9an indarrean zeuden emakiden titularrekin hitzartze prozesuaren garapenari kalterik egin gabe. Egun hartan sartu zen indarrean 400/2013 Errege Dekretua, gutxieneko emari ekologikoen erregimenaren eta egungo erabilera eta eskaeren arteko bateragarritasuna hobetzeko.

2. Emari ekologikoen erregimenean aldaketak egiten badira —13.4.d) artikulua aplikatzeagatik edo Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako emari ekologikoen erregina hobetzeko azterlanengatik—, 1. atalean jasotako baldintzen arabera izango dira aplikatzekoak. Era berean, horiek Plana berrikusteko hurrengo zikloan sartuko dira; Demarkazioko Uraren Kontseiluak eta Erabiltzaileen Batzarrak, dagozkien eskumen-esparruetan, horiek lehenago sartzea erabakitzen badute salbu, PHAren 89.1 artikulua arabera.

IV. kapitulua. Erabileren lehentasuna eta bateragarritasuna

16. artikulua. *Uraren erabilerak*

PHAren 12. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, uraren erabilerak Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren (JPHE) 49 bis artikuluan aipatzen direnak dira, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutakoa.

17. artikulua. *Erabileren eta aprobetxamenduen arteko erabilera-lehentasunen ordena*

1. Uraren erabileren artean lehentasun-ordena hau ezartzen da, ura eta bere ingurua babestu eta mantentzeko beharrezkoa dena kontuan hartuz:

1. Biztanleria hornitzea.
2. Abeltzaintza.
3. Aisiaren eta turismoaren industrietako erabilerak ez diren industria-erabilerak.
4. Ureztatzea.
5. Akuikultura.
6. Olgeta-erabilerak eta aisiaren eta turismoaren industrietako erabilerak.
7. Nabigazioa eta uretako garraioa.
8. Bestelako erabilerak.

2. Lehentasun-ordenak ezingo du eraginik izan plan honek hurrengo kapituluan berariaz esleitutako baliabideetan, ez eta uraldiak mailakatzeko urtegi-tako babesetan ere.

3. Lehenetsun-hurrenkera bera duten erabileretarako eskaera bat baino gehiago izanez gero, Administrazio Hidraulikoak eskaera iraunkorrenei emango die lehenetsuna, JPHEaren 60. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

4. Biztanleriarentzako horniduretan, lehenetsuna izango dute mankomunitateekin, partzuergoekin edo udalen sistema integratuekin lotutako eskaerek, baita kalitate-arazoak dituzten urak kalitate egokiko beste batzuekin ordezkatzeko ekimenek ere.

5. "Bestelako erabilerak" dira 1. atalean aipatu diren aurreneko zazpi kategorietako bakar batean ere sartzen ez diren guztiak. Ez dute berekin ekarriko ura erabiltzea ingurumen-arloko helburuekin, ur-masen egoeraren baldintzatzaileak direnekin, eta ez diete erreferentzia egingo ULTBaren 59.7 artikuluan jasotako kasuei.

V. kapitulua. Baliabideen esleipena eta erreserba

18. artikulua. Baliabideen ustiapen-sistemak zehaztea

1. PHAren 19. artikulua arabera, baliabideak ustiatzeko honako sistema hauek hartu dira:

- a) Barbadun sistema.
- b) Nerbioi sistema.
- c) Butroe sistema.
- d) Oka sistema.
- e) Lea sistema.
- f) Artibai sistema.
- g) Deba sistema.
- h) Urola sistema.
- i) Oria sistema.
- j) Urumea sistema.
- k) Oiartzun sistema.
- l) Bidasoa sistema.
- m) Pirinioetako ibaien sistema.

2. Baliabideak ustiatzeko sistemen esparrua jarraian zehazten da:

- a) Barbadun ustiapen-sistema: Barbadun ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Tresmoral, Pikon edo Kotorrio, Galdames eta Bezi ibaien arroak, eta Antiklinoria Hegoaldea lurpeko ur-masa barne direla.
- b) Nerbioi ustiapen-sistema: Nerbioi, Cadagua, Ibaizabal, Altube, Zeberio, Ordunte, Asua, Galindo eta Gobelas ibaien arroak, eta Nerbioi-Ibaizabalen estuarioa biltzen ditu. Gainera, Altubeko urmaelen gunea hartzen du.
- c) Butroe ustiapen-sistema: Butroe ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Oleta, Arretabarri, Atxispe, Zuzentze, Maruri eta Larrauri ibaien arroak barne direla. Era berean, Andrakas, Estepona, Bakio eta Infierno ibaien

- aldameneko arroak, eta Antiklinorioa Iparraldea eta Bizkaiko Sinklinorioa lurpeko ur-masak hartzen ditu.
- d) Oka ustiapen-sistema: Oka ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Mape, Muxika, Kanpantxu, Golako eta Oma ibaien arroak barne direla. Era berean, Artigas eta Laga ibaien aldameneko arro guztiak, eta Bizkaiko Sinklinorioa, Antiklinorioa Iparraldea, Oiz, Gernika eta Ereñozar lurpeko ur-masak hartzen ditu.
 - e) Lea ustiapen-sistema: Lea ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Oiz eta Arbina ibaien arroak barne direla. Era berean, Ea ibaiaren aldameneko arroa, eta Antiklinorioa Iparraldea, Sinklinorioa Bizkaia eta Ereñozar lurpeko ur-masak hartzen ditu.
 - f) Artibai ustiapen-sistema: Artibai ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Bolibar, Urko eta Amailoa ibaien arroak barne direla. Era berean, Antiklinorioa Iparraldea, Sinklinorioa Bizkaia, Ereñozar eta Izarraitz lurpeko ur-masak hartzen ditu.
 - g) Deba ustiapen-sistema: Deba ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Ego, Aramaio, Oñati, Urkulu, Arantzazu, Ubera, Angiozar, Lastur, Kilimoi, San Lorenzo eta Antzuola ibaien arroak barne direla. Era berean, Saturraran eta Mijoa ibaien aldameneko arroak, eta Aizkorri, Antiklinorioa Iparraldea, Sinklinorioa Bizkaia, Aramotz, Altube-Urkilla, Arantzazu, Izarraitz eta Zumaia-Irun lurpeko ur-masak hartzen ditu.
 - h) Urola ustiapen-sistema: Urola ibaiaren arro osoa eta estuarioa barne hartzen ditu, Ibaieder, Altzolaratz, Barrendiola, Urtatza, Katuin, Sastarrain, Larraondo eta Otaola ibaien arroak barne direla. Era berean, Antiklinorioa Iparraldea, Sinklinorioa Bizkaia, Gatzume-Tolosa, Arantzazu, Izarraitz eta Zumaia-Irun lurpeko ur-masak hartzen ditu.
 - i) Oria ustiapen-sistema: Oria ibaiaren arroa eta estuarioa barne hartzen ditu, baita Agauntza, Zaldibia, Amezketza, Araxes, Berastegi, Leitzaran, Estanda, Asteasu, Santiago eta Altxerri ibaien arro guztiak ere. Era berean, Inurritzaren aldameneko arroa hartzen du.
 - j) Urumea ustiapen-sistema: Urumea ibaiaren arroa barne hartzen du, baita Añarbe, Landarbaso eta Ollin ibaien arroak, Urumearen estuarioa eta Igara ibaiaren aldameneko arroa ere.
 - k) Oiartzun ustiapen-sistema: Oiartzun ibaiaren arroa eta estuarioa, eta Zamora, Sarobe, Karrika eta Arditurri ibaiadarrena barne hartzen ditu. Era berean, Jaizkibel, Zumaia-Irun, Andoain-Oiartzun eta mendigune paleozoikoa hartzen ditu.
 - l) Bidasoa ustiapen-sistema: Bidasoa ibaiaren arroa barne hartzen du, baita Zia, Ezkurra, Zeberia, Latsa eta Endara, Jaizubia eta Aldabe ibaien arro guztiak, eta Bidasoaren estuarioa ere.
 - m) Pirinioetako Ibaien ustiapen-sistema: Urritzate eta Aritzakun (Frantziako Errobiren ibaiadarrak) ibai-arroen buruak, eta Ugarana ibaiaren zerbitzari diren Arotzarena, Olabidea, Barreta, Alzaggerri eta Lapitxuri ibaien barne hartzen ditu. Gainera, Zubiondo, Imelestegi eta Beurreta-Buzanko ibaien (Aldudeko Errobiren zerbitzariak), eta Luzaide ibaiaren (Arnegiko Errobiren zerbitzaria) arroak hartzen ditu.

3. Baliabideen esleipena Barbadun sisteman:

- a) Sopuertari udalerriko lurpeko baliabideen eta Zadorra sistemako baliabideen errefortzuaren 0,26 hm³ esleitu zaizkio urteko. Era berean, Galdamesi udalerriko

lurgaineko eta lurpeko baliabideen eta aipatutako Zadorra sistemako baliabideen errefortzuaren 0,12 hm³ esleitu zaizkio urteko.

- b) Muskizi (Pobeña) sistemako lurpeko baliabideen eta Zadorra sistemako baliabideen errefortzuaren 0,04 hm³ esleitu zaizkio urteko.

4. Baliabideen esleipena Nerbioi sisteman.

a) Cadagua ibaia:

1. Mena Haranari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,44 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik (Cadagua ibaia), eta egun erabiltzen dituen Salbada eta Mena-Urduña lurpeko ur-masen baliabideetatik.
2. Balmasedari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,59 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbok hornitzen dizkion Ordunteko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
3. Zallari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,83 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbok hornitzen dizkion Ordunteko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
4. Güeñesi, eskaerei erantzuteko, urtean 0,60 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbok hornitzen dizkion Ordunteko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
5. Alonsotegiri, eskaerei erantzuteko, urtean 0,29 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
6. Artziniega, Gordexola eta Okondo udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 0,61 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
7. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,84 hm³ esleitu dira Cadagua ibaiko baliabideetatik.

b) Ibaizabal ibaia:

1. Elorriori, eskaerei erantzuteko, urtean 0,67 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea eta Etxano lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Durangaldea sistemak hornitzen dizkion Aramotz ur-masaren baliabideetatik.
2. Abadiñori, eskaerei erantzuteko, urtean 0,71 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea, Etxano eta Oiz lurpeko ur-masen baliabideetatik.
3. Zaldibarri, eskaerei erantzuteko, urtean 0,23 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Etxano lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Durangaldea sistemak hornitzen dizkion Aramotz ur-masaren baliabideetatik.

4. Berrizi, eskaerei erantzuteko, urtean 0,50 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Etxano eta Oiz (Oizetxebarrieta-A zundaketa) lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 5. Durangori, eskaerei erantzuteko, urtean 2,40 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Etxano, Oiz (Ibarruri iturburua, Gallandas iturburua, eta Ibarruri, Gallandas eta Arria zundaketak) eta Aramotz (Mañariko iturburuak eta zundaketak) lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 6. Iurretari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,48 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Etxano, Oiz (Ibarruri iturburua, Gallandas iturburua, eta Ibarruri, Gallandas eta Arria zundaketak) eta Aramotz (Mañariko iturburuak eta zundaketak) lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 7. Amorebieta-Etxanori, eskaerei erantzuteko, urtean 1,96 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Etxano (Etxano-A zundaketa) eta Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 8. Igorreri, eskaerei erantzuteko, urtean 0,44 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Aramotz (San Kristobal iturburua) eta Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 9. Lemoari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,35 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Aramotz (San Kristobal iturburua) eta Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 10. Galdakaori, eskaerei erantzuteko, urtean 2,44 hm³ esleitu zaizkio, Lekubasoko urtegiko lurgaineko baliabide erregulatuetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 11. Atxondo, Garai, Mañaria, Izurtza, Larrabetzu, Bedia, Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu eta Dimako udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 1,15 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
 12. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,01 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.
- c) Nerbioi ibaia:
1. Urduñari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,45 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Salbada eta Mena-Urdña lurpeko ur-masen baliabideetatik.
 2. Amurriori, eskaerei erantzuteko, urtean 1,40 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Mena-Urdña eta Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Maroñoko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 3. Laudiori, eskaerei erantzuteko, urtean 1,73 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik (Anauri ibaia, Altube ibaia), Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Maroñoko urtegiko baliabide erregulatuetatik.

4. Aiarari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,65 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Salbada eta Mena-Urduña lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Maroñoko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
5. Orozkori, eskaerei erantzuteko, urtean 0,37 hm³ esleitu zaizkio lurgaineko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea eta Itxina (Aldabide iturburu) lurpeko ur-masaren baliabideetatik.
6. Ugao-Mirabalesi, eskaerei erantzuteko, urtean 0,34 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
7. Arrigorriagari, eskaerei erantzuteko, urtean 1,17 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
8. Basauriri, eskaerei erantzuteko, urtean 3,11 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
9. Etxebarriri eta Doneztebeko Elizateari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,71 hm³ esleitu zaizkie, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
10. Bilbori, eskaerei erantzuteko, urtean 29,83 hm³ esleitu zaizkio, egun erabiltzen dituen Ordunte eta Zolloko urtegiak eta Cadagua ibaiko lurgaineko baliabide erregulatuetatik, eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
11. Bilbo Handiari, eskaerei erantzuteko, urtean 62,176 hm³ esleitu zaizkio, Artiba eta Necedaleko urtegiak lurgaineko baliabide erregulatuetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.
12. Arakaldo, Zeberio, Arrankudiaga eta Zaratamoko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 0,49 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
13. Barakaldori eta Sestaori, beren eskaerari erantzuteko, urtean 11,464 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten Oiologo, Artibako eta Necedaleko urtegiak baliabide erregulatuetatik, eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegiko baliabide erregulatuetatik.

- d) Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urtean 0,64 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.
- e) Zenbatetsitako industria-eskaerei erantzuteko, urtean 11,06 hm³ esleitu dira Cadagua, Ibaizabal eta Nerbioi ibaien baliabideetatik.

5. Baliabideen esleipena Butroe sisteman.

- a) Ustiapen-sistema honen ur-eskaera garrantzitsuenak Demarkaziotik kanpoko ustiapen-sistemetatik datozen baliabideetatik hornitzen dira (Zadorra-Bilbo/Bizkaia hornidura-sistema).
- b) Bakiori, eskaerei erantzuteko, urtean 0,04 hm³ esleitu zaizkio, San Pelaioko ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik.
- c) Meñakari, bere eskaerari erantzuteko, urtean 0,08 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden lurpeko baliabideetatik.
- d) Munguari, bere industria-eskaerari erantzuteko, urtean 0,01 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden gainazaleko baliabideetatik.
- e) Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urtean 0,09 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

6. Baliabideen esleipena Oka sisteman.

- a) Gernikari, Ibarrangeluri eta Elantxoberi, herrien eskaerei erantzuteko, urtean 2,45 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz edo Zadorra sistema).
- b) Foruari eta Muruetari, herrien eskaerei erantzuteko, urtean 0,15 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz edo Zadorra sistema).
- c) Mundakari, Sukarrietari eta Busturiari, herrien eskaerei erantzuteko, urtean 0,65 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz edo Zadorra sistema).
- d) Bermeori, herriaren eskaerei erantzuteko, urtean 1,93 hm³ esleitu zaizkio, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz edo Zadorra sistema).
- e) Mendatari eta Bermeoren eta Muxikaren auzo txikiei, beren herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,13 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz edo Zadorra sistema).
- f) Ajangizi eta Gernika-Lumori, beren industria-eskaerari erantzuteko, urtean 0,29 hm³ esleitu zaizkie Oka eta Golako ibaien baliabideetatik.

7. Baliabideen esleipena Lea eta Artibai sistemetan.

- a) Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzi, Aulestiri, Etxebarriari, Ziortza-Bolibarri eta Markinari, beren herri-eskaerei erantzuteko, urtean 1,20 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz).

- b) Lekeitiori eta Amorooren eta Ispasterren hainbat auzori, herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,66 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabide erregulatuetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz).
- c) Gizaburuagari eta Ispasterri, herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,11 eta 0,08 hm³ esleitu zaizkie, hurrenez hurren, ustiapen-sistemako erregulatutako lurpeko baliabideetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz).
- d) Amorotori eta Gizaburuagari, beren herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,03 eta 0,11 hm³ esleitu zaizkie, hurrenez hurren, ustiapen-sistemako lurpeko baliabideetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz).
- e) Ondarroari eta Berriatuari, beren herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,70 eta 0,26 hm³ esleitu zaizkie, hurrenez hurren, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabideetatik eta kanpoko baliabideen errefortzukoetatik (Oiz).
- f) Eari, herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,11 hm³ esleitu zaizkio, Ulla iturburuko kanpoko baliabideen errefortzutik (Oiz).

8. Baliabideen esleipena Deba sisteman.

- a) Debagoienari, herri-eskaerei erantzuteko, urtean 4,69 hm³ esleitu zaizkio, Bolibarko presa txikiko eta Urkuluko urtegiko lurgaineko baliabideetatik.
- b) Arrasateri, Bergarari eta Antzuolari, beren herri-eskaerei erantzuteko, urtean 2,65, 1,73 eta 0,35 hm³ esleitu zaizkie, hurrenez hurren, Bolibarko presa txikitik eta Urkuluko urtegitik nahiz ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko beste baliabide batzuetatik.
- c) Ermuari, bere herri-eskaerei erantzuteko, urtean 1,69 hm³ esleitu zaizkio, Telleriako eta Itzagako ur-hartuneetatik eta kanpoko baliabideetatik (Durangaldea).
- d) Eibarri, bere herri-eskaerei erantzuteko, urtean 2,80 hm³ esleitu zaizkio, Urkuluko eta Aixolako urtegitatik nahiz Bolibarko presa txikitik.
- e) Deba, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Debaren zati bat hornitzeko, urtean 3,24 hm³ esleitu dira Kilimon Sistemaren lurpeko baliabideetatik (Irabanetako leizea, Mahala ponpaketa eta Kilimongo putzuak), eta urtean 0,19 hm³ esleitu dira Debako gainerako udalerrirako, Tantortako iturburutik eta lurgaineko beste baliabide batzuetatik.
- f) Oñatiri, Aramaiori eta Leintz Gatzagari, beren herri-eskaerei erantzuteko, urtean 0,17 hm³ esleitu zaizkie, ustiapen-sistemako lurgaineko eta lurpeko baliabideetatik.
- g) Debako (Arrasate, Bergara, Soraluze, Elgoibar, Oñati eta Antzuola) industria-eskaerei erantzuteko urtean 0,15 hm³ esleitu dira, Deba, Oñati eta Antzuola ibaien eta Garagartza eta Sagaerreka erreken lurgaineko baliabideetatik.
- h) Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,10 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.

9. Baliabideen esleipena Urola sisteman.

- a) Urola Garaiko eta Urola Erdiko hiri-eskaerei erantzuteko, urtean 3,00 eta 9,97 hm³ esleitu dira, hurrenez hurren, Barrendiolako eta Ibaiederko urtegien baliabideetatik eta Aierdiko eta Altzolako ur-hartuneetatik.
- b) Errezili, bere eskaerei erantzuteko, urtean 0,07 hm³ esleitu zaizkio, Untzetako, Señaratzeko, Zaharrako eta Haitz-Errekako lurgaineko ur-hartuneetatik.

- c) Urolako (Urretxu, Zumarraga, Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia eta Legazpi) industria-eskaerei erantzuteko, urtean 2,37 hm³ esleitu dira, Urola ibaiaren eta Urtatza eta Errezil erreken lurgaineko baliabideetatik.

10. Baliabideen esleipena Oria sisteman.

a) Oria Garaia:

1. Idiazabali, eskaerei erantzuteko, urtean 0,30 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango urtegiko baliabide erregulatuetatik.
2. Antiklinorioa Hegoaldea, eskaerei erantzuteko, urtean 1,22 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea, Arama eta Aralar lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango eta Lareoko urtegietako baliabide erregulatuetatik.
3. Lazkaori, eskaerei erantzuteko, urtean 0,64 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Antiklinorioa Hegoaldea eta Aralar lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango eta Lareoko urtegietako baliabide erregulatuetatik.
4. Ordizari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,87 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Arama eta Aralar lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango eta Lareoko urtegietako baliabide erregulatuetatik.
5. Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Olaberria, Gabiria, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso, Ataun, Zaldibia, Arama, Alzaga, Baliarrain, Gaintza, Abaltzisketa, Orendain, Itsasondo eta Legorretako udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 1,83 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
6. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,14 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.

b) Oria Erdia:

1. Tolosari, eskaerei erantzuteko, urtean 1,81 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Gatzume-Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
2. Leitzari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,87 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Basaburua-Ultzamako eta Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masen baliabideetatik.
3. Ibarrari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,32 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Gatzume-Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
4. Zizurkili, eskaerei erantzuteko, urtean 0,45 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Gatzume-Tolosa lurpeko ur-masaren

- baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak hornitzen dizkion Ibiurko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
5. Villabonari, eskaerei erantzuteko, urtean 1,16 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Gatzume-Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak hornitzen dizkion Ibiurko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 6. Andoaini, eskaerei erantzuteko, urtean 1,49 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Gatzume-Tolosa eta Andoain-Oiartzun lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioak hornitzen dizkion Ibiurko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 7. Ikaztegietako, Alegiako, Amezketako, Alzoko, Bidegoiango, Albizturko, Beteluko, Araitzeko, Orexako, Lizartzako, Gazteluko, Leaburuko, Belauntzako, Aresoko, Berastegiko, Elduaineko, Berrobiko, Hernialdeko, Anoetako, Irurako, Alkizako, Larrauleko, Asteasuko eta Adunako udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 2,67 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
 8. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,25 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.
- c) Oria Behea:
1. Lasarte-Oriari, eskaerei erantzuteko, urtean 1,38 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Andoain-Oiartzun lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Urumea Sistemako Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 2. Usurbili, eskaerei erantzuteko, urtean 0,84 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Andoaineko lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Urumea Sistemako Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
- d) Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urtean 0,02 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.
- e) Kalkuluen arabera urtean 7,63 hm³ behar dituzten sistemako industria-eskaerei erantzuteko, Oria ibaiko baliabideak esleitu dira.
11. Baliabideen esleipena Urumea eta Oiartzun sisteman.
- a) Urnietari, eskaerei erantzuteko, urtean 1,32 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Andoain-Oiartzun lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 - b) Hernaniri, eskaerei erantzuteko, urtean 1,66 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Andoain-Oiartzun lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
 - c) Goizuetari eta Aranori, eskaerei erantzuteko, urtean 0,19 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

- d) Donostiari, Astigarragari eta Oiartzun ibaiaren arroko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 22,80 hm³ esleitu zaizkie, Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkien Añarbeko urtegiko baliabide erregulatuetatik.
- e) Oiartzuni, bere eskaerei erantzuteko, urtean 1,40 hm³ esleitu zaizkio, Añarbeko urtegitik eta Penadegiko eta Epeleko lurgaineko ur-hartuneetatik.
- f) Usurbili, bere eskaerei erantzuteko, urtean 1,18 hm³ esleitu zaizkio, Añarbeko urtegitik eta Erroizpe presako lurgaineko ur-hartunetik.
- g) Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,08 hm³ esleitu dira sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.
- h) Industria-eskaerei erantzuteko, urtean 13,11 hm³ esleitu dira lurgaineko baliabideetatik.
- i) Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urtean 0,09 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

12. Baliabideen esleipena Bidasoa sisteman.

- a) Baztani, eskaerei erantzuteko, urtean 2,20 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Basaburua-Ultzamako eta Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masen baliabideetatik.
- b) Donezteberi, eskaerei erantzuteko, urtean 0,28 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masaren baliabideetatik.
- c) Lesakari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,66 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masaren baliabideetatik.
- d) Berari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,46 hm³ esleitu zaizkio, lurgaineko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masaren baliabideetatik.
- e) Beintza-Labaiengo, Urrotzeko, Oitzeko, Donamariako, Bertizaranako, Ezkurrako, Eratsuneko, Saldiasko, Zubietako, Iturengo, Elgorriagako, Sunbillako, Arantzako, Igantziko eta Etxalarko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 1,41 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
- f) Iruni eta Hondarribiari, beren eskaerari erantzuteko, urtean 9,132 hm³ esleitu zaizkie, San Anton edo Endara urtegiko baliabide erregulatuetatik eta Jaizkibeleko lurpeko ur-masen baliabideetatik.
- g) Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,77 hm³ esleitu dira sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.
- h) Industria-eskaerei erantzuteko, urtean 0,60 hm³ esleitu dira sistemaren lurgaineko baliabideetatik.
- i) Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urtean 0,06 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

13. Baliabideen esleipena Pirinioetako Ibaien sisteman.

- a) Urdazubi/Urdaxeko eta Zugarramurdiko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urtean 0,06 hm³ esleitu zaizkie, egun erabiltzen dituzten lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

- b) Luzaideko udalerrinari, eskaerei erantzuteko, urtean 0,08 hm³ esleitu zaizkio, egun erabiltzen dituen lurgaineko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.
- c) Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urtean 0,14 hm³ esleitu dira sistemaren lurgaineko eta lurpeko baliabideetatik.

VI. kapitulua. Jabari publiko hidraulikoaren erabilera

I. sekzioa. Erabilera pribatiboak

19. artikulua. *Lurpeko uren hartuneen eta iturburuen arteko distantziak*

1. Urak ateratzeko putzuak irekitzen direnean, haien arteko edo putzuen eta iturburuaren arteko gutxieneko distantziak JPHEaren 87.2 artikuluan xedatutakoak izango dira
2. Salbuespen gisa, distantzia txikiagorako emakidak esleitu ahal izango dira, baldin eta interesdunak legeztatuta dauden aurreko aprobetxamenduen gainean eraginik ez dagoela egiaztatzen bada.

20. artikulua. *Neurgailuen instalazioa*

1. ULTBaren 55.4 artikulua arabera, aprobetxamenduen titularrek beren kontura instalatu eta mantendu beharko dituzte benetan erabili edo kontsumitutako emariak, itzultitakoak eta jabari publiko hidraulikora isuritakoak erregistratu eta egiaztatzea ziurtatuko duten eta emariak emandako gehienekoetara desbideratzea mugatuko duten neurketa-sistemak.
2. Titularra behartuta egongo da erregistratutako emarien datuak Administrazio Hidraulikoari ematera, horrek erabakitzen duen eran eta aldizkakotasunarekin, emakidak ikuskatu eta kontrolatzeko dituen funtzioak hobekien bete ditzan, Plan Hidrologikoaren jarraipenaren barruan. Berariaz bestelakorik erabakitzen ez bada, urteko bolumenei buruzko datuak gutxienez urtean behin igorri beharko dira urtarrilean zehar.
3. Demarkazio Hidrografikoko erkidego-arteke esparruan, emakidadunak erregistratu dituen emarien datuak kudeatu eta gordeko dira, eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari igorriko zaizkio, maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 Aginduaren arabera. Horren bidez, jabari publiko hidraulikoaren ur-aprobetxamenduek erabiltzen dituzten ur bolumenen, jabari publiko hidrauliko horretarako itzulerean eta bertarako isurketen kontrol eraginkorra egiteko sistemak arautzen dira. Euskadiko Barne Arroen kasuan, datu horiek Uraren Euskal Agentziari bidaliko zaizkio, arlo honetan garatu diren xedapen arauemailetan jasotakoari jarraiki. Araudi horiek betetzeko, kontagailuak egiaztagarriak, zigitagarriak eta manipulazezinak izango dira.
4. Lurpeko urak hartzeko putzuen kasuan, gutxienez 25 mm-ko barne-diametroko tutu bat instalatzea eskatuko da (justifikatutako arrazoirik bada salbu), maila piezometrikoa irakurri

ahal izateko, gutxienez ponparen xurgatze-eremuraino iritsi beharko den zunda edo hidronibel elektriko baten bidez. Bulkadako tutuaren irteeran, emariak kontrolatu eta neurtzeko gailu bat ipini beharko da, ezartzen diren xedapenen arabera. Era berean, putzuaren buruan, ur-laginak hartzeko irteera bat instalatu beharko da.

II. sekzioa. Baimenak eta emakidak

21. artikulua. Emakidei buruzko arau orokorrak

ULTBaren 59. artikuluan eta JPHEaren 93. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, emakida berrietarako eskaerarekin batera aurkezten den proiektuan edo aurreproiektuan behar bezala justifikatuko da behar hidrikoen ebaluazioa, plan honetan eskaeren kalkuluari eta zuzkidurei buruz ezarritako balioetara egokituta. Aipatutako araudiaren 102. artikuluan adierazitakoaz gainera, honako hau zehaztuko da: eskatutako urteko eta hileko gehieneko bolumena eta berehalako gehieneko emaria, eta horretaz gainera, hala badagokio, desbideratze-erregimena, hau da, desbideratzea egun murriztuetan egiten deneko erabileraldia

22. artikulua. Hiri-hornidurarako ur-zuzkidurak

1. Hiri-hornidurarako emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko, hurrengo ataletan zehaztutako bi metodoetako bat aplikatuta kalkulatu da ur bolumena. Nolanahi ere, hiri-garapen berrietarako hornidura planifikatzeko, urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Lurzoruari eta Hiri Berritzeari buruzko Legearen Testu Bateratuko 22.3.a) artikuluari eta ULTBaren 25.4 artikuluari jarraitu behar izango zaie.

2. Metodo orokorrean, udal-sarea hornitzen duten ur-erabilera guztiak osotara hartzen dira. Horien artean daude etxe-erabilera, industria- eta merkataritza-erabilera, udal-erabilera, ureztatze pribatua eta abeltzaintza-erabilera.

Halakoetan, 11.1. eranskinean jasotako gehieneko ur-zuzkidura gordinak ezarri dira. Zehazki, zuzkidura gordintzat hartzen dira sarean hornidura altadunerako hartu behar den bolumenaren eta hornidura-eremuko biztanle erroldatu kopuruaren arteko zatidura.

3. Metodo xehakatuan, erabilera bakoitzerako gehieneko zuzkidura gordinak zehaztuko da, honako ezaugarri hauen arabera:

- a) Osasun-erabilera. Industria, kirol-instalazio eta abarretako aldageletarako hornidura. Zuzkidura hau ezarri da: 150-200 l langile edo erabiltzaile eta egun bakoitzeko.
- b) Etxe-erabilera. Etxetarako hornidura da bakarrik, hau da, udalen, denden, etab. beharrak baztertuta. Uraren gehieneko zuzkidura gordinak 11.2. eranskinean agertzen dira.

- c) Urtaroko biztanleria: turismoa eta bigarren bizilekua. Bigarren bizilekuko etxebizitza eta apartamentuetarako gehieneko zuzkidura gordinak etxe-erabilerarako adierazitakoen baliokidetzat hartzen dira. Urtaroko erabilerako txaletetako egoitzarako, gehieneko zuzkidura gordin hau erabiliko da: 350 l biztanle eta egun bakoitzeko. Erabiliko den ur bolumena kalkulatzeko, egoitza bakoitzeko 3,5 biztanleko okupazio-tasa eta behar bezala justifikatutako urteko batez besteko okupazio-denboraldi bat kontuan hartuko dira.
- d) Urtaroko biztanleriarekin lotutako bestelako egoitzetarako, 11.3. eranskinean ezarritako zuzkidurak erabiliko dira.
- e) Udal-erabilerak, baldeatzeak, iturriak eta bestelakoak. Baldeatze-beharrak kalkulatzeko, zuzkidura hau hartuko da: 1,2 l/m²/egun.
- f) Ospitale-erabilerak, geriatrikoak eta antzeko beste zerbitzu batzuk barne direla. Ur-beharrak kalkulatzeko, ohe kopurua edo, hala badagokio, plaza kopurua hartuko da oinarritzat. Zuzkidura honako hau izango da: 400 l ohe-plaza eta egun bakoitzeko.
- g) Hotel-erabilerak. Gehieneko zuzkidura gordin hau hartuko da: 5-10 m³ establezimendu eta egun bakoitzeko.
- h) Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak (abeltzaintza eta ureztatzea), eta parkeak eta lorategiak ureztatzaera zuzendutako erabilera. Erabilera horiei buruzko artikuluetan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.
- i) Hirigunearekin lotutako industria-erabilerak, hiri-sarean hartunea dutenak. Industria-erabilerari buruzko artikuluan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.
- j) Bestelako olgeta-erabilerak, etab. Erabilera horiei buruzko artikuluetan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.

23. artikulua. Abeltzaintza-erabileretarako ur-zuzkidurak

Abeltzaintza-erabileretarako ur-emakidak esleitu, berrikusi eta aldatzeko, 11.4. eranskinean jasotako zuzkidurak kontuan izango dira. Ukuiluak garbitzeko ura eskatuz gero, beharrak zehazteko, abere ukuiluratuetaarako eta ukuiluratu gabeetarako zuzkiduren arteko aldea kontuan izango da.

24. artikulua. Ureztatze ur-zuzkidurak

Emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko espedienteetan, aurkako justifikaziorik ezean, 11.5. eranskinean ezarritako zuzkidura garbiak erabiliko dira.

25. artikulua. Industria-erabileretarako ur-zuzkidurak

Hiri-sareetara konektatu gabeko industrietan edo industria-poligonoek eskatutako ur bolumenak justifikatzeko, ahal bada, benetako datuak jasoko dituen berriarazko informazioa aurkeztu

beharko da. Daturik ezean, 11.6. eranskinean (hainbat industria-sektoeri buruzkoa, produkzio elektrikoa salbuetsita) eta 11.7. eranskinean (produkzio elektrikoko zentralen zuzkiduretan oinarritzen da) agertzen diren zuzkidurak hartuko dira.

Zein industria mota ezarriko den jakina ez den industria-poligonoetarako, honako zuzkidura esleitu da: 4.000 m³/ha/urtea.

26. artikulua. *Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatze eta igerilekuak betetzeko ur-zuzkidurak*

1. Golf-zelaiak ureztatze zuzkidurarako, oro har, zuzkidura hau ezarri da: 3.600 m³/ha/urtea. Gainazal lorategidunak ureztatze, gehieneko zuzkidura hau aplikatuko da: 2.000 m³/ha/urtea. Ureztatzealdia urtean 4 hilabetekoa da, eta, igerilekuak betetzeari dagokionez, horiek urtean behin soilik betetzea (eta galerak berritzea) baimenduko da.

2. Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak uretzeari dagokionez, leheneratutako urak berrerabiltzea bultzatuko da. Horretarako, eskatzaileak ureztatu behar diren gainazalen behar hidrikoei buruzko azterlan bat aurkeztu beharko du. Azterlanean, leheneratutako urak erabiliko direla jaso beharko da, Plan Hidrologiko Nazionalaren 30. artikulua eta Planaren 64. artikulua arabera.

3. Ureztatze-sistemak landaredira egokitu beharko dira, eta uraren kontsumoa minimizatzen dituztenak erabiliko dira; adibidez, mikroureztaketa, tanta-jario bidezko ureztaketa, ordu-programagailu baten bidez erregulatutako ihintzagailu-sare bat edota, batez ere euri-egunetan, ureztatze-maiztasuna kontrolatzeko hezetan-detektatutakoak.

27. artikulua. *Akuikulturarako eta beste batzuetarako ur-zuzkidurak*

1. Arrain-haztegiak: adierazitako beharrak aztertuko dira, beharrezkoak diren baltsetarako egun bakoitzeko behar diren ur-berritzeen kopurua kontuan izanda. Aurkako justifikaziorik ezean, salmonidoen arrain-haztegiarako, ur-beharra honela zehaztuko da:

- a) Inkubatzea: 30 berritze/egun
- b) Arrainkumeak haztea: 20 berritze/egun
- c) Gizentzea: 15 berritze/egun

2. Suteen aurkako borroka: Kontuan izango da baltsa edo andela bete eta erabiltzeko, eta galerak berritzeko bolumena.

28. artikulua. *Ureztatze emakidak*

Ureztatze-aprobetxamenduak emateko proiektuetan, Administrazio Hidraulikoak, interes publikoaren arabera beharrezkotzat jotzen duenean (interes hori justifikatu egin behar da),

drainatze-sareari eta ur-lurzoru erlazioari buruzko azterlan bat eskatu ahal izango du. Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 106.2 b) artikulua arabera, kutsadura lausoa eta gatzen esportazioa mugatzeko abian jarri beharreko jardunbide egokiei buruzko analisi bat eskatuko da; bereziki, kalteberatzat hartutako eremuetarako.

29. artikulua. *Emakida-epeetarako mugak*

1. ULTBaren 59. artikuluan eta JPHEaren 97. artikuluan xedatutakoaren arabera, oro har, emakidak 20 urteko eperako esleituko dira. Beste iraupen batzuk finkatu ahal izango dira, luzeagoak edo laburragoak, behar bezala arrazoituta badaude; bereziki, obrak amortizatze beharrezko denbora kontuan izanda.
2. Plan Hidrologikoan aurreikusitako azpiegituren eraginpeko ur-masetarako, azpiegituren funtzionamenduaren araberako epemuga izango duten emakidak esleitu ahal izango dira.
3. ULTBaren 59.6 artikuluan araututako 10 urtera arteko luzapenak ez du gaindituko 75 urteko gehieneko iraupena, Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 97. artikulua arabera.

30. artikulua. *Emakidak iraungitzea*

1. JPHEaren 115.4 artikulua arabera, emakida oro ustiatu ahal izateko, dagozkion obren amaierako ikuskapen-akta onartu beharko da eta, oro har, haren baldintzak horretarako emandako epeetan osorik bete beharko dira. Baldintza-sortako funtsezko baldintzak urratzeak uraren erabilera pribatiborako eskubidea indargabetzeko espedientea berehala hastea ekarriko du, ULTBaren 53. artikulua arabera eta 66. artikuluaekin lotuta
2. JPHEaren 89.4 artikuluaekin bat etorritik, edozein arrazoi dela medio, Administrazio eskudunari itzuliko zaizkio aprobetxamendua ustiatzeko jabari publiko hidraulikoaren barruan egindako obra guztiak, hori dohainik eta inolako kargarik gabe egingo da, eta emakidaren agirian ezarritako baldintzak betetzearen kaltetan izan gabe.

Une horretan, Administrazioak posibletzat eta komenigarritzat joko balu aprobetxamenduaekin jarraitzea, emakidadunari eskatu ahal izango dio itzuli beharreko ondasunak entregatzeko, ustiatu ahal izateko baldintzetan, JPHEaren 164.3, 165.3, eta 167.3 eta 4. artikuluei jarraiki. Aldiz, aprobetxamenduaekin jarraitzea bideraezintzat hartuko balu, edo aprobetxamenduari eustea interes publikoaren aurkakoa izango balitz, adierazitako araudiko 126 bis.4 artikulua ondoietarako, jabari publiko hidraulikoan eraikitakoa eraistea eskatu ahal izango du, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 101. artikulua arabera.

31. artikulua. *Presen edo presa txikien bidezko aprobetxamendu-emakidetarako gutxieneko baldintzak*

1. ULTBaren 98. artikuluan jasotako ondorioetarako, presen edo presa txikien bidez ura hartzeko xedea duten emakida-eskaera berrietan, azterlan bat jaso beharko da. Azterlan horien bidez Administrazio Hidraulikoak, dagokion ustiapen-sistemako kudeaketa-simulazioaren bidez, baldintza jakin batzuk betez zein ur kantitate izan daitezkeen aprobetxamenduaren xede baloratzeko gai izan beharko du. Baldintza horiek honakoak dira: ingurumenari kalterik ez eragitea, Plan Hidrologikoan adierazitako emari ekologikoen erregimenak errespetatzea eta lehendik zeuden beste emakida batzuei erantzuteko eskuragarritasuna ez murriztea.

2. Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 126.bis artikuluan jasotako ondorioetarako, emakida berriaren aprobetxamendu-proiektuan, argiro bereizitako epigrafe batean, ingurumen-eragina minimizatzea zuzendutako neurriak jaso beharko dira. Neurri horien artean, hartunearen tartean emari ekologikoen erregimena errespetatzekoak eta, hala badagokio, leheneratzekoak ez ezik, honako hauek ere egongo dira:

- a) Emaria eta horren aldaketak neurtu eta erregistratzeko gailuak instalatzea, egiaztapen azkarra egin ahal izateko.
- b) Hala badagokio, azpiegiturretan pasoko gailuak instalatzea. Horiek, tartean eraginpean dagoen edo egon beharko lukeen iktiofaunaren arabera, ez diote zirkulatzea eta gora egitea galarazi behar.
- c) Arrainak turbinetan sartzea eragotziko duten gailuak instalatzea.
- d) Bidezkoa bada, azpiegiturak hustuz gero, iktiofauna erreskatatzeko aukera emango duten elementuak gehitzea.
- e) Kanalak, karga-ganberak eta bestelako azpiegiturak ixtea, pertsonentzako eta lurreko faunarentzako (bereziki, ugaztun handiak) arriskuak saihesteko moduan.
- f) 500 m-tik gorako luzera duten kanaletan pasabideak gaitu beharko dira, abereak eta lurreko fauna (bereziki, ornodun handiak) gai izan daitezen kanal horiek gurutzatzeko eta ibaiaren bazter naturalera heltzeko.
- g) Erriberako landarediaren eta eremu babestuen gaineko eragin posibleen analisia eta prebentzio-, zuzenketa- eta, bere kasuan, konpentsazio-neurriak proposatzea.
- h) Eraginpeko ibai-geomorfologiaren gaineko eragin posibleen analisia eta prebentzio-, zuzenketa- eta, bere kasuan, konpentsazio-neurriak proposatzea.

3. Minizentral hidroelektrikoetarako emakida berriei dagokienez, ez da baimengarria izango enbolodun edo hidropunta izeneko ustiapen-jarraibidea. Enbolodunek honela funtzionatzen dute: ordu gutxi batzuetan turbinatze-aldiak eta geldialdiak txandakatzen ditu, presa txikian eta/edo karga-ganberan ur-maila leheneratu arte. Horrek, ibaian, batez besteko emari natural zirkulatzailarekiko % 25etik gorako emari-aldaketak sorrarazten ditu. Dauden minizentraletan ez da baimenduko enbolodunen ustiapen-bidearen bitartez turbinatzea, hori emakidaren baldintzetan berariaz jaso baldin bada izan ezik.

4. Minizentral hidroelektrikoetarako emakida berrietan eta, oro har, lehendik daudenetan, hala dela, ekipamendu-emariak emari zirkulatzailaetara egokituko dira erregimen naturaleko urte hidrologikoan zehar. Emari horiek sailkatutako emarien kurbako Q80 eta Q100 arteko tartean egongo dira, aurretiaz emari ekologikoak deskontatu ondoren.

32. artikulua. *Emakida-emarien aldaketa eta berrikuspena*

1. Une bakoitzean desbideratutako emaria benetan erabilitako emarira egokituko da, emandakoa handiagoa izan arren.

2. JPHEaren 156.2 artikuluan jasotako kasuetan, emakidak ofizioz berrikustea eragiten duten inguruabar objektibotzat joko dira honakoak, besteak beste:

- a) Emakida esleitzeko garaian beharrak eta bilakaera ebaluatzeko oinarri gisa hartzen den erabileraren baldintzak edo ezaugarriak aldatzea.
- b) Hirugarrenentzat eraginak izatea edo ibilguaren baldintza morfologikoetan aldaketa nabarmenak egitea. Horien artean daude hezeguneak nabarmen aldatzea eta habitatak edo espezieak galtzea.

Horrela egindako berrikuspenak ez du kalte-ordainik ekarriko, ULTBaren 65. artikulua arabera.

3. Emakida-emarietako beharretara egokitu beharko dute; bada, aprobetxamendu baten benetako beharrak ebaluatzeko, eta ULTBaren 65.2 artikuluan adierazten den egiaztapenerako, JPHEaren 156.bis artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuko dira.

4. Egoera txarrekotzat deklaraturako ur-masei dagokienez, ingurumen-helburuak gauzatzea beharrezkoa denean, aprobetxamenduaren titularrari errekerimendua egin ahal izango zaio beharrezkoak diren optimizazio-neurriak, aurrezte-neurriak eta inpaktua minimizatzeko neurriak har ditzan. Proposatutako beharretako neurrien artean, besteak beste, honako aukera hauek izango dira: uraren erabileraren eraginkortasuna optimizatzeko eskuragarri dauden teknika egokienak aplikatzea, ustiapen-erregimenean aldaketak egitea eta leheneratutako urak erabiltzea. Aurreko egoeran, Administrazio Hidraulikoak emakida-emarien osotasuna edo zati bat beste jatorri bateko emarietara ordezkatzea ezarri ahal izango du.

33. artikulua. *Lurpeko uren erabilera*

1. JPHEaren 184.4 artikuluan ezarritakoarekin lotuta, lurpeko uren aprobetxamendu berriek dauden hartuneetan izan dezaketen eragina zehazteko, Administrazio Hidraulikoak eskatzaileari eskatu ahal izango dio litezkeen eraginak justifikatzeko txosten hidrogeologiko bat aurkez dezala, hartune berrietan egindako ponpaketako edo ur-emaria neurtzeko saiakuntzetatik lortutako datuetan oinarrituta.

2. Emari ekologikoen erregimenari eustearen ondorioetarako, ibaietatik edo iturburuetatik gertu dauden edota emari ekologikoen erregimenean ustez eragina izan dezaketen lurpeko uren aprobetxamenduetarako, haietan izan litezkeen eraginak justifikatzeko txosten bat eskatu ahal izango da. Txosten horrek aurreko atalean ezarritako eskakizun tekniko berberak bete beharko ditu. Emakidaren ustiapen-erregimena egokitu egin beharko da, emari ekologikoen erregimenari ez eragitea bermatzeko.

34. artikulua. *Lurpeko uren hartuneen arteko gutxieneko distantziak*

Oro har, lurpeko uren aprobetxamendu berrien eta lehendik zeudenen eta/edo iturburuaren arteko gutxieneko distantziak 19.1 artikuluan agertzen dira, haien urteko guztizko bolumenak 7.000 m³ gainditzen ez dituenetan. Gainerakoetarako, distantziak JPHEaren 184.1 b) artikuluan ezarritakoak izango dira. Emakida esleitu ondoren aurreko aprobetxamenduen gainean eraginik dagoela ikusten bada, aprobetxamendu berria itxiko da, kalte-ordain eskubiderik gabe.

35. artikulua. *Lurpeko uraren hartuneak zigilatzea*

1. Lurpeko ur-masak narriatzea saihesteko, Administrazio Hidraulikoak beharrezko neurriak hartuko ditu erauzpen-jarduera etetea dakarten lurpeko uren eskubideak iraungi, berrikusi edo aldatzeko espedienteetan beharrezko neurriak har daitezen, titularrak material geldoaz putzuak, zundaketak edo antzeko obrak zigilatzen dituela ziurtatzeko, JPHEaren 188.bis artikulua arabera.

2. Bere kokapenagatik Administrazio Hidraulikoak putzua kontrolgune bihurtu nahi badu, alde zurretik jakinarazi ondoren, titularrak zigilatu egingo du.

36. artikulua. *Kostaldeko akuiferoak gazitzearen aurkako babes eta babes-araubide orokorra*

1. JPHEaren 244. artikulua arabera, kostaldeko akuiferoetan, horiek ez gazitzea ziurtatzeko, jarraian adierazten diren irizpideei jarraituko zaie. Putzuan maila itsasoaren batez besteko mailatik behera baldin badago, beharrezko azterlanak egingo dira akuiferoa gazituko ez dela ziurtatuko duten kontrol-elementuak zehaztu eta aplikatu ahal izateko. Horrelakoetan, kontuan hartuko dira itsasoarekiko litekeen komunikazioa, itsasorainoko distantzia, sakonune-konoa eta, azkenik, putzuaren eta itsasoaren artean kontrol-zundaketa bat egiteko aukera.

2. Lurpeko gainerako ur-masetan, JPHEan oro har ezartzen diren arauak izango dira aplikatzekoak, akuiferoen babesari dagokionez.

37. artikulua. *Lurpeko ur-masak babesteko beste printzipio batzuk*

1. Emakida duen hartune baten errendimendua hobetzeko asmoz, aukera izango da, Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimenaz, JPHEaren 188. artikulua arabera, ur-hartunea konpontzeko, aldatzeko edo haren inguruko 10 m-ko erradioan beste hartune bat gauzatzeko, baldin eta horrek hirugarrenengan eraginik ez badu eta lehendik zeuden beste hartune batzuetarako baimendutakoa baino distantzia txikiagoan kokatzen ez bada. Hartune berria ezin izango da izan aurrekoa baino handiagoa eta sakonagoa. Hala badagokio, jatorrizko hartunea itxi eta zigilatu beharko da, Administrazio Hidraulikoak aurkakoa adierazten ez badu izan ezik.

2. Putzuak garbitu, garatu eta estimulatzeko lanak Administrazio Hidraulikoari jakinarazi beharko zaizkio hilabete lehenago, gutxienez.

3. Lurpeko ur-masa baten egoera kuantitatiboa txarra edo egoera kimikoa txarra dela justifikatzea nahikoa izan daiteke aprobetxamendu-eskaerak ukatzeko eta lehendik zeuden hartuneak itxi edo zigilatze errekrimendua egiteko. Tokiko kutsaduraren eraginpeko lurpeko ur-masei dagokienez, oro har eta hartuneko uren helburua edozein dela ere, dagozkion maila kutsatzaileen zigilatze sanitarioa eskatu ahal izango da, lurpeko uraren kalitatea babestearren.

38. artikulua. *Klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduetarako zundaketak*

1. Zirkuitu itxiko klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduetarako zundaketak egiteko, aldezturik Administrazio Hidraulikoari horien berri eman behar zaio, ondorengo informazioa helarazita, gutxienez: kokapena, lanei ekiteko aurreikusitako data, zundaketen sakonera eta kopurua, aurreikusitako zigilatze mota, sustatzailea, zulaketa-enpresaren eta lanen ardura duen instalatzailearen sozietate-izen osoa eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia bat. Adierazitako jakinarazpena ikusirik, Administrazio Hidraulikoak errekrimendua egin ahal izango du jabari publiko hidraulikoan obra-baimenen beharrezko izapideak egiteko. Prozedura JPHEaren 53. artikuluan jasotakoa izango da.

2. Sistema irekiko klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamenduen kasuan, espediente bakarrean izapidetuko dira emakida edo izen-ematea eta isurketaren baimena (printzipioz, akuifero berera itzultzea). Mota horretako aprobetxamenduetan, ondoko gomendioak kontuan hartuko dira:

- a) Oro har, erabilitako ura berori atera deneko akuifero berean injektatu beharko da. Ibai-akuifero sistemaren balantzean eraginik ez badago eta behar bezala justifikatutako ezohiko kasuetan bakar-bakarrik, ibilgura isurtzea baimendu ahal izango da.
- b) Berariazko baimenaz izan ezik, urak jauzi termikoen bidez injektatuko dira. Horiek gehienez 6 °C-koak izango dira eta, ahal dela, urte osoan zehar egon beharko dute jardunean (berokuntza eta hoztea). Hortik gorako jauzi termikoek behar bezala justifikatuta egon beharko dute.

3. Ingurunean kutsatzaileak inola ere sar ez daitezten diseinatu eta burutu beharko dira zulaketak aipatutako aprobetxamenduetarako, bai sistema irekian, bai itxian.

4. Aurreko atalean adierazitako zulaketetarako lanek kontrol eta jarraipen hidrogeologikoa izan beharko dute, zeharkatutako akuiferoen mailek duten garrantzia eta izaera zehazteko. Lan horiek teknikari eskudun baten zuzendaritzapean egongo dira. Hura, gainera, zigilatze-sistema egokiak diseinatu eta ezartzeaz arduratuko da. Arrazoi justifikatu baten ondorioz jarraipen hidrogeologikorik egiten ez bada, zulaketa egiten duen enpresak eta lanen zuzendaritza teknikoak trukagailu bertikalen eraztuna osorik zigilatzea ziurtatuko dute. Zigilatze-lana injekzio bidez egingo da, eraztun-eremu osoan zehar. Injekziorako, iragazkortasun txikiko

produktu prestatu geldoak erabiliko dira: bentonita-zementuzko kare-esnea, bentonitazko pelletak eta antzekoak.

5. Hirugarrenen beste aprobetxamendu batzuen gaineko eraginak eta akuiferoaren aldaketak saihesteko (besteak beste, akuiferoaren balantzearen, eta lurpeko fluxuaren ezaugarri fisiko-kimikoen eta hidrodinamikaren gainekoak), Administrazio Hidraulikoak, ULTBaren 98. artikulua arabera, ingurunearen gaineko inpaktua ebaluatuko duen berriarazko azterlan bat aurkeztea eskatu ahal izango du.

VII. kapitulua. Jabari publiko hidraulikoa, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoa eta uren kalitatea babestea

I. sekzioa. Arau orokorrak

39. artikulua. Uraldien emari maximoak eta uholde-arriskuko eremuak zehaztea

1. Ondorengo artikuluetan zehazten diren uholde-arriskuko eremuak erabili eta bertan jarduteko baimenetan, eskatzaileak eremuaren uholde-arriskua kontuan hartu beharko du uneko egoeran. Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako berriarazko azterlanik ezean, uholdeak gertatzeko probabilitatea dagoen egoerarako erreferentziarako kartografia Uholde-arriskuko Eremuen Kartografia Sistema Nazionalan jasotakoa izango da, Kartografia Erregistro Nagusian inskribatutakoa, Sistema Kartografiko Nazionala arautzen duen azaroaren 23ko 1545/2007 Errege Dekretuaren arabera.

2. Uholde-arriskuaren kartografia finkatzeko, berori Administrazio Hidraulikoak zehazten ez duenez, "Azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak" erabili ahal izango dira (14. eranskinean agertzen dira). Azterketa horiek egiteko, kontuan hartutako uraldi-emariak zenbatetsiko dira. Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako bestelakorik ezean, 14. eranskinean jasotakoak hartuko dira gehieneko uraldi-emarizat.

40. artikulua. Erabilera-mugak uholde-arriskuko zaintza-eremuan

1. ULTBaren 11.3 artikulua arabera, 2015-2021 aldirako Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak ezartzen duenaren kaltetan izan gabe, eta uholde-arriskua duten lurren lurzoruko oinarritzko egoera edozein dela ere, Lurzoruaren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bateratuko 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondorengo ataletan, uholde-arriskuko zaintza-eremurako mugak ezartzen dira.

2. JPHEaren 9.2 artikulua arabera, lehentasunezko fluxu-eremuan, bertan onartutako erabilera eta jarduerak soilik onartu ahal izango ditu Administrazio Hidraulikoak, baldin eta uraldien aurrean kalteberak ez badira eta eremu horren hustubide-ahalmenaren murrizketa

garrantzitsurik ekartzen ez badute. Horrenbestez, oro har, eremu horretan ezin izango dira onartu:

- a) Lurpeko garajeak eta sotoak.
- b) Kanpalekuak, inolaz ere.
- c) Eraikuntza berriak, horien erabilera edozein dela ere; ondoko hauek barne hartuta: ikastetxeak edo osasun-etxeak, zaharren edo minusbaliotasunak dituzten pertsonen egoitzak, suhiltzaile-etxeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, erregia hornitzeko guneak, landetxeak eta animalien haztegiak.
- d) Dagoeneko dauden eraikinak konpontzeko obrak, beren oinplanoaren okupazioa edo beren bolumena aldatzea eragiten dutenak edo beren erabilera aldatzea dakartenak eta uholdeen aurrean kalteberatasun handiagoa izan dezatela eragiten badute.
- e) Iragazkorrak ez diren itxiturak eta hesiak; hala nola, edozein motatako fabrikako horma-itxierak.
- f) Berotegiak.
- g) Lurraren egungo sestra aldatzen duten eta ura husteko gaitasuna nabarmenki murriztea eragiten duten bete-lanak.
- h) Orotariko material edo hondakinen metaketa.
- i) Ibilgailuak gainazalean aparkatzeko instalazioak, baita sestraren gaineko garajeak ere eraikinen beheko solairuetan.
- j) Ibilguarekiko paralelismo-joeraz diseinatutako azpiegitura linealak; saneamendukoak, hornidurakoak eta lurpeko bestelako kanalizazioak salbuetsita. Horiek, nolahi ere, soluzio bideragarriak ez duten toki bakan batzuk kenduta, jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremutik at kokatu beharko dira.

3. Salbuespen gisa, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoa onartu zuen ekainaren 9ko 400/2013 Errege Dekretua indarrean sartu zenerako (2013ko ekainaren 9an hartu zuen indarra) lurzoru urbanizatu egoeran zegoen lurzoruan, Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateratuko 12. artikuluan xedatutakoaren arabera (ordu indarrean zegoen 2/2008 Errege Dekretu Legegileak, ekainaren 20koak, onartutakoa), lehentasunezko fluxu-eremuan eraikuntzak eta birgaitzeak egitea baimendu ahal izango da, alde batean edo bietan finkatutako eraikuntza-mehelinak dituzten orubeetan eta oinarritzko urbanizatu egoerako lurzoru horren barruan txertatutako orube isolatuetan.

Aparteko bi kasu horietako edozeinetan, eraikuntzek edo bertan ezartzen diren erabilerek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ingurunearen uholde-arriskua nabarmen ez areagotzea, eta hiriguneko uholdeen aurkako litezkeen babes-jardunak ez baldintzatzea.
- b) Bizileku-erabilerak 500 urteko itzulaldiko uholde-kotaren gainetik egotea.
- c) Lehendik jarduera kalteberak dituzten eraikinak birgaitzen direnean, eremu kalteberen azalera edo bolumena areagotzea eragiten ez duten esku-hartzeak ahalbidetuko dira, baldin eta dauden jarduerak uholdeen harira duten kalteberatasuna minimizatzeo neurriak hartzen badira.
- d) Kasuan kasuko herrirako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen, hala badagokio, ezartzen diren prebentzio-irizpide eta -neurriekin bateragarri izatea.

- e) Herrestan eramatearen, diluzioaren nahiz iragaztearen ondorioz giza osasunarentzat eta ingurumenerako (lurra, ura, landaredia edo fauna) kaltegarri izan daitezkeen produktuak gorde, eraldatu, manipulatu, sortu edo isurtzen dituzten instalazioak ez izatea; ezta ikastetxeak, osasun-etxeak, zaharren edo minusbaliotasunak dituzten pertsonen egoitzak, suhiltzaile-etxeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, erregaia hornitzeko guneak, araztegiak, instalazio elektrikoak, landetxeak eta animalien haztegiak ere.
- f) Baimenaren eskatzaileak berariaz adieraztea ezagutzen eta bere gain hartzen dituela eraikuntza berrian dagoen arriskua eta kasurako aplikatzekoak diren babes zibileko neurriak, hura babesteko bidezkotzat hartzen dituen neurri osagarriak gorabehera.

Lehentasunezko fluxu-eremuan eraikitzeke edo birgaitzeko ematen diren baimenak, baldintza horien arabera, Jabetza Erregistroari helaraziko zaizkio, eskatzailearen kontura, eskaeraren xede den finkaren gaineko jabariarekiko baldintza gisa.

4. Uholde-arriskupeko eremurako baimenatarako, lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo, 2013ko ekainaren 9an lurzoru urbanizatu egoeran zegoen lurzoruan (orduan indarrean zegoen Lurzoruari buruzko Legearen testu bateratuko 12 artikuluan xedatutakoaren arabera), xehetasunezko azterlan hidrauliko bat eskatu ahal izango da, jarduera bideragarri egiteko beharrezko neurri zuzentzaileak zehaztu eta justifikatuko dituen. Neurri horiek, betiere, ingurumenaren aldetik onargarriak izango dira, eta ez dute areagotuko ingurunean lehendik dagoen uholde-arriskua. Oro har, eremu horretan ezin izango dira onartu:

- a) Bizileku-erabilerak, 500 urteko itzulaldiko uholde-kotaren eraginpean badaude.
- b) Garajeak eta sotoak, barrutia 500 urteko itzulaldiko uraldirako iragazgaitza dela eta uholde-kota hori baino gorago haizebideak eta ebaluazio-bideak daudela bermatzen bada izan ezik.
- c) Kanpalekuak, inolaz ere.
- d) Uholde larrien ondoriozko larrialdi-egoeretan irisgarritasuna ziurtatuta izan behar duten funtsezko azpiegitura publikoak; hala nola, ikastetxeak edo osasun-etxeak, zaharren edo minusbaliatutasunak dituzten pertsonen egoitzak, suhiltzaile-etxeak eta babes zibileko zerbitzuen instalazioak.
- e) Lurraren egungo sestra aldatzen duten eta ura husteko gaitasuna nabarmenki murriztea eragiten duten bete-lanak.
- f) Orotariko material edo hondakinen metaketa.

5. Landa-lurzoruko oinarritzko egoeran dauden lurretan, Lurzoreuren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bateratuko 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, kalteberak diren erabilera guztiak jarri beharko dira 500 urteko itzulaldiko uraldien irismenetik kanpo dagoen kota batera. Gainerako lurzoruetan ere ezin izango dira baimendu, 100 urteko itzulaldiko uraldien irismen-mugaraino, 2. atalean jasotako jarduerak, e), f) eta j) epigrafeetan aipatutakoak izan ezik, baldin eta itxiturak eta hesiak iragazkorrak badira.

41. artikulua. Erabilera-mugak uholde-arriskupeko gainerako eremuetan

1. ULTBaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, 40. artikuluko muga berak ezartzen dira jabari publiko hidraulikoaren zaintza-eremutik kanpoko eremu urperagarriako. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahiko ULTBaren 6.1.b) artikuluan zehaztutako zaintza-eremua hedatuko denik; izan ere, hala badagokio, JPHEaren 9.3 artikuluko bigarren paragrafoak ezartzen duen prozedura betez gauzatu beharko da.

2. Jabari publiko hidraulikoaren zaintza-eremutik kanpoko eremu urperagarriari eta itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuari dagozkien erabilerak eta jarduerak baimentzeko eskumena duten lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloko administrazioen betebeharra da 1. atalean aipatzen diren mugak bete daitezela ziurtatzea.

42. artikulua. *Uholdeen aurreko babes-neurriak*

1. Lurzoruaren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bateratuko 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarrizko urbanizazio-egoerako lurzoruan pertsonak eta ondasunak babesteko egiturazko babes-ekintzak gauzatu behar direnean, Uholde Arriskuaren Kudeaketa Planak herri horretarako ezarritakoa izango da babes-maila. Alderdi hori aurreikusita ez badago, eta oro har, hirigunea gutxienez 100 urteko itzulaldiko uraldi-eremutik kanpo uzteko moduko ubideratzea diseinatuko da.

2. Landa-lurzoruko oinarrizko egoeran dauden lurretan, Lurzoruaren eta Hiri Berritzearen Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagozkion jardunak, uholdeen aurrean pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezko babes-jardunak barne direla, 100 urteko itzulaldiko uraldi-arriskupeko eremutik aurrera kokatu beharko dira, jardunen aurretiazko uholde-arriskuko egoeran; baldin eta hartu beharreko neurriek 500 urteko itzulaldiko uraldietako ur-mailen aurrean babesa ziurtatzen badute.

Salbuespen gisa, edo Administrazio Hidraulikoak diseinatutako edo baliozkotzat jotako konponbide teknikoagatik beharrezkoa bada 2013ko ekainaren 9an lurzoru urbanizatu egoeran zegoen lurzoria babesteko, 100 urteko itzulaldiko uraldien eremuan jarduera horiek gauzatzea baimendu ahal izango da, baldin eta hartuko diren neurriek uraldi-kasuetarako babesa bermatzen badute eta, egokia bada, Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko oniritzia badute. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren esparruko instrumentuek landa-lurzoruko oinarrizko egoeran dauden lurzoru horiek lurzoru urbanizatu izatera igaroko direla aurreikusten dutenik.

3. Administrazio Hidraulikoak, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak ezartzen duenaren kaltetan izan gabe, Plan Hidrologiko Nazionalaren 28. artikuluan eta ULTBaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, lankidetzeta-protokolo orokorrak sustatuko ditu autonomia- eta toki-administrazioekin, uholde-arriskua duen eremuan erabilerak antolatu ahal izateko neurri-programak ezartzearren. Horiek, ibai bateko edo ibai tarte bateko uholdeen aurrean pertsonak eta ondasunak babesten ez ezik, ondoko helburu hauek gauzatzen ere lagundu behar dute: jabari publiko hidraulikoaren egoerari eustea, ur-ekosistemen narriadurari aurrea hartzea (horiek hobetzen

lagunduz) eta uholdeetan korronteen erregimena babestea, ibilguen aldameneko lurren funtzioa bultzatuta, emarien mailakatzean eta garraiatutako karga solidoan.

4. Uholde-arriskua duen landa-lurzoruko egoeratik lurzoru urbanizatuko egoerara igarotzea aurreikusten den kasuetan, protokolo horiek erabiliko dira administrazioen arteko koordinazio-tresna konponbide egokia lortzeko eta lurzoru urbanizaturako uholde-kasurako egiturazko babes-neurriak zehazteko; hori horrela izango da, ahal dela, hiri-plangintza orokor baten lehen lanketa aurkezteko aurrerapen-fasean edo indarrean dagoen plan bat guztiz edo zati batean berrikustea proiektatzen denean, ULTBaren 25.4 artikuluko txostenaren kaltetan izan gabe.

5. Uholdeen arriskuari dagokionez, kontuan hartuko da, aipatutako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaz gain, 2011ko uztailaren 29ko Ministro Kontseiluaren Erabakia, uholde-arriskuaren inguruko Babes Zibilerako Estatu Plana onartzen duena, eta Ministro Kontseiluaren 1994ko abenduaren 9ko Erabakia, uholde-arriskuaren inguruko babes zibilerako plangintzari buruzko Oinarrizko Jarraibidea onartzen duena (bertan, autonomia-erkidegoen planen oinarrizko edukia eta funtzioak ezartzen dira). Horretarako, aplikatzekoak izango dira, dagozkien lurralde-eremuetan, uholde-arriskuaren aurreko babes zibileko planak: Euskal Autonomia Erkidegokoa (2014ko abenduaren 3ko Babes Zibileraren Batzorde Nazionalak homologatutakoa), Nafarroakoa (2002ko otsailaren 21ean homologatutakoa), eta Gaztela eta Leongoa (2010eko martxoaren 24an homologatutakoa).

43. artikulua. *Zubien eta estalduren diseinuari eta ibilguen trazadura babestu eta aldatzeko egitura-neurriei buruzko berariazko arauak*

1. Hiri-eremuan zubi berri bat eraikitzeko, oro har, lehentasunezko fluxu-eremua libre utzi behar da. 30 m-ko argiraino, bao bakarra izango du. Argi handiagoetarako, 25 m-tik gorako argiko bao bat izango du, eta 6 m-tiko gorako argiko beste bat edo beste bi. Tarte zuzenetan, 25 m-tik gorako baoa erdian kokatuko da, eta, tarte kurbatuetan, kurbaren kanpoaldean. Uren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 500 urteko itzulaldiko uraldirako, edo, gutxienez, isurbidearen galiboaren eraginetarako gunerik aurkakoenean, haren zabaleraren % 2,5ekoa.

Zubi bat ordezkatzeko eskatzen duten hobekuntza hidraulikoko ekintzetan inguruko urbanizazio-baldintzen ondorioz ezinezkoa bada babesei buruz aipatu diren baldintzak betetzea, jarduera horiek dagoen uholde-arriskua nabarmenki murrizten dutela bermatu behar da.

2. Landa-eremutik igarotzen diren komunikazio-azpiegituretarako, argiek eta baoen banaketak 1. ataleko lehenengo paragrafoan zehaztutakoa beteko dute, eta uraren azalera libretik taularen azpialderainoko babesa 12. eranskinetako taulan agertzen diren datuen artean interpolatzearen emaitzaren arabera izango da 500 urteko itzulaldiko uraldirako.

3. Landa-eremuan, auzo-bideetako zubiek hustubide-ahalmen handiagoa izango dute ibaian gora eta ibaian beheara ondo-ondoan dauden tartetek baino. Nolanahi ere, horrek ez du eragingo ibilguren zabalera nabarmenki murriztea. 30 m-ko argiraino, ibilgua bao bakarraz

gaindituko da. Argi handiagoetarako, 25 m-ko bao bat eta 6 m-tik gorako argietako beste bat edo beste bi egongo dira. Taularen behealdea aldameneko lurren gainetik 25 cm-ra geratuko da, sarbidea ez bezala. Izan ere, sarbidea zubiaren inguruetaraino, lurren mailan ezarriko da, bidea zubia baino lehen urpetu dadin.

4. Uraldiek hiri-eremu bati eragiten diotenean, eremu horretatik ibaian beherako edozein zubi baimentzeko nahitaez egin beharko da eremuaren gaineko eraginak jasoko dituen azterlan orokor bat.

5. Irizpide orokor gisa, ez da baimenduko 0,5 km²-tik gorako arro drainatzailea duten ibai tarteetan estaldurarik egitea. Zifra horretatik beherako arro isurleko azalera duten ibilguetan, era berean, saihestu egingo dira bideratze estaliak solidoen eta flotatzaileen arrasteak aurreikusten direnean, horiek nabarmenki saihestezinak badira izan ezik. Halakoetan, saihestezintasun hori behar bezala justifikatu beharko da.

Salbuespen gisa, km² 1erainoko arroetan ibilguak estaltzea baimendu ahal izango da azpiegitura estrategikoen kasuetan eta oso urbanizatuta dauden eremuetako arro-buruen kasu berezietan; ingurumenaren aldetik hain erasotzailea ez den eta arrisku txikiagoa izango duen beste aukera bideragarri ez dagoela aurretiaz justifikatuta. Halakoetan, sekzioa bisitagarria izango da, eta gutxienez 2 m-ko altuera eta 2 m-ko zabalera izango du.

6. Oro har, debekatuta dago km² 1etik gorako arro isurlea duten ibilguen trazadura aldatzea, salbu eta beharrezkoa bada hiri-eremuetako uholde-arriskua murrizteko, uholde-arriskua kudeatzeko bidezko planean jasotzen bada edo Administrazio Hidraulikoak onartzen badu. Era berean, trazadura aldatzea baimenduko da, ibilguaren naturaltasuna areagotzeko bada, Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimenaz. km² 1etik beherako arroa duten ur-ibilguak aldatzeko, jarduna justifikatzen duten alternatiben inguruko azterlanak egin beharko dira, eta prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurri egokiak hartu beharko dira.

7. Salbuespen gisa, 2 km²-rainoko arro isurleko ur-ibilguak aldatzea baimendu ahal izango da, azpiegitura estrategikoetarako eta udalaz gaindiko interesa duten jardueretarako; baldin eta, Administrazio Hidraulikoaren aldeko txostena izan duten lurralde-antolamenduko tresnetan halakotzat jasota badaude. Aurreko kasuetan, jarduera justifikatuko duen, eta esku-hartzeak ingurumenean, esparru hidraulikoan eta hirigintza-arloan dituen eraginak ebaluatuko dituen alternatiben azterlan bat egitea eskatu ahal izango da. Alternatiben azterlan horretan, kasuan kasu ematen den baimenean jaso beharreko nahitaezko prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak proposatu beharko dira.

44. artikulua. *Urbanizatu beharreko eremu berriak eta komunikabideak drainatzea*

1. Baliatutako arroaren edo arroen drainatzean aldaketak ekar ditzaketen urbanizazio, industria-poligono eta hirigintza-garapen berrietan, drainatze-sistema iraunkorrak gehitu beharko dira (zoladura iragazkorak, ekaitzetarako andelak edo gailuak, etab.), eta sistema horiek isurketak areagotuz gero isurketa horiek konpentsatu ahal izatea (isurketa baino

lehenagoko balioarekin alderatuta) edo hutsalak izatea ziurtatzeko modukoak izan beharko dute.

2. Arroaren ezaugarriak direla-eta beharrezkotzat jotzen bada, gainazal bat iragazgaitzak/urbanizatzak isurketa batean eragin lezakeen areagotzea ez dela garrantzizkoa justifikatuko duen azterlan hidrologiko-hidraulikoa egitea eskatu ahal izango da. Azterlan hori eskatu ahal izango da, betiere, jarduera berriaren azalerak arroaren guztizko azaleraren % 25 hartzen duenean, gutxienez.

3. Oro har, komunikabideen zeharkako drainatzeetan, ibar batean ezin izango da berezko arroaren azaleraren % 10etik gorako isurketa-eremurik gehitu. Baldintza hori betetzen ez bada, ibar hartzailearen ibilguak duen hustubide-ahalmena areagotu beharko da; zehazki, 500 urteko itzulaldiko uraldietan hasierako egoerarekiko gehiegizko goratzerik ez gertatzea bermatu beharko da.

II. sekzioa. Itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko arauak

45. artikulua. *Babes-zortasuneko eremuko jardueren inguruko xehetasun orokorra*

1. Kostaldeein buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 23. artikuluan aipatzen diren itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremurako baimenak emateko, kontuan izango dira, Plan honetan ezarritakoaz gainera, aipatutako Legea eta Kostaldeen Erregelamendua, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuak onartutakoa, eta berori garatzeko araudia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

2. Itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoaren narriadura eta estuarioetako eta kostaldeko ekosistemena prebenitzeko, irizpide orokor gisa, babes-zortasunean ezin izango dira eraiki urbanizazioaren elementuak; hala nola, espaloiak, bideak, sotoak, aparkalekuak edo garaieak. Era berean, babes-zortasunaren barruan ezin izango da jarri lurpeko edo aireko azpiegitura linealik (hornidura edo saneamendua, telekomunikazioak, elektrizitatea, gasa, etab.), eta erabilgarritasun publikoko arrazoi justifikatuen ondorioz ezinbestean bertatik igaro behar badute, ahal dela, dauden bideen azpitik kokatu beharko dira.

3. Itsasertza babesteko, eta kirol-instalazioen itxierak pertsonentzat ikuspegiak eragotzi ez ditzaten, lur naturalaren gaintik metro bateko altuerara mugatuko dira. Oro har, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoarekin erlazionatutako estuarioetako eta itsasertzeko ekosistemen narriadura saihesteko, ezin izango da 3 metrotik gorako lur-erazketarik eta lubetarik egin.

46. artikulua. *Babes-zortasuneko eremuan pasealekuak eta bideak egitearen inguruko xehetasunak*

1. Babes-zortasunean gauzatu nahi diren oinezkoen pasealekuek, egun urbanizatu gabe dauden eremuetan, irisgarritasunaren baldintzatzaileen ondorioz ezarritako gutxieneko zabalera izango dute: ahal dela, gehienez 2 metro, 3 metroraino zabaltzeko aukerarekin erabilera mistoa dutenean (oinezkoak eta bizikletak). Horiek gauzatzeko, tratamendu bigunak erabiliko dira, hiri-altzariak instalatu gabe, eta, ahal den neurrian, ez dute argiztapenik izango. Dena den, argiztapena instalatzea beharrezkoa bada, baliza motakoa izango da, ahal dela.

2. Itsasadarren eta estuarioen balio naturalak babesteko, eta baldin eta irisgarritasunarekin erlazionatutako arrazoen ondorioz posible bada, babes-zortasunaren eremuko lehenengo 6 metroetan baimenak emateko eskumena duen agintaritzak bide eta bidezidor berriak eraikitzea ekiditen saiaturiko da inguru horietan oinezkoek erabiltzeko modukoak diren eta zaintza- eta salbamendu-ibilgailuak igarotzeko balio dute bide publikoak badaude.

47. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak

1. Estatuko Administrazioak, Kostaldeein buruzko Legea garatzen duen Araudiaren 222. artikulua aplikatuz, hiri- eta lurralde-plangintzari buruzko txostena egingo du, berez dagozkion eskumenetan oinarrituta, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoa kudeatu eta babestearekin lotutako alderdiei dagokienez. Bestalde, Uraren Euskal Agentziak, ekainaren 23ko Urei buruzko 1/2006 Legearen 7.k) artikulua (itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikora zabaldua) eta l) atala aplikatuz, txosten bat egingo du hiri- eta lurralde-plangintzari buruzko dokumentuak izapidetzean.

2. Aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera egindako txostenak Estatuko Administrazioak eta Uraren Euskal Agentziak dituzten eskumenen kaltetan izan gabe izango dira (hurrenez hurren, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoarekin lotutako emakidak esleitzeko, eta jabari publiko horren babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko eta lehorretik itsasorako isurketetarako); administrazio bakoitzak, zuzenbidera egokituta, ebazteko bidezko hartzen dituen baldintzetan.

III. sekzioa. Eremu Babestuak

48. artikulua. Hornidurarako ur-hartuneak

1. Giza kontsumora zuzendutako hartune guztiek, Babestutako Eremuen Erregistroko masetan kokatuta badaude, dagokien babes-perimetroa izango dute. Bertan, babestu beharreko eremuak eta kontrol-neurriak zehaztuko dira, eta lurzorua erabilerak eta horietan garatu beharreko jarduerak arautuko dira, hartuneetako uraren kantitatearen eta kalitatearen gaineko eraginak saihesteko.

Administrazio Hidraulikoak hartuneak duen arriskua eta hornitutako biztanleria kontuan hartuko ditu hartuneen lehentasuna zehazteko.

Babes-perimetroa zedarritzean, oro har, irizpide hidrologikoak edo hidrogeologikoak erabiliko dira.

Hornidurarako urtegien kasuan, babes-perimetroak berariaz mugatzean, kontuan hartu behar da lurgaineko eta lurpeko jariatze-arroa, baita urtegiara isuraldatutako ibaiadar posibleen arroa ere.

2. Hiri-hornidurarako ur-hartuneetarako emakida-eskaeretan, babes-perimetroarako proposamena exijitu ahal izango zaio eskatzaileari eta azterlan tekniko egokiarekin egongo da justifikatuta, gutxienez, JPHEaren 173.8 artikuluan aurreikusitako alderdiak barnean hartuko dituen.

3. Babes-perimetroen barruan, lurgaineko ur-masetarako, hartutako emariak eta uren kalitatea babestea helburu duten zaintza-eremuetarako JPHEan ezarritako arauak aplikatuko dira; eta, lurpeko ur-masetarako, berriz, aipatutako araudiaren 173. artikuluan ezarritakoak aplikatuko dira. Era berean, bereziki kontrolatu eta zainduko dira uren kalitatea giza kontsumorako uren kalitateari buruzko osasun-irizpideak ezartzen dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren azpitik jaitea ekar lezaketen erabilera eta jardura guztiak (aprobetxamendu berriak, lur-mugimenduak, obrak, etab.).

4. Giza kontsumorako ur-hartuneetarako babes-perimetroen barruko edozein baimen edo emakida izapidetzean, hornidura horren emakidadunaren txostena eskatuko da.

5. 8. artikuluan a) eta b) atalean zehaztutako eremu babestuetarako 1. atalean aipatzen den babes-perimetroa mugatzen ez bada, babeste-eremu bat ezartzen da, eta bertan, Administrazio Hidraulikoak jarduerak hartune babestuaren gainean (eta bereziki bere uren kalitatean eta emarian) dituen eraginaren ebaluazio bat aurkeztea exijitu ahal izango du.

Babeste-eremua lurpeko hartuneen inguruko erradio finkoko azalera zirkular bat izango da; eta, lurgaineko hartuneen kasuan, arro isurlearen gaineko erradio finkoko arku bat izango da. Erradio horiek honakoak izango dira:

- a) 500 m, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.
- b) 200 m, 2.000 eta 15.000 biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.
- c) 100 m, 50 eta 2.000 biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.
- d) Administrazio Hidraulikoak zehaztuko duen longitude bat, 10 eta 50 biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.

Ibaien hartuneen kasuan, eremu babestua hartuneak edo hartune-multzoak, hartunearen ur-masak eta babeste-eremuak osatzen dute.

Laku edo urtegiarako ur-hartuneen kasuan, eremu babestua aintzirak edo urtegiak berak eta babeste-eremuari dagokion lur-zerrendak osatzen dute.

Lurpeko aprobetxamenduen kasuan, eremu babestua hartuneak eta bere babeste-eremuak osatzen dute. Hurbileko hartune bat baino gehiago badaude, eremu babestu berean multzokatu ahal izango dira, eta eremu horrek lurpeko masa osoa barne har dezake.

Administrazio Hidraulikoak aurreko paragrafoekin bat ez datorren babeste-eremu bat zehaztu ahalko du, erabakia arrazoituta.

6. 7.1 eta 7.2 eranskinetan zehaztu diren hornidurarako ur-hartuneen eremu babestuetan, emakidak eta baimenak izapidetzean, Administrazio Hidraulikoak eskatzaileari exijitu ahalko dio jarduerak hartune babestuan duen eraginaren ebaluazio bat aurkez dezala, zehazki, uraren kalitatean eta emarian duen eraginaren ingurukoa. Horrela, otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretua betetzea bermatuko da, eta kasuan kasuko emakidadun ukituari horren berri emango zaio.

49. artikulua. *Habitaten edo espezieen babes-eremu deklaraturako eremuak*

7.8. eranskinean zehaztu diren habitat edo espezie babestuen eremuetan kokaturako emakidak eta baimenak izapidetzean, ez badira ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak egin behar, erakunde eskudunari eskatu beharko zaio tokiaren gaineko eragin posiblearen inguruko irizpena eman dezala eta eskaturako jardueraren ondorioak behar bezala ebaluatzea beharrezkoa den argi dezala, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen inguruko abenduaren 13ko 45.4. artikuluan eta ingurumenaren arloko ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2.b) artikuluan xedaturakoari jarraiki.

50. artikulua. *Ur mineralak eta termalak babesteko perimetroak*

Indarrean dagoen berriarazko legeriaren arabera onartutako ur mineralen eta termalen babes-perimetroen esparruko ur-aprobetxamenduetarako emakidei dagokienez, horiek antolatzeako dokumentuak bete beharko dira, eskumena duen agintaritzaren txostena eskatuta.

51. artikulua. *Ibai-erreserba naturalak*

1. Plangintzaren esparru honetako komunitate arteko aldean deklaraturako ibai-erreserba naturalen zerrenda bat ageri da 7.10.a) eranskinean (2015eko azaroaren 20an deklaratu ziren, Ministroen Kontseiluaren Akordioaren bidez, akordio horren arabera komunitate arteko demarkazio hidrografikoetan ibai-erreserba natural jakin batzuk deklaratu baitziren). Gainera, 7.10.b) eranskinean, beste zerrenda bat dago, demarkazioaren komunitate barneko zatian kokatuta dauden erreserbak biltzen dituena, Eusko Jaurlaritzaren eskumen direnak. Azkenik, 7.10.c) eranskina dago, eta bertan ageri da etorkizuneko deklarazioetan ibai-erreserba naturaltzat jo litezkeen ibai-tarteen zerrenda.

2. Zehaztutako erreserbak horietako bakoitzaren ibai-tarteei dagozkien jabari publiko hidraulikoko ondasunetara mugatzen dira. Tarte horietan, ez da baimenduko bertako baldintza naturaletan eragina izan lezakeen jarduerarik.

52. artikulua. *Hezeguneak*

Hezeguneetan edo horien babes-eremuetan eragina izan lezaketan emakidak edo baimenak ematea ingurumenaren gaineko ondorio posibleen analisiaren emaitzek baldintzatuko dute. Hala, xehetasunez aztertu beharko dira jabari publiko hidraulikoaren eta itsasoaren eta

lehorraren arteko jabari publikoaren babesean eragina duten alderdiak, baita horri lotutako ingurune biotikoaren edo abiotikoaren gainean eta erregimen naturalarekiko erasoen prebentzioan eragina duten alderdiak ere.

53. artikulua. *Babes bereziko eremuak*

1. Babes bereziko eremuetan, oro har, dagozkien antolamendu-arloko dokumentuak edo arauak bete beharko dira, eta ingurune fisiko naturala, fauna edo flora alda dezaketen esku-hartzeak saihestuko dira jabari publiko hidraulikoan, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoan eta horien babes-eremuetan.
2. Babes bereziko eremuetan edo horien babes-eremuetan eragina izan lezaketen emakidak edo baimenak ematea ingurumenaren gaineko ondorio posibleen analisiaren emaitzek baldintzatuko dute.
3. Ingurumen-intereseko tartetean, uren kalitate naturalari eusteko beharrezko kontrol- eta jarraipen-neurriak hartuko dira, bai ibai-ibilguei dagokienez, baita horiei lotutako lurpeko sistemiei dagokienez ere. Oro har, tartearen berezko fauna eta flora naturalak alda litzaketen esku-hartze guztiak saihestuko dira ibilguan.
4. Interes naturaleko tartetean, bertako fauna eta flora naturalak ez ezik, ingurune fisiko naturala ere alda lezaketen jarduerak mugatu egingo dira.

IV. sekzioa. Isurketak

54. artikulua. *Jabari publiko hidraulikoan isurtzeko baimenak*

1. Eskatzaileak isurtzeko baimen-eskaeran justifikatu behar du isuriaren substantzia kutsatzaileen kontzentrazioak isuria eragiten duen jardueran erabilgarri dauden teknikarik onenei (ETO) lotutakoak direla. Espedientea izapidetu ahala zuzenketa egokiak egin ondoren, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenean ezarriko ditu ETOei dagozkien isurien mugako balioak (IMB), eta gainera, inguru hartzaileko ingurumen-helburuak eta ingurumenaren kalitate-arauak (IKA) betetzeko egokiak izan behar dute.
2. Eskatutako isurtzearen ibaian beherako inguru hartzaileko 8. eranskinean jasotako erreferentziako balioen eta IKAen betearazpenaren aurreikuspena egiteko, ETOei lotutako substantzien kontzentrazioak eta urteko kutsadura-kargarik handieneko astean isuritako eguneko batez besteko bolumena erabiliko dira. Inguru hartzaileari dagokionez, ondorengo kasu hauek bereizten dira:
 - a) Ibaira isurtzea: ur txikien aldiko gutxieneko emari ekologikoa erabiliko da, normaltasun hidrologikoko baldintzetakoa. Aurrekoa betearazteko, 817/2015 Errege Dekretuak ezarritako balioak eta 8. eranskinean adierazitako erreferentziako balioak erabiliko dira. Era berean, ur-masa ez narriatzeko printzipioa kontuan hartuko da bere egoera

“oso ona” bada, eta aintzat hartuko da, era berean, isuriak isuririk ibaian behera kokatutako eremu babestuetan baldintza osagarrien betearazpenean izan lezakeen eragina.

- b) Laku edo urtegi batera isurtzea: eskatzaileari exijituko zaio isuria jasoko duen ur-masan ingurumen-helburuak betetzen direla justifikatzen duen azterlan bat aurkezteko, eta zehazki, 817/2015 Errege Dekretuan substantzia jakin batzuetarako ezarritako balioak eta 8. eranskinean ezarritako erreferentziatzko balioak betetzen direla, baita lakurako edo urtegirako ezarritako baldintza osagarriak betetzen direla ere, eremu babestu izendatu badute.
- c) Lurpeko uretara isurtzea: isurietan substantzia arriskutsuen kontzentrazioek IKAk eta 9. eranskinean ezarri diren mugako balioak baino baxuagoak izan behar dute, bai lurpeko uretako zuzeneko isurietarako, bai lurzoruaren bitartez iragaziz egiten diren zeharkako isurietarako. Era berean, babes-eremu izendatu badute, ur-masarako ezarritako baldintza osagarriak ere exijituko dira. Lehentasunezko substantzia arriskutsuei dagokienez, debekatuta dago substantzia horiek lurpeko uretara zuzenean isurtzea.

3. Nolanahi ere, ezarri, aldatu edo lekuz aldatu nahi den industria edo jarduera ezarri eta abian jarri aurretik lortu beharko da isurtze-baimena; eta administrazioak eman beharreko jardueralizentziaren edo jakinarazpenaren aurretik lortu beharko da.

4. Administrazio Hidraulikoak jabari publiko hidraulikoko isurketa-emia erregulatzeko betebeharra ezarri ahalko du, ingurumen-helburuak eta IKAk uneoro beteko direla ziurtatzeko.

5. Isuriaren eremu hartzaileako ezarritako ingurumen-helburuak eta IKAk betetzen direla egiaztatzerakoan, isuria banaka nahiz gainerako isuriekin batera hartu beharko da kontuan.

6. Urbanizazio isolatuen eta industria-poligonoen isuriak saneamendu publikoko sareetara konektatzea lehenetsiko da, jabari publiko hidraulikora zuzenean isurita banaka arazteko aukeraren aurrean, baldin eta, isuri horiek, biodegradagarriak izategatik, administrazio autonomikoek edo tokikoek nahiz horien mendeko bestelako erakundeek kudeatutako saneamendu-sistema baten instalazioetan onar badaitezke. Hori guztia horrela izango da, baina nolanahi ere, Administrazioak bidezkotzat jotzen dituen baldintzak ezarri ahalko ditu, ULTBaren 101.2 artikuluan eta JPHEaren 253. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskatzaileak, bere isuriak lehendik dagoen sare batera konektatu nahi baditu, saneamendukudeatzailearen txosten bat lortu beharko du. Txosten horretan, proposatutako konexioa eremuan dagoen saneamendu-soluzioarekin bateragarria dela ziurtatuko da, eta konexiorako puntu egokia zehaztuko da.

7. Drainatzeko hiri- edo industria-azpiegituren bidez jasotzen diren eta jabari publiko hidraulikoa kutsa lezaketan eurien jariatze-urak hondakin-urak dira, eta Administrazio Hidraulikoaren aurrean isurtze-baimenaren prozedura aplikatu behar zaie. Bertan, kontuan hartuko dira jasotako uren bolumena eta, ondorioz, inguru hartzaileara isurtzen den zama kutsatzailea jatorrian murrizteko prebentzio-neurriak.

8. ULTBaren 104.1 artikuluan eta JPHEaren 261. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenak berrikusi ahal izango ditu, isurketek Plan Hidrologiko honetan ezarritako ingurumen-helburuak bete ditzatela exijitzeko. Horren harira, isurtze-baimena berrikusteko prozeduran, eskuragarri dauden teknika egokienak aplikatzea kontuan hartuko da, baita uraren erabilera eraginkorrena ere.

55. artikulua. *Hiri-eremuetatik datozen isurketak*

1. Hondakin-uren araztegiaren (HUA) akats baten ondorioz ibaian kalte handiak sor litezkeela aurreikusten bada, arazketa-lineen kopurua areagotzeko baldintza ezarri ahal izango da. Baldintza hori aplikatuko da, era berean, bilketa-sistemako hondakin-uren ponpaketetarako. Nolanahi ere, 10.000 biztanle baliokideko baino gehiagoko hiri-aglomerazioen kasuan eta isurketa-emia normaltasun hidrologikoko baldintzetan ur txikien aldiko gutxieneko emari ekologikoaren % 20koa baino gehiagokoa denean, dagokionaren arabera, bi arazketa- edo ponpaketa-linea instalatu beharko dira gutxienez.

2. 10.000 biztanle baliokideko baino gehiagoko hiri-aglomerazioen hondakin-uren araztegien kasuan, Administrazio Hidraulikoak instalazioen funtzionamendua eta efluentearen kalitatea etengabe kontrolatzeko sistemak ezar daitezela exijitu ahalko du.

56. artikulua. *Hiri-saneamenduko sistema orokorrak*

1. Isurtze-baimena eskatu baino lehen, sustatzaileak Administrazio Hidraulikoaren aurrean aurreproiektu bat aurkeztu ahalko du saneamendu- eta arazte-azpiegitura orokorren xehetasunekin. Dokumentazio horretan oinarrituz, Administrazio Hidraulikoak hasierako ebaluazioa egingo du aurreproiektuak inguru hartzailearen ingurumen-helburuak eta IKAk eta isuriaren jario-mailak betetzen dituen azalduz, eta egokia bada, eskatzaileari eskatuko zaio isurtzeko baimen-eskaerari eransteko prestatzen duen proiektuan aldaketa egokiak egin ditzala.

2. Industria-isuriaren aurreko tratamenduari dagokionez, substantzia arriskutsuekin egiten bada eta isuriak saneamendu-sistema orokorrera zuzenean edo zeharka sartzen badira, azkenean HUaren bitartez inguru hartzaileari iristen den masa-zama ezin izango da izan industriak isuri araztua erabilgarri dauden tekniken onenak erabiliz zuzenean jabari publiko hidraulikora isuri izan balu iritsiko zatekeena baino handiagoa.

3. Eurialdietatik datozen gainezkatzei dagokienez, isuriaren deklarazioak JPHEaren 246.2.e) eta 246.3.c) artikuluetan ezarritakoa jaso behar du, baita 259. ter.1. artikuluan jasotako irizpideak kontuan izan ere. Era berean, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 259 ter.3. artikuluan aipatzen diren arau teknikoak garatzen ez dituen bitartean, honako irizpide hau beteko da: berariazko azterlanik ezean, saneamendu-sistema bateratzaileetako huste-gailuetatik ibaian behera kokatutako hodi biltzaileen edukiera 20 litro/segundokoa izango da gutxienez, 1.000 biztanleko.

4. Dauden gainezkabideei dagokienez, JPHEaren 251.1.j artikuluan zehaztutakoa aplikatuko da. Horretarako, titularrak kutsadura murrizteko programa bat aurkeztu beharko du gainezkatzeak pixkanaka indarreko araudira molda daitezzen, exijitutako dokumentazioa aurkeztuz eta betearazpen-epeak adieraziz.

57 artikulua. Industrietatik eta industria-eremuetatik datozen isurketak

1. Industria baten isurketa-espeditentean beste industria baten hondakin-uren fluxua sar daiteke, lehenengoaren instalazioetan biak batera arazteko, baldin eta fluxu hori bere gain hartu eta isurketa-aitorpenean jaso badu.

2. Bi industriaren edo gehiagoren isurketak efluente araztuak husteko eroanbide komunean bateratu daitezke, ingurune hartzailerako azken isurketa-puntu bakarra izanez. Horrelakoetan, industria bakoitzak isurtze-baimena izan behar du, berorren arazketa-instalazioekin eta gainerako industrietatik isurketa-kontrolerako puntu independentearekin. Elementu horiek isurketa ingurune hartzailerara husteko adierazitako eroanbide komunera gaineratzen den gunetik ibaian dora kokatuko dira.

3. Hoztutako uren isurien tenperatura 30 °C-ra mugatzen da, JPHEak IV. Eranskinaren d) atalean laketako eta urtegiatiko isurietarako ezartzen duen araua zabalduz. Tenperaturaren muga hori zirkuitu irekiko ur hoztuei bakarrik aplikatzen zaie. Ur hoztuak zirkuitu itxian purgatzeari dagokionez, ez dira D) atalean jasotzat jotzen, IV. eranskinaren A) atalean baizik, 1. motako industriako hondakin-ur gisa.

4. Sistema irekiko klimatizazio-instalazio geotermikoen aprobetxamendu-sistemek isurtze-baimena izan beharko dute, eragin lezaketen kutsadura termikoagatik eta lurpeko uretan izan litzaketen bestelako eragin fisiko-kimikoengatik. Gainera, 38. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira.

5. Arrain-haztegien eta ur hoztuen isuriek industria-jardueraren bereizgarritzat jotzen ez diren kutsadura-parametroak izan ahalko dituzte, baldin eta titularrak ziurtatzen badu parametro horiek dagoeneko hartunean badaudela eta isurian ez dela horien kontzentrazioa nabarmenki areagotzen. Egiaztapen hori isurtzeko baimen-eskaerarekin nahiz isurketa baimenduen kontrolerarekin batera aurkeztu ahal izango du. Beren hartunea duten instalazio industrialek aurreko baldintza aplikatu ahalko dute, baldin eta titularrak azterketa espezifiko batean justifikatzen badu.

6. Xukatze-uren isuriak dagokien bezala tratatu beharko dira inguru hartzailearen IKAk bete ditzaten, isuria eragiten duen jarduera baino lehenago substantzia kutsatzaile horiek bazeuden ala ez gorabehera.

Tratamendu bera emango zaie meatzea ustiatzeko fasea bukatu ondoren meatze-zuloak urez betetzearen ondoriozko isurketei.

7. Eurien jariatze-urak, 54.7. artikuluan aipatzen direnak, industria-jarduera baten ondorioz nabarmenki kutsatzen badute, industriako hondakin-urtzat joko dira, JPHEaren IV. Eranskinaren arabera dagokion industria-jarduerarenak, hain zuzen.

8. Inguru hartzailera ezusteko jarioak eragin litzaketen substantzia kutsatzaileak biltegitzen dituzten industriek jabari publiko hidraulikoa kutsatzea galarazteko biltegi egokiak edo oztopo fisikoak izan beharko dituzte.

58. artikulua. *Industria-jardueretako hondakin edo produktuen biltegiak, erauzketa-aprobetxamenduetakoak eta aire zabaleko beste biltegi batzuk*

1. Industria-jardueretako edo erauzketa-aprobetxamenduetako aire zabaleko biltegiek eragindako lixibiatuak isurtzeko baimenak ustiapen-faseari eta instalazioa itxi osteko eta lixibiatuak eragiten diren aldi osoari egin beharko die erreferentzia.

2. Uren legeriaren arabera substantzia arriskutsuak dituzten materialak edukiko dituen biltegi orotan ziurtatu beharko da, Administrazio Hidraulikoaren aurrean, ez dela inoiz ere inolako kutsadurarik eragingo eta jabari publiko hidraulikoan ez dela bestelako eraginik izango.

59. artikulua. *Hiri-hondakinen biltegiak*

Sortzen diren aldi osoan zehar eta kasuan kasuko tratamenduak egin ondoren saneamendu publikoko sistemara sartzen diren hondakin-uren biltegi-tako lixibiatuek 54.6. eta 56.2. artikuluetan xedatutakoa beteko dute. Bestela, 58. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

60. artikulua. *2013ko ekainaren 9an jada bazeuden jardueretan lurgaineko uretako isurtzeetarako salbuespenak*

1. 54. artikuluan xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago hiri- edo industria-jarduerak ur-masa izendatu ez diren lurgaineko uretan isurketak egitea baldin eta isurketetan erabilgarri dauden tekninarik onenak kontuan hartu arren ez badituzte betetzen ULTBaren 92. bis artikuluan ezarritako ingurumen-helburuak, 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako balioak eta 8. eranskinean aipatzen diren erreferentziazko balioak.

2. Salbuespen gisa, artikulua honetako 1. atalean aipatzen diren isurketak baimendu edo berrikusi ahal izango dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) 2013ko ekainaren 9an jada bazeuden jardueren ondoriozkoak izatea.
- b) Erabilgarri dauden tekninarik onenak aplikatuz zama kutsatzailea murrizten duten arazketa-instalazio berriak izatea.
- c) Isurketen baldintzek isurketekin uztartzen diren ur-masen ingurumen-helburuak eta IKAK betetzea bermatzea.

- d) Ur-masa izendatu ez diren kostaldeko ibaien kasuan, tarteko edo kostaldeko ur-masarekiko uztartze-gunean IKAk eta masa horretarako ezarritako ingurumen-helburuak betetzen direla bermatu beharko da.

3. Salbuespen gisa, 8. eranskinean jasotako erreferentziako balioak gainditzea eragin lezaketen ibai kategoriako ur-masetarako isurketak baimendu edo berrikusi ahal izango dira, baldin eta ondorengo baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- a) Isurketak 2013ko ekainaren 9an jada bazeuden jardueren ondoriozkoak izatea (egun hartan sartu zen indarrean 400/2013 Errege Dekretua).
- b) Inguru hartzailean substantzia arriskutsuen IKAk (817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa) betetzea isurketa-gunetik ibaian behera, 54.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- c) Arazketa-instalazioek erabilgarri dauden teknikarik onenak aplikatuz zama kutsatzailea murriztea eta isurketa kudeatzeko beste aukerak kaltegarriagoak izatea Administrazio Hidraulikoaren iritzian.
- d) Isurketa-gunetik ibaian behera dagoen eta ur-masaren egoera islatzen duen jarraipen-estazioan 8. eranskinean adierazitako erreferentziako balioak betetzea.

61. artikulua. *Isurketen inguruko neurri osagarriak aplikatzea*

1. Eremu kalteberetan eta horien arro isurleetan ingurumen-helburuak bete ahal izateko, Administrazio Hidraulikoak 10.000 biztanle baliokidetik beherako populazioak zerbitzatzen dituzten hondakin-uren araztegien isurtze-baimenaren titularrei exijitu ahal izango die mantenugaiak (nitrogenoa edo fosforoa) araztu eta ezabatzeko neurri gehigarriak har ditzatela.

2. Agorraldian ingurune hartzaileko ingurumen-helburuak gauzatzea arriskuan jar litekeen kasuetan, Administrazio Hidraulikoak, dagokion urtarorako, oro har eskatutakoak baino arazketa-errendimendu handiagoak edo mantenugaien ezabatze gehigarria (nitrogenoa, fosforoa edo biak) edota bata eta bestea eskatu ahal izango ditu.

3. Ur-masa batean egoera ona lortzea arriskuan jartzen bada isurketen ondorioz, legez kanpoko isurketen kasuan egin behar dena gorabehera, Administrazio Hidraulikoak honako neurri gehigarri hauek aplikatu ahal izango ditu:

- a) JPHEaren 247.2 artikuluan eta lehorretik itsasorako isurketen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, isurtze-baimen berriak ukatzea, bai eraginpeko masarako, bai ibaian gora kokatutako kasuan kasuko masetarako.
- b) JPHEaren 261. artikuluan eta Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren arabera, isurtze-baimena berrikustea edota, hala badagokio, isurtze-baimenaren titularrari ohartaraztea Administrazioak berori baliogabetzeko alde bakarreko erabakia hartuko duela (inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe), baimen hori plangintza hidrologikoaren helburuekin bateraezina bada, baimenean emandako epea amaitu ondoren.

- c) Isurketa-elkarteak eratzeko errekerimendua egitea, ULTBaren 90. artikuluan eta JPHEaren 253.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

62 artikulua. *Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak*

1. Plangintzari buruz Administrazio Hidraulikoak eman beharreko txostenetarako, ULTBaren 25.4 artikuluan arabera (ur kontinentalen araubideari eta aprobetxamenduari, eta jabari publiko hidraulikoko lurretan eta horien zortasun- eta zaintza-eremuetan baimendutako erabilerei buruzkoa da), sustatzaileak saneamendu-sarerako eta arazketarako proposatutako soluzioa zehaztu beharko du eta gutxienez aurretiazko azterlan mailakoa izan beharko du.

2. Lehendik dagoen sare batera konektatzea aurreikusten bada, 54.6 artikuluan xedatutakoa baliozkoa izango da, bai bideragarritasunaren kasuan, bai aurkakotan.

63. artikulua. *Itsasoko eta lehorreko jabari publikoan isurtzeko baimenak*

1. Tarteko eta kostaldeko uretako isurketei dagokienez, Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen III. tituluko IV. kapituluko 2. sekzioan xedatutakoa beteko da, baita Kostaldeen Araudi Orokorrean, martxoaren 10eko 258/1989 Errege Dekretuan (lehorretik itsasora substantzi arriskutsuen isurketei buruzko araudi orokorra ezartzen duena) eta lehorretik itsasora isurtzeari buruzko abenduaren 10eko 459/2013 Errege Dekretuan xedatutakoa ere.

2. Kostaldeen Araudi Nagusiko 117. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenen baldintzak berrikusi edo, egokia bada, aldatu ahal izango ditu, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, baldin eta baimena ematea eragin zuten inguruabarrak aldatzen badira. Era berean, baldintzak berrikusi edo aldatu ahal izango dira beharrezkoa bada Plan Hidrologiko honetan ezartzen diren ingurumen-helburuak erdiesteko.

3. Halaber, itsasoko eta lehorreko jabari publikoan isurtzeko baimenetan jabari publiko hidraulikoari buruzko 54.1, 54.3, 54.4, 54.5, 54.6 eta 54.7 ataletan jasotakoa aplikatuko da. Hiri-eremuetan jatorria duten isurien kasuan, 55.1. ataleko lehenengo paragrafoan eta 55.2., 61.1. eta 61.2. ataletan jasotakoa kontuan hartuko da.

4. Drainatzeko hiri- edo industria-azpiegituren bidez jasotzen diren eta inguru hartzailea kutsa lezaketan eurien jariatze-urak, industrietan eta industrialdeetan jatorria dutenak, eta zirkuitu itxiko ur hoztuen hustuketak industriako hondakin-urtzat joko dira, eta Administrazio Hidraulikoaren aurrean isurtze-baimenaren prozedura aplikatu beharko zaie. Baimenean kontuan hartuko dira jasotako uren bolumena eta inguru hartzaileran isurtzen den zama kutsatzailea jatorrian murrizteko prebentzio-neurriak.

5. Saneamendu-sistema orokorretako gainezkabideen harira, Administrazio Hidraulikoak isurtze-baimenaren titularrari exijitu ahalko dio jariatze-urek gainezka egitearen ondoriozko kutsadura murrizteko programa bat aurkez dezala, baita abenduaren 10eko 459/2013

Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa betearaz dezala ere. Programa horretan hainbat neurri barne hartuko dira, hala nola azterlan tekniko xeheak, hondakin-uren eta jariatze-uren bolumenak araztegietarantz garraiatzea optimizatze eta euriteetan saneamendu-sistemetakoa gainezkatzeen eragina murrizteko.

6. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoko isurketen kasuan, isurketen jatorria saneamendu-sistema orokorretan badatza, jabari publiko hidraulikoaren inguruko 56.1. eta 56.2. ataletan jasotakoa aplikatuko da, eta isurketen jatorria industriak eta industrialdeak badira, 57.1., 57.2., 57.5. eta 57.8. ataletan jasotakoa aplikatuko da. Halaber, itsasoko eta lehorreko jabari publikoan isurketen kasuan, isurketen jatorria hondakin-biltegiak edo industria- edo erauzketa-jardueretako produktuak badira, 58. eta 59. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

7. Itsasoko eta lehorreko jabari publikoan isurketen ondorioz ur-masak egoera onean izatea arriskuan jartzen bada, legez kanpoko isurketen kasuan egin behar dena gorabehera, Administrazio Hidraulikoak Isurketaren Erabiltzaile Batzarrak eratzeko exijitu ahalko du, Kostaldeen 22/1988 Legearen 58.6. artikuluan eta Kostaldeen Araudi Nagusiko 121. artikuluan xedatutakoaren arabera, baita 61.3. artikuluko a eta b ataletan ezarritakoa aplika dadila ere.

V. sekzioa. Araztutako urak berrerabiltzea

64. artikulua. Hondakin-urak berrerabiltzea

1. ULTBaren 59.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera, administrazio-emakida behar da aprobetxamendu batetik datozen hondakin-urak berrerabili ahal izateko, isurketaren titularrak emakida hori eskatzen badu salbu. Halakoetan, administrazio-baimena beharko da soilik. Araztutako urak berrerabiltzeko, betiere, araztutako urak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duen abenduaren 7ko 1620/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko da.

2. Industrien barruko berrerabilpena sustatuko da iturri alternatiboen erabilpenean, eta bideragarria denean, hiri-ura baino kalitate txikiagoko baliabideak erabiltzea bultzatuko da. Horretarako:

- a) Ibilguan egiten diren emari-erauzketek edo hondakin-uren isurketek aurreikusita dauden epeetan ur-masaren egoera ona lortzea arriskuan jartzen badute, Administrazio Hidraulikoak, ofizioz, isurtzeko emakidaren edo baimenaren titularrari eskatu ahal izango dio araztutako urak berrerabiltzeko aukera azter dezan.
- b) Era berean, emakida-eskaera berrien kasuan, Administrazio Hidraulikoak kasuan kasuko eskaera leheneratutako uretarako emakidara bideratzeko aukera izango du, baldin eta emakida-erabilerek onartzen badute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

VIII. kapitulua: Uraren zerbitzuak kudeatzeko antolamendu-egiturak. Kostuak berreskuratzea. Ekonomia- eta finantza-araubidea. Eskaera kudeatzeko planen jarraibideak. Gardentasuna, herritarren kontzientziarioa eta parte-hartzea sustatzea

65. artikulua. *Uraren zerbitzuak kudeatzeko orientazio-printzipioak eta sustapen-neurriak*

1. Administrazio eskudunek hornidura- eta saneamendu-sistemen kudeaketa integratua bultzatuko dute, eta ondorengo helburu hauek erdiestea bermatzeko gai diren udalaz gaindiko kudeaketa-egiturak sor eta manten daitezela sustatuko dute: sareen errendimendurik onena ziurtatzea, kudeaketa profesionalizatua izango duen zerbitzua eskaintzea eta ur-zerbitzuen kostuak ahal besteko eraginkortasunarekin leheneratzeko joera izatea. Isurketak kontrolatu eta bereizteko mekanismoak areagotuko dira, batik bat saneamendu-sistema publikoetara konektatutako industrialdeen barruan.
2. PHAren 46. artikuluekin bat etorritik, sareen eraginkortasuna handitzeko hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak sortu eta berritzea uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatzeko neurritzat joko da, barne hartuta haietarako laguntzak. Laguntza horiek, ULTBaren 110. artikuluen arabera, soil-soilik esleituko zaizkie hornidura- eta saneamendu-zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatu dutela justifikatu duten erakundeei.
3. Administrazio-arte koordinazioa bultzatuko da Uholde-arriskuaren Kudeaketa Planen betearazpena arintzeko, baita gainerako plangintza garrantzitsuan barne har dadila errazteko ere.

66. artikulua. *Uraren zerbitzuen kostuak*

Uraren ziklo integralaren kostuak identifikatzeko, gutxienez, hura eskaintzeko beharrezko kostu guztiak hartu behar dira kontuan, kostu horiek dituen erakundea edozein izanik ere. Honela sailka daitezke:

- a) Altan dauden hornidura- eta saneamendu-sareak mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak, edateko uren araztegiak (EUA) eta HUAk barne.
- b) Altan dauden hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko inbertsioen eta programen amortizazioa, EUAk eta HUAk barne (hobekuntza-programa horiek 5 urteko aldia barne hartu beharko dute gutxienez).
- c) Bajan dagoen sarea mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak.
- d) Bajan dauden hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko inbertsioen eta programen amortizazioa (hobekuntza-programa horiek 5 urteko aldia barne hartu beharko dute gutxienez).
- e) Abonatuen kudeaketarekin eta bezeroarentzako arretarekin lotutako kostuak.
- f) Hornidura- eta saneamendu-zerbitzua eskaintzearen ondoriozko ingurumen-kostuak. Uraren erabilerek ingurumenarentzat, ekosistemarentzat eta ingurumenaren erabiltzaileentzat eragiten duten kaltearen kostuak dira.
- g) Baliabidearen kostuak.

67. artikulua. *Uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko jarraibideak*

1. ULTBaren 111 bis.2 artikulua araberako, kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatzearen, ur-horniduraren arloan eskumena duen administrazioak kontsumo-tarteen araberako tarifa-egitura ezarriko du. Horren helburua da oinarrizko beharrei arazoizko prezioan erantzutea eta gehiegizko kontsumoak sustatzeari uztea, besteak beste gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren gaineko ondorioak kontuan izanik, baita baldintza geografikoak eta klimatikoak ere. Nolanahi ere, neurri horiek ez ditu arriskuan jarri behar ingurumen-helburuak.

2. Hiri- eta industria-erabileretarako uraren zerbitzuen tarifak ezartzeko jarraibideak:

- a) Tarifek, kuota finko bat ez ezik, ur-kontsumoaren araberako nahitaezko kuota aldakor eta mailakatu bat ere izatea gomendatzen da.
- b) Kuota finkoan gutxieneko ur-kontsumorik ez sartzea proposatzen da.
- c) Mailakako tarifak ezartzeko, zenbait kontsumo-tarte proposatzen dira, mailakakotasun-eskala egokiarekin; kostuak berreskuratzeko, baliabideak aurrezteko eta kontsumo ez-eraginkorra eta ez-iraunkorra zigortzeko.
- d) Tarifetan hiri-erabiltzaileen motak bereiztea gomendatzen da, zehazki honako hauek, gutxienez: etxeak, industriakoak eta merkataritzakoak.
- e) Industria-tarifen egiturak diseinatzean, erabilera horri lotutako kostuak kontuan hartu beharko lirateke.
- f) Industria-erabileretarako, hobariak ematea aintzat hartu ahal izango dira, eskuragarri dauden teknika hoberenak erabiliz uraren erabilera iraunkorrean eta aurrezpenean egiten duten ekarpenaren arabera.

68. artikulua. *Eskaera kudeatzeko planak. Planak prestatzeko jarraibideak*

1. Uraren zerbitzuak kudeatzeko eskumena duten agintariek eskaera kudeatzeko planak egin ditzatela gomendatzen da, planek demarkazio hidrografikoan uraren kudeaketa integrala, arrazionala eta iraunkorra lortzen lagun dezaten.

2. Honako jarraibide hauek proposatzen dira planak prestatzeko:

- a) Uraren erabilerari buruzko informazio-sistemak ezartzea, uraren erabileren eskaerak dituen ezaugarrien eta joeren inguruko informazioa lortzeko eta ura aurrezteko eta arazoiz erabiltzeko politikak garatzeko.
- b) Banakako kontagailuak instalatuz kontrola ziurtatzea.
- c) Ura aurrezteko teknologien erabilpena sustatzea.
- d) Sarearen eraginkortasun-mailak hobetzeko neurriak: hodiak berrituz joatea, ihesak azkar antzeman eta minimizatzeko kanpainak egitea.
- e) Tarifak eguneratzea, kostuak berreskuratzeko eta ura aurrezteko sustatzeko irizpideei jarraituz.
- f) Erabiltzaileak kontzientziatzeko eta informatzeko kanpainak sustatzea. Kontsumitzaileek beren ur-kontsumoak eta eraginkortasun-maila zein diren jakin

dezatela bultzatu behar da, fakturaren bidez eta aurreztea sustatzeko informazio- eta sensibilizazio-ekintzen bidez.

- g) Uraren kultura berri baterako parte-hartze eremuak sustatzea.

69. artikulua. Gardentasuna eta herritarren kontzientziazioa sustatzeko jarraibideak

1. Gardentasuna nahitaezko baldintza da, eta uraren zerbitzuetan eskumena duten administrazio guztiek bete behar dute. Gardentasuna sustatzeko, kudeatzaile guztiek ezarri beharreko jarraibide hauek zehaztu dira:

- a) Informazio-sistema integratua sortzea, uraren zerbitzugintzan esku hartzen duten eragileek sortutako datu interesgarri guztiak bilduko dituen; adibidez, ondoko hauek: azpiegiturak; erabiltzaile motaren arabera ur-eskaerak; zerbitzuen kostuak eta diru-sarrerak; eta eskualdean, Estatuan eta Europan zerbitzugintzan inplikaturako erakunde publikoen inbertsioek eta diru-laguntzek izandako bilakaera.
- b) Uraren tarifa ezartzeko politikak gardena eta ulertteraza izan behar du, pizgarri-eragina izan dezan eta erabiltzaileek baliabideak eraginkortasunez balia ditzaten. Erabiltzaileen artean gai hauei buruzko informazioa hedatzea bultzatu beharko litzateke: uraren ziklo integralari dagozkion tarifen kontzeptuak, eta baliabidearen erabilera eraginkorrak eta iraunkorrak ingurumenean, gizartean eta ekonomian dakartzan onurak.
- c) Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta ofizialekin lotutako informazioaren edukiak egokitu eta prozesatzea.
- d) Espezializatutako erakunde autonomiko arautzaile bat sortzea, zerbitzuen baldintzak eta estandarrak ezar eta ikuska ditzan, baita tarifak finkatzeko irizpideak bateratu ere.
- e) Herritarrekin etengabe komunikazioa izateko eta informazioa emateko kanalak irekitzea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bitartez.

2. Herritarren kontzientziazioak, era berean, baliabideak modu iraunkorragoan erabiltzea lortzen lagundu behar du. Ildo honetatik, hau proposatzen da:

- a) Ura aurrezteari buruzko gizarte-kontzientziazioa sustatzea eta herritarren, enpresen eta erakundeen portaeran eragina izaten saiatzea, ura egokiago erabil dezaten.
- b) Herritarrek kontzientziatu eta sensibilizatzeko kanpainak ezartzea. Horiek ondoko baliabideen bitartez antola litezke: heziketa- eta prestakuntza-programak, komunikazio-kanpainak eta jarduerak, administrazio publikoen edo partikularren arteko lankidetzak-hitzarmenak nahiz komenigarritzat eta egokitutak hartzen diren bestelakoak.
- c) Ura modu arduratsuan kontsumitzeko kultura arduratsua sustatu eta ezagutzera ematea, baita urarekiko jarrera iraunkorra ere, ura aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzea sustatzeko.
- d) Uraren balioak ezagutzera ematearekin eta interpretatzearekin erlazionaturako ekipamenduak bultzatzea.

70. artikulua. Parte-hartze publikoa gauzatzeko prozedura

1. Aurreko atalean jaso diren eta parte-hartze publikoa sustatzen duten jarraibideen kaltetan izan gabe, Planaren Memoriaren 13. Kapituluaren bildu dira parte-hartzea gauzatzeko prozedurak.
2. Administrazio Hidraulikoek Plan Hidrologiko honen jarraipena eta berrikuspena egiteko informazio publikoko, kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko prozeduren garapenarekin erlazionatutako antolamendu-sistema eta esparru-kronograma ezarriko dituzte.
3. Administrazio Hidraulikoek informazio publikoko, kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko prozedurak koordinatuko dituzte, baita Plan Hidrologikoa berrikusteko ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokiona ere.
4. Prozesuaren faseetan erabiliko diren parte-hartze metodoak eta teknikak honakoak izango dira, besteak beste: elkarriketak, ate irekietako jardunaldiak, bi aldeko bilerak, tailerrak, parte-hartze interaktiboa, sektore-mahaiak eta sektore anitzekoak, hitzaldiak eta mahai-inguruak.
5. Informazio publikoko, kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko prozesuen garaian Plan Hidrologikoaren inguruko dokumentazioa eta informazioa kontsultatu eta eskuratzeko kontaktuko guneak honakoak izango dira, beste zerbait xedatzen bada izan ezik:
 - a) Administrazio Hidraulikoen egoitzak (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa eta Uraren Euskal Agentzia) eta haien ordezkariak eta lurralde-bulegoak.
 - b) Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren eta Uraren Euskal Agentziaren web orriak.
 - c) Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren web orriak.

71. artikulua. Neurrien programa

1. Plan honetako neurrien programa, derrigorrezkoa eta bete beharrekoa, 72. artikuluan jasota dagoena alde batera utzirik, 10. eranskinean jasota dauden eta Plan Hidrologikoko Neurrien Programa dokumentuan deskribatzen diren neurriek eratzen dute. Hain zuzen, mota hauetan multzokatzen dira:
 - a) Unean uneko kutsadura murrizteko neurriak (1. mota).
 - b) Kutsadura lausoa gutxitzeko neurriak (2. mota).
 - c) Ura erazteagatik presioa murrizteko neurriak (3. mota).
 - d) Presio morfologikoak murrizteko neurriak (4. mota).
 - e) Presio hidrologikoak gutxitzeko neurriak (5. mota).
 - f) Ur-ekosistemen egitura eta funtzionamendua kontserbatzeko eta hobetzeko neurriak (6. mota).
 - g) Presio jakin baten gainean ez baina bai identifikatutako eragin baten gainean aplikatzen diren neurriak (7. mota).
 - h) Faktore erabakigarri gisa jarduten duten sektoreen gainean aplikatu beharreko neurri orokorrak (8. mota).
 - i) Edateko ura babesteko berariazko neurriak, zuzenean lotuta ez daudenak ez presioei ez eraginei (9. mota).

- j) Lehentasunezko substantzietarako berariazko neurriak, zuzenean lotuta ez daudenak ez presioei ez eraginei (10. mota).
- k) Gobernantza hobetzearekin lotutako neurriak (11. mota).
- l) Eskuragarri dauden baliabideak handitzearekin lotutako neurriak (12. mota).
- m) Uholdeei aurrea hartzeko neurriak (13. mota).
- n) Uholdeen aurka babesteko neurriak (14. mota).
- o) Uholdeen aurrean prestatzeko neurriak (15. mota).
- p) Uholdeen ondoren lehengoratzeko eta berrikusteko neurriak (16. eta 18. moten artekoak).
- q) Urarekin lotutako beste erabilera batzuei erantzuteko neurriak (19. mota).

1. eta 10. moten arteko neurriak zuzenean dagozkio Uraren Esparru Zuzentzeara ezartzeko neurriei, ingurumen-helburuak lortzeko arazoei aurre egiten diete. Era berean, 13. eta 18. moten arteko neurriak Uholde Arriskuak Ebaluatzeko eta Kudeatzeko Zuzentzeara ezartzeari dagozkio, eta uraldien eta uholdeen arazoei aurre egiten diete (muturreko fenomenoak). Modu gehigarrian, gobernantza arazoei 11. motako neurrien bidez egingo zaie aurre. Eskaerei erantzuteko helburuari –plan hidrologiko honek hori ere bere gain hartzen baitu– 12. motan multzokatzen diren inbertsioen bidez egingo zaio aurre. Beste alde batetik, 19. motan sartu dira beste inbertsio paralelo batzuk, Planaren neurri propioak izan gabe, uraren erabileren bilakaerari eragiten baitiote eta, aurretik adierazitako neurri moten artean, beste mota batzuk behar izatea baitakarte.

2. Denbora-horizontetarako aurreikusten diren inbertsioak 10. eranskin gisa jaso den taulan adierazten direnak dira, eta plan hidrologiko hau onartzeko errege dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki garatuko da.

72. artikulua. *Neurrien programaren finantzaketa*

1. Ingurumen-helburuak gauzatzeko jarduera guzti-guztiak Plan Hidrologikoaren Neurrien Programan zerrendatu dira. Hainbat arrazoiren ondorioz (esaterako, neurrien programa finantzatzeko identifikatutako erakundeek aurrekontu-eskuragarritasunik ez izatea) ezinezkoa bada jarduera hauetako bat edo bat baino gehiago gauzatzea, Erakunde eskudunak jarduera hori edo horiek geroko kudeaketa-planetarako (2022-2027 edo geroagokoak) atzeratu ahalko ditu, baldin eta horrela jotzea Plan Hidrologiko honetan ezarri diren helburuak betetzearekin koherentea bada eta neurrien programaren jarraipen egokiarekin egiten bada.

2. Neurrien programa derrigorrez bete behar denez eta loteslea denez, neurri horiek antzeko beste neurri batzuek bakarrik ordezkatu ahal izango dituzte, eta nolahi ere, Plan Hidrologiko honetan ezarritako ingurumen-helburu berberak betetzea bermatu beharko dute.

IX. kapitulua: Plan hidrologikoaren jarraipena eta berrikuspena

73. artikulua. *Plan Hidrologikoaren jarraipena*

1. PHAren 88. artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian adierazten diren alderdiei berariazko jarraipena egingo zaie:

- a) Eskuragarri dauden baliabide hidriko naturalen eta horien kalitatearen bilakaera. Azterlanean kontuan hartuko dira klima-aldaketak baliabide naturalen kantitatean, ingurumen-helburuetan eta ur-eskaeretan dituen eraginak.
- b) Ur-eskaeren bilakaera.
- c) Emari ekologikoen erregimenaren betetze-maila.
- d) Lurgaineko eta lurpeko ur-masen egoera.
- e) Ur-masen gaineko neurrien eta eraginen programen aplikazioa. Jarraipen horren inguruko datuetan, informazio hau jasoko da behinik behin:
 1. Jarduera zer egunetan jarri zen zerbitzuan edo, kudeaketa-tresnen kasuan, zer egunetan sartu zen indarrean.
 2. Benetako inbertsioa eta mantentze-kostuak.
 3. Neurriaren eraginkortasunaren zenbatespena.

2. Plan Hidrologikoari buruzko informazioa eta jarraipen-lanetarako beharrezko datuak biltzeko, koordinazio-mekanismoak ezarriko dira, PHAren 87. artikulua arabera.

3. Neurrien programak abian jarri eta aplikatzeko ardura duten agintaritzak eta administrazio eskudunek Administrazio Hidrauliko eskudunari aurreko urtean gauzatutako jardueren garapenari buruzko informazioa eman beharko diote urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, PHAren 87.4 artikuluan jasotako informazio-betebeharra bete ahal izateko.

4. Gainera, Demarkazioko Uraren Kontseiluak aintzakotzat hartzeko, PHAren 87.4 artikulua arabera, eta Erabiltzaileen Batzarrak aintzakotzat hartzeko, EAEko komunitate arteko arrien esparruan, jarri behar diren dokumentuekin batera 17. eranskinean dagoen jarraipen-adierazleen taula jaso beharko da.

74. artikulua. *Plan Hidrologikoaren berrikuspena*

1. PHAren 89. artikulua arabera, Plan Hidrologikoa berrikusi egin beharko da, Demarkazioko Uraren Kontseiluak nahiz Erabiltzaileen Batzarrak proposatuta (bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan), baldin eta haien datuetan, hipotesietan edo emaitzetan antzemandako aldaketen edo desbideratzeen ondorioz gomendagarria bada.

2. Nolanahi ere, ULTBaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera, Plan Hidrologikoaren berrikuspen osoa eta aldizkakoa egingo da 2021eko abenduaren 31 baino lehen, eta 6 urtean behin data horretatik aurrera.

75. artikulua. *Lehorteetarako plan bereziaren berrikuspena*

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barruan, alerta-egoeran eta litekeen lehorte-egoeran jarduteko plan berezien berrikuspen-zikloa Plan Hidrologikoaren berrikuspen-ziklora egokituko da. Hartara, adierazleen sistema eta lehorteetarako prebentzio- eta arintze-neurriak

plangintza hidrologikoaren helburu zehatzekin bat datozela egiaztatu ahal izango da, plan hidrologikoaren geroagoko aurreikuspenetan eguneratuz doazen heinean.

76. artikulua. *Uholde-arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena*

Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoko Espainiako zatiaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak bere berrikuspen-zikloa Plan Hidrologikora egokituko du, uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 14. artikulua arabera. Hartara, egiaztatuko da lehenaren helburuak bat datozela Plan Hidrologikoan jasotako ingurumen-helburuak betetzearekin, eta azken hori hurrengo ziklorako (2021-2027) berrikusi beharko da.

77. artikulua. *Plan Hidrologikoaren ondoren izendatutako eremu babestuak*

1. PHAren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, Babestutako Eremuen Erregistroa aldizka eta berriaz berrikusi eta eguneratu beharko da Plan Hidrologikoa eguneratzearekin batera.

2. Aurreko atala oinarri hartuta, agintaritza eskudunak, gaia dela eta, plangintza hidrologikoaren ondorioetarako beste eremu babestu bat izendatzen badu Plan Hidrologiko hau egin ondoren, eremu hori Plan Hidrologiko honetako Babestutako Eremuen Erregistroan sartuko da, erregistro horretan sartutako eremu babestuetarako ondorio berberekin; eta ez dira beharrezkoak izango PHAren 80. eta 83. artikuluetan zehaztuta dauden Plan Hidrologikoa kontsultatu eta onartzeko prozedurak.

Araudiaren eranskinak:

1. Lurgaineko ur-masak
2. Lurpeko ur-masak
3. Lurgaineko ur-masa naturalen kalitate-elementuetarako egoera-mota aldatzeko mugak eta adierazleak
4. Oso aldatuta dauden eta artifizialak diren ur-masa naturalen kalitate-elementuetarako egoera-mota aldatzeko mugak eta adierazleak
5. Emari ekologikoak
6. Ingurumen-helburuak
7. Babestutako eremuen erregistroa
8. Jabari publiko hidraulikoan ingurumen-helburuak betearazteko inguru hartzaileko erreferentziatzeko balioak, isurtze-baimenetan aplikatzen direnak
9. Ingurumen-kalitatearen inguruko arauak eta atalase-balioak lurpeko ur-masetarako
10. Neurrien Programaren laburpena
11. Erabileraren araberako ur-zuzkidurak
12. Zubiak diseinatzeko babesak
13. Udallerriak, erlazionatutako merkataritza-industria jardueraren arabera
14. Azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak
15. Olgeta-erabileren inguruko jardunbide onen gida
16. Baliabideak ustiatzeko sistemak
17. Publizitate-baldintza osagarriak

1. ERANSKINA. LURGAINEN UR-MASAK

1.1. eranskina. Lurgaineko ur-masen tipologiak

Masaren kategoria	Tipologiaren kodea	Motaren deskripzioa	Masa kop.
Ibaia	R-T22	Ibai kantauriar-atlantiko karedunak	21
	R-T23	Euskal Pirinioetako ibaiak	36
	R-T29	Ibai-ardatz kantauriar-atlantiko nagusi karedunak	2
	R-T30	Kostaldeko ibai kantauriar-atlantikoak	9
	R-T32	Ardatz kantauriar-atlantiko txiki karedunak	19
	R-T22-HM	Ibai kantauriar-atlantiko karedunak. Oso eraldatuak	9
	R-T23-HM	Euskal Pirinioetako ibaiak. Oso eraldatuak	4
	R-T29-HM	Ibai-ardatz kantauriar-atlantiko nagusi karedunak. Oso eraldatuak	4
Urtegi bidez aldatutako ibaiak edo aintzira	R-T32-HM	Ardatz kantauriar-atlantiko txiki karedunak. Oso eraldatuak	4
	L-T18	Sedimentazio-arroaren barrualdea, mineralizazio ertaina iraunkorra	1
	E-T01	Monomiktikoa, hezeguneetako silizeoa, 15 °C-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena	2
	E-T07	Monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, 15 °C-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena	8
Tarteko urak	E-T09	Monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, sare nagusiko ibaiei dagokiena	1
	AT-T08	Estuario atlantiko intermareala ibaiaren nagusitasunaz estuarioaren gainetik	1
	AT-T09	Estuario atlantiko intermareala itsas nagusitasunaz	8
	AT-T10	Estuario atlantiko azpimareala	1
	AT-T08-HM	Estuario atlantiko intermareala ibaiaren nagusitasunaz estuarioaren gainetik. Oso eraldatua	1
Kostaldeko urak	AT-T10-HM	Estuario atlantiko azpimareala. Oso eraldatua	3
	AC-T12	Kantauri Ekialdeko kostaldeko ur atlantikoak, azaleratzerik gabe agerian daudenak	4

1.2. eranskina. Lurgaineko ur-masa naturalak

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Tipologia-kodea	Luz. (km)	Azal. (km ²)
Ibaia	ES111R075010	Barbadun-A	R-T22	35,5	
	ES111R075020	Barbadun-B	R-T22	7,8	
	ES069MAR002880	Cadagua ibaia I	R-T22	20,3	
	ES069MAR002870	Ordunte ibaia I	R-T22	5,8	
	ES073MAR002890	Herrerias ibaia	R-T32	78,1	
	ES073MAR002910	Cadagua ibaia III	R-T29	5,2	
	ES052MAR002690	Nerbioi ibaia I	R-T32	26,6	
	ES055MAR002721	Altube ibaia I	R-T32	14,1	
	ES055MAR002722	Altube ibaia II	R-T32	32,7	
	ES056MAR002730	Zeberio ibaia	R-T22	11,5	
	ES059MAR002750	Elorrio ibaia II	R-T32	23,0	
	ES059MAR002760	Akelkorta erreka	R-T22	7,1	
	ES065MAR002810	Ibaizabal ibaia II	R-T32	10,4	
	ES064MAR002820	Maguna ibaia	R-T22	9,2	
	ES065MAR002770	San Migel ibaia	R-T22	5,2	
	ES066MAR002800	Indusi ibaia	R-T22	15,9	
	ES067MAR002830	Amorebieta-Aretxabalgane ibaia	R-T22	8,6	
	ES111R074040	Larrainazubi-A	R-T22	6,4	
	ES111R048010	Butroe-A	R-T22	35,1	
	ES111R048020	Butroe-B	R-T22	24,8	
	ES111R048030	Estepona-A	R-T30	7,8	
	ES111R046040	Artigas-A	R-T30	4,8	
	ES111R046020	Mape-A	R-T30	4,6	
	ES111R046010	Oka-A	R-T22	22,1	
	ES111R046030	Golako-A	R-T22	14,4	

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Tipologia-kodea	Luz. (km)	Azal. (km ²)
	ES111R045020	Ea-A	R-T30	4,7	
	ES111R045010	Lea-A	R-T22	34,5	
	ES111R044010	Artibai-A	R-T22	42,1	
	ES111R044020	Saturran-A	R-T30	4,4	
	ES111R036010	Deba-A	R-T23	8,4	
	ES111R036020	Aramaio-A	R-T23	5,5	
	ES111R040040	Oñati-A	R-T23	5,9	
	ES111R040050	Oñati-B	R-T23	16,7	
	ES111R040060	Arantzazu-A	R-T23	18,5	
	ES111R040020	Angiozar-A	R-T22	6,5	
	ES111R040080	Antzuola-A	R-T22	7,4	
	ES111R040030	Ubera-A	R-T22	5,6	
	ES111R042030	Kilimoi-A	R-T22	6,7	
	ES111R034040	Larraondo-A	R-T30	6,1	
	ES111R030010	Urola-A	R-T23	7,7	
	ES111R030030	Urola-C	R-T23	13,1	
	ES111R031020	Ibaieder-A	R-T23	4,4	
	ES111R032020	Ibaieder-B	R-T23	22,0	
	ES111R034010	Urola-E	R-T32	20,7	
	ES111R034020	Urola-F	R-T32	8,9	
	ES111R034030	Altzolaratz-A	R-T23	9,4	
	ES111R029010	Iñurritza-A	R-T30	4,8	
	ES020MAR002501	Oria ibaia I	R-T23	10,4	
	ES020MAR002502	Oria ibaia II	R-T23	19,9	
	ES020MAR002520	Estanda ibaia	R-T23	21,0	
	ES020MAR002560	Aguntza ibaia I	R-T23	17,3	
	ES020MAR002540	Aguntza ibaia II	R-T32	5,9	
	ES020MAR002570	Zaldibia ibaia	R-T23	17,6	
	ES020MAR002642	Oria ibaia IV	R-T32	7,9	
	ES028MAR002661	Oria ibaia V	R-T32	9,1	
	ES021MAR002581	Amabirjina ibaia I	R-T23	7,4	
	ES021MAR002582	Amabirjina ibaia II	R-T23	12,8	
	ES022MAR002650	Salubitako ibaia	R-T32	5,1	
	ES023MAR002601	Araxes ibaia I	R-T23	15,0	
	ES023MAR002591	Araxes ibaia II	R-T32	17,6	
	ES026MAR002610	Berastegi ibaia	R-T23	13,4	
	ES026MAR002670	Asteasu ibaia I	R-T23	4,6	
	ES027MAR002630	Leitzaran ibaia I	R-T23	18,1	
	ES027MAR002620	Leitzaran ibaia II	R-T32	21,6	
	ES111R018010	Igara-A	R-T30	5,9	
	ES016MAR002440	Ollin ibaia	R-T23	17,2	
	ES018MAR002492	Urumea ibaia I	R-T32	8,8	
	ES017MAR002450	Añarbe ibaia	R-T23	13,4	
	ES018MAR002491	Urumea ibaia II	R-T32	24,2	
	ES018MAR002480	Landarbaso ibaia	R-T32	7,7	
	ES018MAR002470	Urumea ibaia III	R-T32	5,0	
	ES111R014010	Oiartzun-A	R-T23	32,1	
	ES111R012010	Jaizubia-A	R-T30	5,4	
	ES002MAR002340	Bidasoa ibaia I	R-T23	19,5	
	ES002MAR002380	Bidasoa ibaia II	R-T32	18,8	
	ES002MAR002350	Beartzun ibaia	R-T23	5,4	
	ES002MAR002360	Artesiaga ibaia	R-T23	11,6	
	ES002MAR002370	Marin eta Zeberia ibaia	R-T23	14,9	
	ES005MAR002390	Ezkurra eta Ezpelura ibaia	R-T23	35,2	
	ES010MAR002420	Bidasoa ibaia III	R-T29	34,2	
	ES008MAR002410	Latsa ibaia	R-T23	8,2	
	ES008MAR002402	Tximista ibaia I	R-T23	6,5	
	ES008MAR002401	Tximista ibaia II	R-T23	9,3	

Ibaia

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Tipologia-kodea	Luz. (km)	Azal. (km ²)
	ES010MAR002430	Endara ibaia	R-T23	6,7	
	ES001MAR002320	Olabidea ibaia	R-T23	15,4	
	ES001MAR002330	Urritzate-Aritzakun ibaia	R-T23	10,8	
	ES518MAR002930	Luzaide ibaia	R-T23	11,2	
Aintzira	ES053MAL000070	Altubeko urmaelen gunea / Monrealgo putzua	L-T18		0,05
Tarteko urak	ES111T075010	Barbadun tartekoa	AT-T09		0,8
	ES111T048010	Butroe tartekoa	AT-T09		1,7
	ES111T046010	Oka barrualdea tartekoa	AT-T09		3,6
	ES111T046020	Oka kanpoaldea tartekoa	AT-T09		6,6
	ES111T045010	Lea tartekoa	AT-T09		0,5
	ES111T044010	Artibai tartekoa	AT-T09		0,4
	ES111T042010	Deba tartekoa	AT-T08		0,7
	ES111T034010	Urola tartekoa	AT-T09		1,0
	ES111T028010	Oria tartekoa	AT-T09		2,1
Kostaldekoak	ES111T012010	Bidasoa tartekoa	AT-T10		7,1
	ES111C000030	Kantabria-Matxixako	AC-T12		194,3
	ES111C000020	Matxixako-Getaria	AC-T12		231,2
	ES111C000010	Getaria-Higer	AC-T12		141,8
	ES111C000015	Monpas-Pasaia	AC-T12		10,5

1.3. eranskina. Lurgaineko ur-masa oso aldatuak

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Tipologia-kodea	Luz. (km)	Azal. (km ²)
Ibai oso aldatua	ES111R074010	Galindo-A	R-T22-HM	16,6	
	ES073MAR002900	Cadagua ibaia II	R-T32-HM	38,5	
	ES069MAR002850	Ordunte ibaia II	R-T22-HM	4,4	
	ES073MAR002920	Cadagua ibaia IV	R-T29-HM	5,9	
	ES052MAR002710	Izorio ibaia	R-T22-HM	6,9	
	ES068MAR002841	Nerbioi ibaia II	R-T29-HM	45,9	
	ES060MAR002740	Elorrio ibaia I	R-T22-HM	4,7	
	ES059MAR002780	Ibaizabal ibaia I	R-T22-HM	18,7	
	ES068MAR002842	Ibaizabal ibaia III	R-T32-HM	7,1	
	ES067MAR002790	Arratia ibaia	R-T22-HM	19,4	
	ES111R074020	Asua-A	R-T22-HM	20,8	
	ES111R074030	Gobelas-A	R-T22-HM	9,5	
	ES111R040010	Deba-B	R-T23-HM	19,8	
	ES111R042010	Deba-C	R-T32-HM	18,1	
	ES111R041020	Ego-A	R-T22-HM	14,4	
	ES111R042020	Deba-D	R-T29-HM	13,1	
	ES111R030020	Urola-B	R-T23-HM	10,8	
	ES111R032010	Urola-D	R-T23-HM	9,7	
	ES020MAR002510	Oria ibaia III	R-T32-HM	8,8	
ES028MAR002662	Oria ibaia VI	R-T29-HM	30,2		
ES026MAR002680	Asteasu ibaia II	R-T23-HM	4,1		
Ibai oso aldatua (urtegia)	ES069MAR002860	Orduteko urtegia	E-T07		1,3
	ES051MAR002700	Maroñoko urtegia	E-T07		0,2
	ES111R040070	Urkuluko urtegia	E-T07		0,8
	ES111R041010	Aixolako urtegia	E-T07		0,2
	ES111R030040	Barrendiolako urtegia	E-T07		0,1
	ES111R031010	Ibaiederko urtegia	E-T07		0,4
	ES020MAR002530	Arriarango urtegia	E-T07		0,1
	ES020MAR002641	Ibiurko urtegia	E-T09		0,4
ES017MAR002460	Añarbeko urtegia	E-T01		1,1	
Tarteko urak	ES111T068010	Nerbioi barrualdea tartekoa	AT-T10-HM		2,5
	ES111T068020	Nerbioi kanpoaldea tartekoa	AT-T10-HM		19,1
	ES111T018010	Urumea tartekoa	AT-T08-HM		1,3
	ES111T014010	Oiartzun tartekoa	AT-T10-HM		1,0

1.4. eranskina. Lurgaineko ur-masa artifizialak

Masaren kategoria	Masaren kodea	Masaren izena	Tipologia-kodea	Luz. (km)	Azal. (km ²)
Aintzira	ES020MAL000060	Lareo	E-T07		0,2
	ES011MAL000070	Domiko	E-T01		0,04

1.5. eranskina. Lurgaineko ur-masak, mugaz gaindikoak

Masaren kodea (ES)	Masaren kodea (FR)	Masaren izena	Masaren kategoria
ES010MAR002420		Bidasoa ibaia III	Ibaia
ES111T012010	FRFT08	Bidasoa	Tartekoa
ES001MAR002320	FRFR273	Olabidea ibaia	Ibaia
ES001MAR002330	FRFR451 y FRFR452	Urritzate-Aritzakun ibaia	Ibaia
ES518MAR002930	FRFR449	Luzaide ibaia	Ibaia

2. ERANSKINA. LURPEKO UR-MASAK

2.1. eranskina. Demarkazio hidrografikoko lurpeko ur-masak

Masaren kodea	Masaren izena	Azal. (km ²)
ES017MSBT013.007	Salvada	66,3
ES017MSBT013.006	Mena-Orduña	399,8
ES017MSBT017.006	Antiklinorioa hegoaldea	1.608,7
ES017MSBT013.005	Itxina	23,4
ES017MSBT013.004	Aramotz	68,6
ES017MSBTES111S000041	Arantzazu	69,0
ES017MSBT017.007	Troia	23,0
ES017MSBT017.005	Sinklinorioa Bizkaia	795,8
ES017MSBT013.002	Oiz	28,8
ES017MSBTES111S000042	Gernika	2,5
ES017MSBT017.004	Antiklinorioa iparraldea	334,0
ES017MSBTES111S000008	Ereñozar	167,2
ES017MSBTES111S000007	Izarraitz	112,4
ES017MSBT013.014	Aralar	77,8
ES017MSBT013.012	Basaburua-Ulzama	212,8
ES017MSBT017.003	Gatzume-Tolosa	327,7
ES017MSBTES111S000015	Zumaia-Irun	214,8
ES017MSBT017.002	Andoain-Oiartzun	141,6
ES017MSBTES111S000014	Jaizkibel	34,0
ES017MSBT017.001	Mendigune paleozoikoak	1.021,1

2.2. eranskina. Beste demarkazio hidrografiko batzuekin partekatutako lurpeko ur-masak

Masaren kodea	Masaren izena	Azal. (km ²)	Beste demarkazio hidrografikoa
ES017MSBT013.007	Salvada	66,3	Ebro

3. ERANSKINA. LURGAINEN UR-MASA NATURALEN KALITATE-ELEMENTUETARAKO EGOERA-MOTA ALDATZEKO MUGAK ETA ADIERAZLEAK

Demarkazioan dauden lurgaineko ur-masa natural motei aplikatzen zaizkien egoera-moten arteko mugak irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuko II. eranskineko A, B, D eta E ataletan eta etorkizuneko berrikuspenetan ezarritakoak dira. Errege Dekretu horren bitartez, lurgaineko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak ezartzen dira, baita ingurumen-arloko kalitate-arauak ere.

817/2015 Errege Dekretuko D eta E idatz-zatietan xedatutakoaren osagarri gisa, egoera-moten arteko muga hauek ezartzen dira tarteko uren eta kostaldeko uren ur-masetako adierazle fisiko-kimikoetarako.

Kategoria	Mota	Tartea (UPS)	Adierazlea	Unitateak	Motaren egoera zehatza	Egoera-motaren aldaketa-mugak (neurria)	
						Oso ona /Ona	Ona/ Neurritsua
Tarteko urak	AT-T08, AT-T09 eta AT-T10	0-5	Oxigenoaren saturazio-tasa	%	81,57	79	66
			Amonioa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	5,69	$\leq 12,5$	≤ 28
			Nitratoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	78,71	≤ 80	≤ 132
			Fosfatoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	1,29	$\leq 2,30$	$\leq 6,2$
		5-18	Oxigenoaren saturazio-tasa	%	86,57	82	71
			Amonioa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	4,69	≤ 11	≤ 22
			Nitratoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	58,71	≤ 61	≤ 98
			Fosfatoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	1,06	$\leq 1,80$	$\leq 4,7$
		18-30	Oxigenoaren saturazio-tasa	%	93,71	88	79
			Amonioa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	3,26	≤ 7	≤ 14
			Nitratoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	30,14	≤ 33	≤ 50
			Fosfatoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	0,73	$\leq 1,00$	$\leq 2,5$
		30-34	Oxigenoaren saturazio-tasa	%	98,28	92	83
			Amonioa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	2,34	≤ 5	≤ 9
			Nitratoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	11,86	≤ 15	≤ 18
			Fosfatoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	0,52	$\leq 0,60$	$\leq 1,1$
Kostaldeko urak	AC-T12	-	Oxigenoaren saturazio-tasa	%	99,71	95	85
			Amonioa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	2,06	$\leq 3,5$	≤ 7
			Nitratoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	6,14	≤ 7	≤ 8
			Fosfatoa	$\mu\text{mol l}^{-1}$	0,45	$\leq 0,55$	$\leq 0,7$

4. ERANSKINA. LURGAINEN UR-MASA OSO ALDATUEN KALITATE-ELEMENTUETARAKO EGOERA-MOTA ALDATZEKO MUGAK ETA ADIERAZLEAK

Demarkazioan dauden lurgaineko ur-masa oso aldatu motei (urtegiak) aplikatzen zaizkien egoera-moten arteko mugak irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuko II. eranskineko C atalean eta etorkizuneko berrikuspeneran ezarritakoak dira. Errege Dekretu horren bitartez, lurgaineko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak ezartzen dira, baita ingurumen-arloko kalitate-arauak ere.

Demarkazioan dauden lurgaineko ibai-kategoriako eta tarteko uren ur-masa oso aldatu motei dagokienez, aplikatzekoak izango dira irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuko II. eranskineko A eta D ataletan jasota dauden lotutako tipologia naturalen erreferentziako baldintzak.

817/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren osagarri gisa, egoera-moten arteko muga hauek ezartzen dira ibaiko ur oso aldatuak eta tarteko ur oso aldatuak kategorietako ur-masetako adierazle biologikoetarako.

Kategoria	Mota	Tartea (UPS)	Adierazlea	Egoera-motaren aldaketa-mugak (KER)	
				Gehieneko potentziala/ Potenzial ona	Potentzial ona/ Potenzial neurritsua
Ibaiak	R-T22-HM	-	METI	-	0,6
			MBi	0,74	0,55
			MBf	0,77	0,57
			IPS	0,81	0,60
	R-T23-HM	-	METI	-	0,6
			MBi	0,79	0,60
			MBf	0,73	0,55
			IPS	0,81	0,60
	R-T29-HM	-	METI	-	0,6
			MBi	0,78	0,59
			MBf	0,77	0,58
			IPS	0,78	0,59
R-T32-HM	-	METI	-	0,6	
		MBi	0,78	0,59	
		MBf	0,77	0,58	
		IPS	0,82	0,61	
Tarteko urak	AT-T08-HM eta AT-T10-HM	0-18	M-AMBI	0,655	0,451
	AT-T10-HM	18-30			
	AT-T10-HM	30-34			
	AT-T08-HM (arrainak eta krustazeoak)	-	AFI	0,655	0,451
	AT-T10-HM (arrainak)	-	AFI	0,655	0,451
	AT-T10-HM	0-5	SPTT-2	0,642	0,323
5-18					
18-30					
30-34					

RCE: Kalitate Ekologikoaren Ratioa. Ur-masan ikusitako balioen eta lotutako tipologia naturalaren erreferentziako baldintzei dagozkien arteko harremana.

METI: ornogabe bentoniko motaren indize multimetriko zehatza.

MBi: Euskadiko ornogabeen indize multimetrikoa (generoa).

MBf: Euskadiko ornogabeen indize multimetrikoa (familia).

IPS: poluosentsibilitate indize zehatza.

M-AMBI: Multivariate-AZTI's Marine Biotic Index – AZTIren itsasoko indize biotiko multimetrikoa.

AFI: AZTIren arrainen indizea - AZTI's Fish Index.

SPTT-2: Spanish Phytoplankton Tool- Transitional, 2. bertsio berrikusia.

UPS: salinitatearen unitate praktikoak.

5. ERANSKINA. EMARI EKOLOGIKOAK

5.1. eranskina. Ibaietako eta urtegiak ur-masen gutxieneko emari ekologikoen banaketa garaiaren arabera

Masaren kodea	Masaren izena	Tartea	Koordenatuak beheko muturra (ETRS 89)		Arroaren azal. (km ²)	Gutxieneko emari ekologikoa (m ³ /s)					
			UTM X	UTM Y		Egoera hidrologiko arrunta			Deklaratutako lehortearen ondoriozko larrialdia		
						Ur altuak	Ur ertainak	Ur baxuak	Ur altuak	Ur ertainak	Ur baxuak
ES111R075010	Barbadun-A	Barbadun 2	490.163	4.794.427	93,8	0,390	0,200	0,120	0,195	0,100	0,060
ES111R075010	Barbadun-A	Tresmoral 1	488.768	4.791.852	12,8	0,054	0,028	0,017	0,027	0,014	0,008
ES111R075010	Barbadun-A	Tresmoral 2	486.742	4.791.880	4,9	0,020	0,010	0,006	0,010	0,005	0,003
ES111R075010	Barbadun-A	Barbadun 3	488.673	4.790.807	48,0	0,201	0,103	0,062	0,100	0,052	0,031
ES111R075010	Barbadun-A	Galdames 1	489.003	4.791.688	20,8	0,087	0,045	0,027	0,044	0,022	0,013
ES111R075010	Barbadun-A	Galdames 2	490.132	4.790.999	19,5	0,082	0,042	0,025	0,041	0,021	0,013
ES111R075010	Barbadun-A	Galdames 3	491.896	4.788.719	4,3	0,018	0,009	0,006	0,009	0,005	0,003
ES111R075010	Barbadun-A	Barbadun 4	487.368	4.789.959	28,3	0,118	0,061	0,037	0,059	0,030	0,018
ES111R075010	Barbadun-A	Barbadun 5	482.923	4.787.988	11,8	0,049	0,025	0,015	0,025	0,013	0,008
ES111R075010	Barbadun-A	Bezi 1	487.943	4.789.921	11,0	0,046	0,024	0,014	0,023	0,012	0,007
ES111R075010	Barbadun-A	Bezi 2	487.296	4.788.401	4,1	0,017	0,009	0,005	0,009	0,004	0,003
ES111R075020	Barbadun-B	Barbadun 1	490.077	4.796.622	101,5	0,480	0,250	0,150	0,240	0,125	0,075
ES111R075020	Barbadun-B	Picón 1	490.952	4.796.745	13,1	0,055	0,029	0,017	0,028	0,014	0,009
ES111R075020	Barbadun-B	Picón 2	492.512	4.795.248	4,8	0,020	0,010	0,006	0,010	0,005	0,003
-	-	Ballonti 1	499.955	4.794.765	8,0	0,040	0,024	0,018	0,020	0,012	0,009
-	-	Triano 1	499.327	4.793.607	17,3	0,087	0,051	0,039	0,044	0,026	0,020
-	-	Udondo 1	501.163	4.796.282	5,4	0,014	0,009	0,006	0,007	0,004	0,003
ES111R074010	Galindo-A	Mespelerrekako urtegia	500.338	4.790.720	23,6	0,136	0,085	0,060	0,068	0,043	0,030
ES111R074010	Galindo-A	Oiolako urtegia	496.240	4.790.828	5,5	0,032	0,020	0,014	0,016	0,010	0,007
ES111R074010	Galindo-A	Galindo 2	500.049	4.792.622	28,4	0,164	0,102	0,072	0,082	0,051	0,036
ES111R074010	Galindo-A	Galindo 3	498.777	4.790.022	19,8	0,115	0,072	0,050	0,057	0,036	0,025
ES111R074010	Galindo-A	Galindo 4	497.643	4.789.159	8,5	0,049	0,031	0,021	0,024	0,015	0,011
ES111R074010	Galindo-A	Oiola 1	498.336	4.789.910	8,5	0,049	0,031	0,021	0,025	0,015	0,011
ES111R074010	Galindo-A	Oiola 2	495.356	4.791.094	3,5	0,020	0,013	0,009	0,010	0,006	0,004
ES069MAR002880	Cadagua ibaia I		478.609	4.775.391	96,1	0,382	0,307	0,216	0,382	0,307	0,216
ES073MAR002900	Cadagua ibaia II		496.078	4.783.372	273,4	1,222	0,925	0,623	0,615	0,466	0,314
ES069MAR002870	Ordunte ibaia I		474.465	4.776.673	35,3	0,144	0,109	0,073	0,144	0,109	0,073
ES069MAR002860	Ordunteko urtegia		476.921	4.778.667	46,5	0,196	0,150	0,099	0,099	0,076	0,050
ES069MAR002850	Ordunte ibaia II		479.461	4.779.419	54,3	0,230	0,176	0,114	0,116	0,089	0,057
ES073MAR002890	Herrerias ibaia		496.078	4.783.372	253,3	0,366	0,157	0,060	0,184	0,079	0,030
ES073MAR002910	Cadagua ibaia III		498.779	4.786.807	552,1	2,483	1,880	1,261	1,250	0,947	0,635
ES073MAR002920	Cadagua ibaia IV		502.252	4.789.774	581,6	2,591	1,959	1,313	1,305	0,986	0,661
ES052MAR002690	Nerbioi ibaia I		501.828	4.775.071	184,1	0,479	0,270	0,124	0,479	0,270	0,124
ES051MAR002700	Maroño Izorriako urtegia		495.483	4.766.172	21,3	0,059	0,031	0,015	0,030	0,016	0,008
ES052MAR002710	Izorio ibaia		499.805	4.770.249	44,5	0,093	0,049	0,022	0,047	0,025	0,011
ES068MAR002841	Nerbioi ibaia II	-	506.357	4.788.081	989,2	5,213	3,866	2,557	2,625	1,947	1,288
ES055MAR002721	Altube ibaia I	-	506.987	4.764.286	55,5	0,155	0,093	0,040	0,155	0,093	0,040
ES055MAR002722	Altube ibaia II	-	504.916	4.777.010	190,7	0,521	0,297	0,118	0,521	0,297	0,118
ES056MAR002730	Zeberio ibaia	-	507.950	4.780.102	48,6	0,161	0,088	0,043	0,081	0,045	0,022
ES060MAR002740	Elorrio ibaia I	-	534.081	4.775.400	33,0	0,204	0,145	0,094	0,103	0,073	0,047
ES059MAR002750	Elorrio ibaia II	-	531.274	4.779.993	86,4	0,509	0,365	0,240	0,509	0,365	0,240
ES059MAR002780	Ibaizabal ibaia I	-	528.611	4.780.660	161,8	1,037	0,754	0,516	0,522	0,380	0,260
ES059MAR002760	Akelkorta erreka	-	532.672	4.779.038	15,2	0,098	0,075	0,053	0,050	0,038	0,027
ES065MAR002810	Ibaizabal ibaia II	-	521.792	4.784.627	226,5	1,467	1,067	0,731	0,739	0,537	0,368
ES064MAR002820	Maguna ibaia	-	526.549	4.781.512	22,9	0,174	0,132	0,096	0,087	0,066	0,048
ES068MAR002842	Ibaizabal ibaia III	-	518.782	4.783.709	254,2	1,650	1,201	0,825	0,831	0,605	0,416
ES065MAR002770	San Migel ibaia	-	521.219	4.786.169	8,8	0,061	0,045	0,032	0,031	0,023	0,016
ES067MAR002790	Arratia ibaia	-	518.781	4.783.710	136,9	0,711	0,543	0,369	0,358	0,274	0,186
ES066MAR002800	Indusi ibaia	-	518.252	4.779.226	49,1	0,284	0,218	0,153	0,143	0,110	0,077
ES067MAR002830	Amorebieta-Aretxabalgane ibaia	-	514.654	4.786.309	34,6	0,198	0,144	0,095	0,100	0,072	0,048
ES111R074020	Asua-A	Araunotegi 1	504.143	4.794.368	12,1	0,061	0,036	0,028	0,031	0,018	0,014
ES111R074020	Asua-A	Araunotegi 2	506.149	4.795.299	5,5	0,028	0,016	0,012	0,014	0,008	0,006
ES111R074020	Asua-A	Asua 1	504.454	4.794.121	56,3	0,284	0,166	0,128	0,142	0,083	0,064
ES111R074020	Asua-A	Asua 2	505.076	4.793.197	53,2	0,269	0,157	0,121	0,134	0,078	0,060
ES111R074020	Asua-A	Asua 3	505.894	4.793.395	51,4	0,260	0,152	0,117	0,130	0,076	0,058
ES111R074020	Asua-A	Asua 4	509.819	4.792.895	30,8	0,155	0,091	0,070	0,078	0,045	0,035
ES111R074020	Asua-A	Asua 5	512.186	4.791.808	7,6	0,038	0,022	0,017	0,019	0,011	0,009
ES111R074030	Gobelas-A	Gobelas 1	499.945	4.796.466	34,6	0,093	0,058	0,040	0,047	0,029	0,020
ES111R074030	Gobelas-A	Gobelas 2	499.966	4.801.098	10,3	0,028	0,017	0,012	0,014	0,009	0,006
ES111R074040	Larrainazubi-A	Larrainazubi 1	500.119	4.799.201	11,2	0,038	0,024	0,017	0,019	0,012	0,008
ES111R074040	Larrainazubi-A	Larrainazubi 2	503.256	4.797.967	5,0	0,017	0,011	0,007	0,009	0,005	0,004
-	Andraka 1	Andraka 1	508.555	4.808.783	8,9	0,044	0,028	0,017	0,022	0,014	0,008

Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.

Masaren kodea	Masaren izena	Tartea	Koordenatuak beheko muturra (ETRS 89)		Arroaren azal. (km ²)	Gutxieneko emari ekologikoa (m ³ /s)					
			UTM X	UTM Y		Egoera hidrologiko arrunta			Deklaratutako lehortearen ondoriozko larrialdia		
						Ur altuak	Ur ertainak	Ur baxuak	Ur altuak	Ur ertainak	Ur baxuak
ES111R048010	Butroe-A	Butroe 4	512.524	4.799.827	91,3	0,454	0,282	0,172	0,227	0,141	0,086
ES111R048010	Butroe-A	Atxispe 1	515.538	4.797.388	16,7	0,083	0,051	0,031	0,041	0,026	0,016
ES111R048010	Butroe-A	Atxispe 2	516.344	4.795.619	14,6	0,073	0,045	0,028	0,036	0,023	0,014
ES111R048010	Butroe-A	Atxispe 3	516.765	4.793.693	4,1	0,020	0,013	0,008	0,010	0,006	0,004
ES111R048010	Butroe-A	Butroe 5	514.579	4.798.288	52,4	0,260	0,162	0,098	0,130	0,081	0,049
ES111R048010	Butroe-A	Butroe 6	517.808	4.796.806	22,4	0,112	0,069	0,042	0,056	0,035	0,021
ES111R048010	Butroe-A	Butroe 7	520.071	4.796.837	12,2	0,061	0,038	0,023	0,030	0,019	0,011
ES111R048010	Butroe-A	Butroe 8	520.633	4.794.757	5,0	0,025	0,015	0,009	0,012	0,008	0,005
ES111R048010	Butroe-A	Larrauri 1	514.579	4.798.288	27,3	0,136	0,084	0,051	0,068	0,042	0,026
ES111R048020	Butroe-B	Butroe 1	506.462	4.803.132	156,0	0,753	0,466	0,278	0,377	0,233	0,139
ES111R048020	Butroe-B	Butroe 2	508.653	4.802.022	134,6	0,650	0,402	0,240	0,325	0,201	0,120
ES111R048020	Butroe-B	Zuzentze 1	510.048	4.802.533	10,9	0,053	0,033	0,019	0,026	0,016	0,010
ES111R048020	Butroe-B	Zuzentze 2	510.132	4.803.869	6,2	0,030	0,018	0,011	0,015	0,009	0,005
ES111R048020	Butroe-B	Butroe 3	512.150	4.801.400	106,9	0,516	0,320	0,190	0,258	0,160	0,095
ES111R048020	Butroe-B	Oleta 1	512.062	4.800.112	11,0	0,053	0,033	0,019	0,026	0,016	0,010
ES111R048020	Butroe-B	Oleta 2	511.275	4.798.856	5,2	0,025	0,016	0,009	0,013	0,008	0,005
ES111R048030	Estepona-A	Estepona 1	515.131	4.807.998	24,4	0,092	0,062	0,031	0,046	0,031	0,015
ES111R048030	Estepona-A	Estepona 2	515.466	4.805.431	9,9	0,037	0,025	0,012	0,019	0,012	0,006
Gaukler-Manning-Stricker-ek proposatutako formulazioa maiz erabiltzen den hurbilketa bat da, eta zehaztasunez dokumentatuta dago oinarri hidraulikoei buruzko HEC-RASen eskuliburuan. Bertan aipatzen dira Chow-en (1959) "Open-channel hydraulics" lan klasikoan material mota desberdinetarako jasotzen diren balio-tarte bereizgarri batzuk. Gaukler-Manning-Stricker-en zimurtasun-

koefizienteetarako balioak honako lan hauetan daude dokumentatuta, besteak beste: Chow (1959), Henderson (1966), Barnes (1967), Streeter (1971) eta USGS, "Guía para seleccionar los coeficientes de rugosidad de Manning en ríos y llanuras de inundación" (1989).

Aipatu behar da Gaukler-Manning-Strickler-en koefizientea faktore ugariaren menpe dagoela; esaterako, gainazalaren zimurtasuna, landaredia, sekzioaren irregulartasunak, meandroak dauden, ibilguaren forma eta zabalera, oztopoak, sakonera eta emaria, eta hondoko jalkinen eta jalkin esekien garraioa.

HEC-RASen hidraulikako erreferentziako eskuliburuan, Gaukler-Manning-Strickler-en koefizienteen zenbait balio-tarte daude gainazal desberdinetarako: segurtasun handiagoa izateko, balio-tarte horien balio ertain-maximoak erabiltzea komeni da. USGSk, bere web-orrian¹, ibilguen zimurtasunaren erreferentzia-balio batzuk argitaratuta ditu, argazkiekin batera, eta argazki horiek lagungarriak dira zimurtasun koefizienteak zenbatesteko.

Bestalde, lehen aipatutako literaturan, Cawen-en metodoa deskribatzen da. Metodo horrek, zimurtasun-koefizientea zenbatestean, beste faktore batzuk ere kontuan hartzen ditu; esaterako, zeharkako sekzioaren aldaketak, ibilguaren irregulartasunak, oztopoak, landaredia eta meandroak. Metodo horrek aukera ematen du xehetasun gehiago sartzeko zimurtasun-koefizienteak zenbatestean; beraz, horixe erabiltzea komeni da, balio minimoak erabili direla justifikatu behar bada.

5.6 Erregimen azkarra

Orain arte deskribatutako metodoa erabilgarria izan daiteke erregimen azkarra eta mistoa definitzeko eta kalkulatzeko. Horretarako, inguru-baldintzak behar bezala aldatuko dira, eta ereditik ibaian gora kokatutako sekzioan baldintza bat finkatuko da. Arazoak erregimen azkarreko uholde-eremuak eta sakonera definitzerakoan sortzen dira; izan ere, erregimen azkarrari dagokion sakonera oso ezegonkorra da, eta uraldiak sortutako edozein oztopok (iraunkorra nahiz aldi baterakoa izan) goragune bat sor dezake eta horrela erregimen azkarretik erregimen mantsora pasatzea ibai-tartearen edozein puntutan.

Bada, azterketa hidraulikoaren emaitzek ez dutenez egoki adierazten zenbateko arriskua dagoen, erregimen azkarreko profil bakoitzarekin lotzen den sakonera dagokion sakonera konjugatua izatea proposatzen da. Sakonera hori automatikoki kalkulatzeko zaila denez, sakonera konjugatutzat honako hau hartzea proposatzen da: profil horretarako energia-kota ken 2,5 m/s-ko abiadurari dagokion energia zinetikoa. Hortaz, energia-kota ken 0,30 metro gisa defini daiteke sakonera, betiere kota hori erregimen azkarrean kalkulatzeko ur-laminaren azpitik ez badago.

5.7 Lehenetsuneko fluxu-gunea

Lehenetsuneko fluxu-gunea mugatzeko, lehenik eta behin, zehaztu egingo da zer eremutan eragin ahal zaizkien kalte larriak pertsoneri eta ondasunei; hau da, zein diren baldintza hidrauliko hauetako bat edo gehiago betetzen dituzten eremuak:

- Sakonera 1 m-tik gorakoa izatea.
- Abiadura 1 m/s baino handiagoa izatea.
- Bi aldagai horien biderkadura 0,5 m²/s baino gehiago izatea.

Hiru eremu horien mugaketa burututakoan, huste biziko bidea zehaztuko da, eta, azkenik, lehenetsuneko fluxu-gunea ere zehaztuko da, aurreko bien inguratzaile gisa.

1 <http://wwwrcamnl.wr.usgs.gov/sws/fieldmethods/Indirects/nvalues/index.htm>

Metodologia horri buruzko informazio zehatza “*Guía Metodológica para el desarrollo del Sistema Nacional de Cartografía de Zonas Inundables*” argitalpeneko 8.2 kapituluari aurki daiteke.

6. LANAREN AURKEZPENA

Atal honetan azterketa hidrauliko batekin batera jaso behar den gutxieneko dokumentazioa adierazten da.

Memorian honako alderdi hauek sartu behar dira, gutxienez:

Azterketa hidraulikoa egiteko hipotesiak eta haien justifikazioa: hautatutako analisi-metodologia, inguru-baldintzak, egituren kalkulu hidraulikoa, zimurtasun-koefizienteen zenbatespena eta erabilitako kalkulu-emariak.

Abiapuntuko datuak: dauden egituren deskribapena, topografia, eredu digitala, airetikako argazkiak eta zeharkako profilak.

Emaitzak: korrontearen ur-mailaren altuera, uholde-arriskuguneen mugak aztertutako itzultze-aldietarako, lehentasunezko fluxu-gunea barne, eta zubietatik zein presetatik gertu lortutako emaitzak.

Eranskinak:

- Topografia: topografia-lanak egin dituen enpresa, profilak, egiturak, zeharkako profilak (erlazio konstantea izan behar dute eskala horizontalaren eta eskala bertikalaren artean)...
- Zimurtasunak: lurzoruaren erabileraren mapak, argazki-dokumentazioa, hautatutako balioak, etab.
- Korrontearen luzetarako profilak.
- Zeharkako sekzioak, ur-mailarekin (eskala horizontalaren eta bertikalaren arteko erlazioak konstante izan behar du).
- Uraldiak hartutako eremuen oinplanoa, aztertutako itzulaldietarako, eta profil bakoitzaren ur-mailaren kota adierazi beharko da, kolore hauek erabiliz:
 - a) 10 urteko itzulaldia: gorria
 - b) Lehentasunezko fluxu-gunea: more koloreko marra jarraia
 - c) 100 urteko itzulaldia: laranja
 - d) 500 urteko itzulaldia: urdina
- Emaitza orokorren eta zubien modelizazioen taulak.
- Lurgainaren eredu digitala.

Dimentsio bakarreko azterketen kasuetan, eredu hidraulikoen fitxategiak, profil geoerreferentziatuekin eta kalkulu-emaitza guztiekin.

Datu geografiko guztiak entregatu beharko dira Administrazio Hidraulikoak informazio geografikoa entregatzeari buruz ezartzen dituen zehazpenen arabera.

15. ERANSKINA. OLGETA-ERABILEREI BURUZKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDAK

Olgeta-erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak egin daitezela bultzatuko da; batez ere, ura kontsumitu gabe erabiltzen duten aisia-jardueretan; hala nola, ur lasaietako uretako kiroletan (bela, windsurfa, arraunketa, motor-ontziak, uretako eskia, etab.) edo ur-amiletakoetan (piraguismoa, raftinga, etab.) eta kirol-arrantzan.

16. ERANSKINA. BALIABIDEAK USTIATZEKO SISTEMAK

Ustiatzeko sistemaren kodea	Ustiatzeko sistemaren izena
ES017SEXP01	Barbadun
ES017SEXP02	Nerbioi- Ibaizabal
ES017SEXP03	Butroe
ES017SEXP04	Oka
ES017SEXP05	Lea
ES017SEXP06	Artibai
ES017SEXP07	Deba
ES017SEXP08	Urola
ES017SEXP09	Oria
ES017SEXP10	Urumea
ES017SEXP11	Oiartzun
ES017SEXP12	Bidasoa
ES017SEXP13	Pirinioetako Ibaiak



Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena. Estatuako Aldizkari Ofizialaren 16. zk-an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

17. ERANSKINA. PUBLIZITATE-BALDINTZA OSAGARRIAK

1. SARRERA

Demarkazio hidrografikoen lurralde-esparrua zehazten duen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretua aldatzen duen urtarrilaren 14ko 29/2011 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki, eta arro-organismoen eta plan hidrologikoen lurralde-esparruak zehazten dituen maiatzaren 8ko 650/1987 Errege Dekretuaren arabera, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren uraren plangintza eta kudeaketa Estatuko Administrazio Orokorrarekin koordinatuta egin beharko da, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin koordinatuta, agintaritzaren hidrauliko eskudunaren bitartez (Uraren Euskal Agentzia). Errege Dekretu honek zehazten duenari jarraiki, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa egiterakoan administrazio publiko eskudunen plan hidrologikoak eta neurrien programak harmonikoki barne hartu beharko dira.

Ondorioz, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren prozedura bete du demarkazio hidrografikoko erkidego-artearen ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, baita Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko arroetan ere, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra betez eta plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeari jarraiki.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26.2 artikulua ondokoa xedatzen du: "Hamabost laneguneko epean, plana edo programa abian jarritako edo onetsitako egunetik zenbatzen hasita, agiri hauek bidaliko ditu, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko:

- a) Plana edo programa abian jartzeko edo onesteko ebazpena, eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jarriko duen helbide elektronikoen aipamena.
- b) Honako alderdi hauek kontuan hartuko dituen laburpena:
 - Nola integratu diren planean edo programan ingurumenari dagozkion alderdiak.
 - Planean edo programan nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak (mugaz gaineko kontsultak ere barnean hartuta, halakorik balego) eta ingurumen-adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izanez gero.
 - Hautatutako aukera hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako aukerekin alderatuta.
 - Planaren edo programaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak".

Bestalde, 211/2012 Dekretuaren 15. artikuluan haxe ezarri da:

Dagokion plana edo programa onartu ondoren, organo sustatzaileak ingurumen-organoiari, tartean diren administrazio publikoari eta interesa duten herritarrei jakinaraziko die beren esku eta herritarren esku jarriko direla honako agiri hauek baliabide elektronikoen bidez:

- a) Onartutako plana edo programa.
- b) Honako alderdi hauek laburbilduko dituen adierazpena:
 - a. Nola integratu diren planean edo programan ingurumenari dagozkion alderdiak.
 - b. Nola hartu diren kontuan ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena, kontsulten eta jendaurreko informazioaren emaitzak eta ingurumen-memoria, bai eta, dagokionean, prozesuan sortu diren desadostasunak ere.
 - c. Onartutako plana edo programa aukeratzeko izan diren arrazoiak, aztertu diren beste aukerekin alderatuta.
 - d. Planaren edo programaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak.
- c) Aurreko b) eta c) idatzi-zatietan jasotako agirien laburpen ez-teknikoa.

21/2013 Legearen 26.2. artikulua a) atala beteta geratuko da errege dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Errege dekretu honen hirugarren xedapen gehigarrian adierazten da zer helbide elektronikoren bitartez ikus daitekeen planen eduki osoa.

211/2012 Dekretuaren 15. artikulua betetzeko, Uraren Euskal Agentziak, bere web orriaren bitartez, jendearentzat nahiz ingurumen-organorentzat, eraginpeko administrazio publikoentzat eta interesdunentzat eskuragarri jarriko du artikulua horretan aipatzen den dokumentazioa.

Ondorengo orrialdeetan, aipatutako arauen b) eta c) ataletan adierazi den edukia jaso da.

2. PLAN HIDROLOGIKOAN EDO PLAN HORRETAKO NEURRIEN PROGRAMAN INGURUMEN-ALDERDIAK TXERTATZEAREN EMAITZA

Jarraian, laburbilduta identifikatu dira Plan Hidrologikoan (2015-2021) plangintza hidrologikoa egiteko prozesuan ingurumen-alderdiak nabarmenkiago txertatzeko arreta berezia jaso duten edukiak.

Besteak beste, hiru alderdi azpimarra daitezke, beren garrantziagatik: **Natura 2000 Sarearen** kudeaketatresnak eta helburuak plangintza hidrologikoan jasotzea; plangintzaren lehenengo zikloan ur-masen egoera **narriatzea prebenitzeko** martxan jarri ziren politikak finkatzea; eta plangintzaren oinarri diren eta **arazoan identifikazioa, egoeraren diagnostikoa eta konponbideen zehazpena** oinarritzen dituzten elementuen arteko harremani garrantzi berezia ematen jarraitzea.

Plangintza-ziklo honetan zehar gehienbat garatzen den alderdi garrantzitsu bat da **Natura 2000 Sareko** eremuak mantentzeko arauak eta helburuak plangintza hidrologikoan sartzea. Eremu horiek dira uraren egoera mantendu edo hobetzea faktore erabakigarri gisa duten habitat edo espezieak babesteko izendatu direnak. Bi plangintzak uztartu behar direnez, plan hidrologikoak eta KBEak kudeatzeko tresna asko modu koordinatuan landu dira. Horren harira, eremu biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen eta horiek babesteko neurriak onartzen dituen (Euskal Autonomia Erkidegoa) urriaren 16ko 215/2012 Dekretuak honakoa argitzen du: “*Kontserbazio Bereziko Eremuen –Dekretu honetan izendatzen direnen– ezaugarri bereziak direla-eta, (...) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren lanketari lotuta prestatu dira dokumentuak*”).

Natura 2000 Sarea honela txertatu da plangintza-ziklo honetan:

- **Natura 2000 Sarean** dauden eta urarekin erlazionatuta dauden eremuak **Babestutako Eremuen Erregistroan** sartuz, araudi aplikagarriak ezartzen duenari jarraiki.
- **Araudian**, funtsean 9. eta 49. artikuluen bitartez, Natura 2000 Sarearen helburuak sartuz eta eremu horiek babestearen harira eskumenak dituzten agintaritzekin koordinatzeko mekanismoak txertatuz.
- **Neurrien Programan**, baldintza osagarriak sartuz eta Natura 2000 Sareko eremuak kudeatzeko tresnak onartzen dituzten eta plangintza hidrologikoarekin erlazionatuta dauden dekretu autonomikoetan jasotako jarduerak aintzat hartuz.

2009-2015 zikloko Plan Hidrologikoak funtsezkotzat jo zuen **prebentzio-neurriak hartzea** demarkazioko **ur-masak narriatzea prebenitzeko**. 2015-2021 aldirako PHaren berrikuspenarekin estrategia hori finkatu da, bere Araudian neurri horiek hobetuz eta osatuz, bereziki Jabari Publiko Hidraulikoaren eta Itsasoaren eta Lehorren arteko Jabari Publikoaren Babesari buruzko Kapituluak. Honako alderdi hauek azpimarragarriak dira:

- **Lurgaineko ur-masen morfologia narriatzea prebenitzea**. Narriadura hori prebenitzea helburu duten xedapenen artean, azpimarratzekoak dira, beren eraginkortasunagatik, Plan Hidrologikoaren eta Uholde-arriskuaren Kudeaketa Planaren arteko koordinazioan eta erabateko inbrikazioan oinarrituta daudenak, bi planen helburu guztien bateragarritasuna ziurtatzeko mekanismo bakarra delako. Horren harira, planek alderdi hauek barne hartzen dituzte, besteak beste:
- Uholde-arriskupeko eremuetako erabileren mugak. Muga horiek uholde-arriskua murrizten laguntzen dute, eta gainera, tresna erabakigarria dira lurgaineko ur-masen eremu aldatugabeen baldintza morfologikoak mantentzeko.
- Arriskupean dauden hiri-eremu finkatuetan bakarrik hartzea egiturazko neurriak. Gainera, neurri horien alternatibak eta kostua/eraginkortasuna xeheki aztertu dira, ur-masa bakoitzaren ingurumen-helburuekin ahal bezain modurik bateragarrienean diseinatuz.
- **Isurketak**. Demarkazioko lurgaineko eta lurpeko ur-masen ingurumen-helburuak erdiestea ziurtatzeko arau zehatzak jaso dira.
- **Emari ekologikoak**. Uraren Esparru Zuzentzarauak ez ditu emari ekologikoen erregimenak ezarri nahi, baina emari ekologikoak zehaztu, ezarri eta mantentzea nahitaezkoa da ur-masak egoera onean mantentzea lortzeko, eta helburu eta printzipio hori da Uraren Esparru Zuzentzarau osoaren ardatz nagusia. Plangintzaren lehenengo zikloan jada lurgaineko ur-masa guzti-guztien emari ekologikoen erregimenak ezarri ziren (tarteko urenak ere bai), eta bigarren zikloan berrikusi egin dira, eta egokia izan denean egokitu egin dira, eskuragarri dagoen azken informazioa kontuan hartuz. Garrantzitsua da azpimarratzea, gainera, plan hidrologikoak baldintza zehatzak ezartzen dituela biztanleriaren hornidura nagusitzeko, emari ekologikoari dagokionez.

- Demarkazioko sistema jakin batzuetan lehorte-adierazle eta -atalase berriak ezarri dira, emari ekologikoen erregimen berriekin eta egungo ur-eskaeren unitateekin bat etorriz.
- Babes-mekanismo zehatzak ezarri dira Babestutako Eremuen Erregistroko esparru jakin batzuetarako.

Bigarren zikloko Plan Hidrologikoak berriro ere garrantzi berezia eman dio plangintzaren oinarrian dauden elementuen arteko harremanei. Elementu horiek, osotara, **arazoen identifikazioa, egoeraren diagnostikoa eta konponbideak** osatzen dituzte. Plan Hidrologikoko kapitulu bakoitzean zehazten dira presioen, egoeren, neurrien, ingurumen-helburuen eta salbuespenen arteko harreman horiek. Nolanahi ere, XV. Eranskinen jaso dira argiago. Eranskin horretan, masa bakoitzerako fitxa bat jaso da, eta fitxa horretan alderdi hauek bildu dira: ur-masaren ezaugarriak, presio eta eraginaren analisia eta arriskuaren ebaluazioa, egoeraren ebaluazioa (ekologikoa, kimikoa eta guztizkoa) eta horren ebaluazioa denbora joan ahala, ingurumen-helburuak eta salbuespenak, kontrolako programak, eta Programan, kasuan kasu, helburuak betetzeko aurreikusi diren neurriak.

Plangintzaren oinarriko elementuen harira, Plan Hidrologikoak (hala 2009-2015 ziklokoak nola 2015-2021 ziklokoak) badu alderdi sendo bat: nabarmenki garatuta dauden jarraipen-sareak dauzkala. Azken urteotan, sare horiek kontrolatzeko ahalegina mantendu da, eta sareek ur-masen egoera zehatz-mehatz definitzea ahalbidetu dute, baita ur-masek denbora joan ahala izan duten bilakaera eta martxan jarri diren neurrien eraginkortasun-maila ikustea ere.

Aipatutako hiru alderdi horiez gain, gailentzekoak dira, era berean, ondorengo hauek:

- **Ur-masak mugatzean** kontuan hartu da eremu babestuak dauden, eta bereziki, Natura 2000 Sarearen barruko eremuak dauden.
- **Urek baldintza naturaletan dituzten oinarriko ezaugarrien** harira, planean demarkazioko ur-masa mota guztien erreferentziako baldintzak jaso dira, eta 817/2015 Errege Dekretu berrian jaso ez diren adierazle sistema batzuentzat balioak osatu dira, egokia izan denean.
- 2033 horizonteari dagozkion balantzeak kalkulatzekoan kontuan hartu da **klima-aldaketak** ur-baliabide naturaletan epe luzera izan lezakeen eragina. Horren harira, "Klima-aldaketak ur-baliabideetan eta ur-masetan izango dituen eraginak" (CEDEX, 2012)² azterlana aintzat hartu da. Bertan, Demarkazio honetako baliabide naturalak % 11 murriztuko direla aurreikusten da.

PHaren Memoriaren atal batean **ur-aztarnaren** analisia jorratzen da, baliabide naturalen erabileraren iraunkortasunaren inguruko adierazlea baita. Lehenengo hurbilketa baten arabera, ur-aztarna estandarra 2.308 m³-koa da biztanle eta urteko.

ULTBaren 99 bis artikulua arabera, **babestutako eremuen erregistroa** eguneratu egin da. Plangintzaren bigarren ziklo honetan, arreta handiagoa eskaini nahi zaie eremu babestu jakin batzuetako helburuen betearazpenari, lehenengo zikloan lortu diren emaitzak aintzat hartuta. Eremu babestuak kontrolatzeko programak azpiprograma hauek barne hartzen ditu:

- a) Eremu sentikorren kontrola.
- b) Bainatzeko eremuen kontrola.
- c) Hornidurarako ur-hartuneen eremuen kontrola.
- d) Habitaten eta espezieen babesguneen kontrola.

Ur-masen egoeraren balorazioari dagokionez, ur-masa guztien % 66 daude egoera/potentzial onean (158 ur-masen arteko 104).

Planean demarkazioko ur-masen **ingurumen-helburuak** zehaztu dira, baita lehen aipatutako presioen/eraginaren/arriskuaren/neurketarako eskemaren arabera helburu horiek betetzeko aurreikusitako epeak ere. Helburu orokorren salbuespenak minimizatu egin dira, betiere ikuspuntu errealista batetik, ingurumen-helburuak erdiesteko epeetan luzapenak aplikatuz 42 kasutan. Salbuespen bakarra aurreikusi da Uraren Esparru Zuzentzarauko 4.7. artikulua harira, eta ez da helburu malguagorik planteatu inolako ur-masatan. 2027an demarkazioko ur-masen % 100ek egoera/potentzial ona lortzea espero da. Aipatutako helburuak erdiesteko, neurririk egokienak konbinatu dira, kasuan kasuko alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak aintzat hartuz. Gainera, neurri-multzoa aukeratzekoan kontuan hartu dira, ahal izan den kasuetan, kostuaren eta eraginkortasunaren analisiaren emaitzak, baita beste ingurumen- eta gizarte-arazo batzuen gaineko eragina ere.

Uraren zerbitzuak eskaintzarekin erlazionatutako **ingurumen-kostua** zenbatetsi da eta kostuak berreskuratzeko analisisan sartu da. Ur-zerbitzu baten kostuak berreskuratzeko gradua baloratzearen harira, ingurumen-kostua da ur-zerbitzuak eragindako kaltea ezeztatuz ur-masaren egoera edo potentziala berreskuratzeko duen kostu osagarria.

² http://www.magrama.gob.es/es/agua/temas/planificacion-hidrologica/planificacion-hidrologica/EGest_CC_RH.aspx

Plan hidrologikoaren menpeko planen artean, aipatzekoak dira lehorte- eta uholde-egoerak kudeatzeko planak; PHlan ezartzen den bezala. Demarkazio honetarako, lehorte-alerta kasuan eta lehorte posibleetan jarduteko Plan Berezi bat dago, **Lehorterako Plan Berezia** (LPB) deritzona, martxoaren 21eko MAM/698/2007 Aginduaren bitartez onartu zena. Plan Hidrologikoaren 2015-2021 berrikuspen honetan, lehorte-adierazle eta -atalase berriak proposatu dira Demarkazioko sistema jakin batzuetarako, emari ekologikoen erregimen berriekin eta egungo ur-eskaeren unitateekin bat etorritik.

Uholdeei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barruan historikoki kalte gehien (kalte materialak nahiz hildako pertsonak) eragin dituen arrisku naturala uholdea da. Horregatik, tradizionalki plangintza hidrologikoaren alderdirik garrantzitsuenetakoa bat izan da. Gaur egun, eremu honetako plangintzaren erronkarik handiena uholde-arriskua murriztea da, eta aldi berean, lurgaineko ur-masaren baldintza morfologikoen hobekuntzarekin bateragarritasun handiena lortzea. Horren harira, 2015-2021 **Uholde-arriskuaren Kudeaketa Plana** (UAKP) eta Plan Hidrologikoaren berrikuspenera osoki koordinatu eta uztartu dira, helburu guztiak erdiestea ziurtatzeko. Integrazio-lan honek araudia nahiz neurrien programa barne hartu ditu; are gehiago, Uholde-arriskuaren Kudeaketa Plana Plan Hidrologikoaren XVI. eranskina da.

Era berean, prozesuaren beste helburu handi bat bete da, hau da, gardentasuna eta **jendearen parte-hartzea** bultzatzea, planifikazio-prozesuaren inguruko informazioa eskuragarri jarri eta uraren kudeaketarekin erlazionaturako eragileek eta jendeak, oro har, parte har dezala ahalbidetzeko ekimenen bitartez. Ukitutako Administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egin zaizkie hala hasierako dokumentu estrategikoari eta ingurumeneko iraunkortasun-txostenari/ingurumeneko azterketa estrategikoari buruz, nola Plan Hidrologikoaren dokumentuei buruz.

3. PLANEAN EDO PROGRAMAN HONAKOAK AINTZAT HARTZEKO APLIKATU DEN PROZEDURA: INGURUMENEO IRAUNKORTASUN-TXOSTENA/INGURUMENEO AZTERKETA ESTRATEGIKOA, INFORMAZIO PUBLIKOAREN ETA KONSULTEN EMAITZAK, KASUAN KASU MUGAZ GAINDIKO KOLTSULTAK BARNE, ETA INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA / INGURUMEN-MEMORIA, BAITA, KASUAN KASU, PLANGINTZAREN PROZESUAN ZEHAR IZAN DIREN DESADOSTASUNAK ERE

Plan honek ukitzen dituen administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsultarako eta kontsulta publikorako 2014ko abenduaren 31tik aurrera sei hilabetez kontsultagai egon ziren dokumentuak hobetzeko hainbat aukera identifikatu dira. Guztira 88 dokumentu jaso ziren proposamenekin, iruzkinekin edo iradokizunekin, eta erantzun-txostenetan analizatuta geratu ziren. Plan Historiko (XI. eranskina) honen dokumentazioa lortzeko helbide elektronikoen bitartez ikus daitezke.

Estatuaren eskumen-esparrurako, Ingurumeneko Adierazpen Estrategikoak (Ingurumen-arloko Estatuko idazkariaren ebazpenaren bitartez onartu zen, eta 2015eko irailaren 22an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen) hainbat ingurumen-zehazpen jaso ditu ondorengo alderdi hauei buruz:

- Planen aplikazioa zuzendu behar duten irizpide orokorrak
- Ur-masen egoeraren zehazpena
- Ingurumen-helburuen zehazpena
- Neurrien programa
- Natura 2000 Sareko lehorreko eta itsasoko eta babestutako eremuen gaineko eraginak
- Uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzea
- Ingurumen-arloko jarraipena

Zehazpen horietako batzuk Plan Hidrologikoan aplikatu behar dira, eta horregatik, horiek burutzeko atazak Neurrien Programan jaso dira. Beste kasu batzuetan, epe ertainerako konpromisoak dira, eta 2021aren bukaerarako aurreikusten den berrikuspenera islatu beharko liriteke.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenen esparrurako, Ingurumen-memoriak (Ingurumen-administrazioaren zuzendariak 2015eko irailaren 10ean hartutako erabakiaren bidez formulatua eta ondoren EAEko Aldizkari Ofizialean argitara emana) alderdi hauen inguruko hainbat ingurumen-zehazpen jaso ditu:

- Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak (D1).
- Ingurumen-arloko jarraipen-plana (D2).
- Planean ez da ikusi aldatu edo ezabatu behar den jarduerarik (D3).
- Planetik eratorritako planen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa egiteko jarraibide orokorrak (D4).

Ingurumen-memoria horrek Planaren proposamenen ingurumen-alderdiak txertatzearen aldeko balorazioa egiten du, Plana aplikatzearen eragin garrantzitsuen aurreikuspenaren inguruko iritzia azaltzen du, ados

dago Ingurumeneko Iraunkortasun-txostenaren ondorio nagusiekin eta ingurumen-arloarekin bakar-bakarrik erlazionatuta sartu behar diren azken zehazpenak jaso ditu.

Ingurumen-memoria honela txertatu da Planean:

- Ingurumeneko Iraunkortasun-txostenera gehitu dira ingurumen-arloa txertatzeko neurri guzti-guztiak, ingurumen-memoriaren D.1 atalean jaso direnak, eta Planaren egiturazko neurrien programan jasotako ekintzak planifikatu, diseinatu eta gauzatzeko aplikatuko dira.
- Ingurumeneko Iraunkortasun-txostenean jasotako adierazleen sistema zabaldu egin da berreskuratze- eta birgaitze-jarduerak izan dituzten azalaren inguruko adierazlearekin, eta, zehazki, Natura 2000 Sarearen barruko eremuen azalerekin.
- Ingurumen-txostenak Plana garatzen duten agiriaren ingurumen-ebaluaziorako ezartzen dituen irizpide orokorrak jaso dira.

Ingurumen-memoriak jaso dituen gainerako zehazpenak Ingurumeneko Iraunkortasun-txostenean jasota zeuden jada.

4. HAUTATUTAKO AUKERA HAUTATZEKO ARRAZOIAK, AINTZAT HARTUTAKO GAINERAKO AUKEREKIN ALDERATUTA

Estatuaren eskumenen esparruan, aukerarik egokiena hautatzeko, 0 aukera bat hartu da aintzat, edo joerazkoa; aukera hori demarkazioko Plan Hidrologikoa berrikusiko ez balitz eta Uholde-arriskuaren Kudeaketa Planik aplikatuko ez balitz arazoan joera berdina mantenduz izango litzatekeen bilakaera izango litzateke. Gainera, 1 aukera ere aintzat hartu da desbideraketak izan dituzten, aurreko zikloan aurreikusitako jardueren egutegia doitu zaien eta jarduerak gauzatu ez diren kasuetarako (aurrekontu-eskuragarritasunaren harira aurreikusten den bilakaera aintzat hartuz), eta gehiago zehazteko oro har planteatu direnak edo aurreikusitako neurri batzuk aldatzeko edo/eta beste batzuk gehitzeko, egokitzat jotzen bada, ezarritako helburuak erdiesteko.

Plangintza hidrologikoaren ingurumen-helburuen eta helburu sozioekonomikoen betearazpena kontuan hartuz egin den analisiaren emaitzak eta ingurumen-adierazle estrategikoen aldetik aurreikusten den erantzuna aintzat hartuz, proposatutako aukera bakoitzak abantaila eta eragozpen hauek ditu:

Aukera	Abantailak	Eragozpenak
0 auk.	Aurreikusitako helburuak atzerapenik gabe beteko dira	Ez dator bat egungo testuinguruarekin, egoera desbideratu egiten da, aurreikusitakoarekin alderatuta
1 auk.	Betearazpen-maila areagotu egingo da neurri berriak sartzean, esaterako, 91/271 Zuzentarauarekin bat ez datozen aglomerazioetan saneamendu sistemak birmoldatzea	Zailtasunak daude neurriak aurreikusten diren muga ekonomikoetara egokitzeko

Ingurumen-helburuak erdiestearen harira, 1 aukerak jokabide hobea du 0 aukerak baino; izan ere, 0 aukerak ez du ematen lehen zikloko neurrien programa osoki eta aurreikusitako epean aplikatzeko aukera.

Nolanahi ere, 1 aukerak doikuntza bat proposatzen du neurrien programa egia bihurtzeko, eta betearazi ahal izango da; horregatik, bere ingurumen-lorpenak 0 aukerarekin baino hobekiago izango dira.

Horregatik guztiagatik, 1 aukera hautatu da, eta hori garatuko da plan hidrologikoaren berrikuspenean nahiz uholde-arriskuak kudeatzeko plan berrian.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, oro har, arazo bakoitzerako konponbide posibleen planteamenduak dagoeneko martxan dauden ekintzak hartu ditu aintzat, lehenengo eta behin, baita demarkazioaren barruan eskumenak dituzten administrazioek aurreikusitako planak eta programak ere. Neurrien Programan sar daitezkeen beste konponbide posible batzuk planteatu dira, indarrean dauden neurriak edo aurreikusten direnak lortu nahi diren helburuak betetzeko nahikoa ez badira ere. Bigarren plangintza-zikloaren eta lehenengoaren (2009-2015) arteko desberdintasuna da bigarrenak aurreitazio plan bat eta haren neurrien programa dauzkala eta orain lortu nahi diren helburu bera betetzera bideratuta daudela, eta ondorioz, Planaren berrikuspen honen abiapuntu izan behar dute.

Aintzat hartu diren aukerak, nolanahi ere, arazoizkoak eta bideragarriak izan dira ikuspuntu teknikitik, ingurumenetik, ekonomiketik eta gizartearenetik. Aintzat hartu den aukeretako bat **zero aukera** izan da,

hau da, indarrean dagoen Planaz gain neurri osagarririk ez jartzeko aukera, edo bestela esanda, kasuan kasuko gai garrantzitsuen harira zer gertatuko zatekeen Plan Hidrologikoaren berrikuspena egin ezean, eta aurreikusitako epe guztiak betez.

Dagoeneko desbideratzeak izan dituzten kasuetan, **1 aukera** ere aintzat hartu da aurreko zikloan aurreikusi ziren eta gauzatu ez diren jardueren egutegia doitzeko (aurrekontu-eskuragarritasunaren harira aurreikusten den bilakaera aintzat hartuz), eta gehiago zehazteko oro har planteatu diren jarduerak edo aurreikusitako neurri batzuk aldatzeko edo/eta beste batzuk gehitzeko, egokituz jotzen bada.

Gainera, kasu batzuetan beste aukera bat ere aintzat hartu da (**2 aukera**), kasuan kasuko gai garrantzitsuentzat beste egoera posible batzuk baloratzeko aukera ematen duena. Jarduerak birplanteatu egin dira eta puntualki neurri berriak proposatu dira, tokirik arazotsuenetan edo alderdirik beharrezkoenekin erlazionatuta duela gutxi egin diren azterketen bidez zehaztutako neurri berriekin. Kasuren batean, egokia bada, Plan Hidrologikoan planteatutako neurrien bat baztertu da.

Jarduteko aukera bakoitzerako balorazio bat egin da bere ezaugarri sozioekonomikoen eta ingurumen-erlokoren bitartez. Jarduera posibleen hasierako planteamendua egin da, Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioaren arabera kostuaren eta eraginkortasunaren analisi xehearen ondorioz aldaketak izan ditzaketela aintzat hartuz.

Gai garrantzitsu bakoitzerako aukerarik egokiena hautatu da besteak beste lehenengo plangintza-zikloan bakoitzarentzat planteatu ziren ingurumen-helburuak zer mailatan bete diren eta administrazioek dituzten aurrekontu-aurreikuspenak aintzat hartuz. Neurriak planteatzeko irizpide metodologikoa, funtsean, Uraren Esparru Zuzentarauko helburuak betetzean oinarritu da, baita Babestutako Eremuen Erregistroko eremuak kudeatzeko dokumentuetan jasotako kontserbazio-arauak eta -helburuak betetzean eta ur-masa bakoitzaren egoera ona erdiestean ere.

Dauden arazoak konpontzeko ekintza-aukera posibleen balorazioarekin, Plana oinarritzen duten erabaki eta jarraibide jakin batzuk zehaztu dira.

Oro har, analisi honen ondorioa da ahaleginak bikoiztu egin behar direla gairik garrantzitsuenetan, aurreko zikloan hartu diren neurrien inguruko alderdi batzuk zehaztu behar direla, eta beren garapenean sakondu behar dela, eta hala ere ez dela beharrezkoa jarduera-ildo horien mamia aldatzea.

Gai garrantzitsuen artean, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren esparruan plangintza hidrologikoaren helburuak erdiesteko garrantzitsuenak, horietako askok azken urteotan izan duten aurrerapen-maila azpimarragarria gorabehera, aurreko zikloan jada identifikatu zirenak dira:

- **Hiritako eta industrietako hondakin-urak isurtzearen ondoriozko kutsadura-iturri puntualek** eragindako presioa arintzeko balio duten saneamendu eta arazte sistemak kudeatu, mantendu, egokitu eta hobetzea.
- Sistema jakin batzuetan **hiri-horniduraren bermea** hobetzea eta beste batzuetan beren kalteberatasuna murriztea. Era berean, **gehiagizko erazketen** ondorioz erregimen hidrologikoan eragindako aldaketak arindu behar dira. Aipatutako alderdi guztiak modu integratuan tratatu dira **emari ekologikoen** erregimenak ezartzeko prozesuarekin eta klima-aldaketaren inguruko azken aurreikuspenak kontuan hartuz.
- **Uretako ingurunearen aldaketa fisikoaren** harira, ur-masa bakoitzaren gaineko helburu zehatzak eta berreskuratzeko lehentasunen zehazpenean sakontzea hainbat alderdi aintzat hartuz (hala nola beren ingurumen-balioak eta uholde-arriskuak), baita Natura 2000 Sarerako onartutako kudeaketa-tresnetan xedatutakoa ere, eta espezie inbaditzaileak kontrolatzeko plan integratuak prestatzea.
- **Uholde-arriskua murriztea**, bereziki arrisku hau handiagoa den eremuetan, onartutako Plan Hidrologikoan ezarritako erreferentziazko esparruan. Plan Hidrologikoak egiturazkoak ez diren neurrien konbinazioan oinarritutako politikak finkatzen ditu (erabilerak uholde-arriskuaren arabera antolatzea, informazio hidrologikoko sistemak eta ohartarazpen goiztiarrekoak, babes zibilerako neurriak, etab.), eta egiturazko neurriak hartzen ditu arriskupeko hiri-eremu finkatuetan bakarrik, eta horrela lehen aipatutako epe luzerako erronkekin erlazionatuta dauden helburuak bateratzea ahalbidetzen da (uholde-arriskua eta ur-masak fisikoki aldatzea, alegia), eta hiri-ezarpen berriak ibaitik nahikoa urrunduz narriadura morfologikoa geldiarazten da eta aldi berean uholde-arriskuaren ikuspuntutik eremu seguruak lortzen dira, eta uholdeetatik defendatzeko egiturazko neurriak ur-masen ingurumen-helburuekin ahal bezain bateragarriak izan daitezten diseinatzen dira.

5. INGURUMENEAN PLANAREN EDO PROGRAMAREN APLIKAZIOAREN JARRAIPENA EGITEKO HARTUTA NEURRIAK

Uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Plangintza Hidrologikoaren Araudiaren III. titulua plan hidrologikoen jarraipena eta berrikuspena egiteari buruzkoa da. Zehazki, 87. eta 88. artikuluek jarraipena egiteko irizpide orokorrak ezartzen dituzte eta jarraipen zehatza izan behar duten alderdiak zehazten dituzte.

Gainera, **Estatuaren eskumenen esparruan** eman den Ingurumeneko Adierazpen Estrategikoak zehazki jarraipenaren inguruko zehazpen batzuk barne hartzen ditu, besteak beste hasieran Erreferentziako Dokumentuan planteatu zen eta Ingurumeneko Azterketa Estrategikoan zehaztu zen adierazleen koadroaren erabilpena (jarraian jaso da).

Horren guztiaren ondorioz, Kantauriko Konfederazio Hidrografikok gutxienez urtebeteko maiztasunarekin emango die informazioa Demarkazioko Uraren Kontseiluari eta uraren gaineko eskumenak dituen Ministerioari. Era berean, agiri hau argitaratzen denetik hiru urteko epean (eta edozein kasutan ere 2018a bukatu baino lehen), aurreikusitako neurrien programaren aplikazio-maila zehazten duen tarteko txosten bat aurkeztuko da.

Ingurumen eko elementua	Adierazleak	Iturria	Balio eguneratua -2013	2015			2021			2027		
				Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)	Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)	Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)
Airea-klima	1. Isuritako BEGak guztira (Gg CO ₂ -baliokidea)	Isurtzeen inbentario nazionala	13.980									
	2. Nekazaritzan isuritako BEGak (Gg CO ₂ -baliokidea)	Isurtzeen inbentario nazionala	77,26									
	3. Erregimen arruntean sortutako energia hidroelektrikoa (GWh/%)	DPH	224,7%/0,95									
	4. 1980/81-2009/10 segidaren ekarpen natural osoari dagozkion baliabide hidriko naturalak (hm ³)	DPH	4461		4461		4461			3970,29		
	5. Azken bost urteetan lehorteagatik eragindako larrialdi-egoerak	DPH	0		0							
	6. Azken bost urteetan uholde larri gisa katalogatutako gertaera kopurua	UAKP	18 (2005-2010 aldia) Bi demarkazioak barne, ekialdekoa eta mendebaldekoa		18 (2005-2010 aldia)							
Landaretza, Fauna, ekosistema k, biodibertsitatea	7. Demarkazioko BERean sartutako Natura Sareko eremu-kopurua	DPH	42		45							
	8. BERean sartutako Ibai Erreserba Naturalen kopurua	DPH	6		6							
	9. BERean sartutako Babes Bereziko Eremuen kopurua	DPH	56		85							
	10. BERean sartutako hezegune kopurua	DPH	66		66							
	11. Emari ekologikoen erregimenaren kontrolgune kopurua	DPH	7		7		NPan 15 neurri jaso dira					
	12. Natura 2000 Sareko emari ekologikoen kontrolguneen %											
	13. HMWB gisa sailkatutako ibaiko ur-masen %	DPH	15,22		15,22		15,22			15,22		
	14. HMWB gisa sailkatutako lakuko ur-masen %	DPH	0									
	15. Desagerrazitako zeharkako oztopo kopurua	DPH										
	16. Presioen inbentarioan identifikatutako zeharkako oztopo kopurua	DPH	532		532		NPan 8 neurri jaso dira					

Ingurumen eko elementua	Adierazleak	Iturria	Balio eguneratua -2013	2015			2021			2027		
				Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)	Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)	Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)
	17. Arrainen migrazioarako egokitutako zeharkako oztopo kopurua	DPH			Npan 7 neurri jaso dira							
	18. Zeharkako oztopen egokitzapenaren/ezetap enaren bidez konektatutako ibai km-ak											
	19. Ur-masen luzera, ibaien tipologia, ibai berrezarpena egin den tokietan (km)	DPH	107,6		107,6		107,32			55,2		
	20. Urtegien bidez urperatutako azalera (ha)	DPH	453,1		453,1		453,1			453,1		
	21. Natura 2000 Sarean eragina duen aurreko adierazlearen %											
	22. Espezie exotiko inbaditzaileen eraginpeko ur-masen %											
	23. Espezie jakin batekiko %											
	24. Beste espezie jakin batekiko %											
Ondare geologikoa, lurzorua eta paisaia	25. Basamortutzeko arrisku oso handiko lurzoruaren azalera (ha)	PAND	0		0							
	26. Hiri-lurzoruaren azalera (ha)	MAGRAMA	198 km ²									
	27. Defentsa longitudinalen ezetapen km-ak											
	28. Presioen inbentarioan identifikatutako defentsa longitudinal kopurua	DPH	185		Npan 53 neurri jaso dira							
	29. Defentsa longitudinalen atzera-emanguneen km-ak											
	30. Aspaldeko ibilguen trazadura berreskuratzeke duten km-ak											
	31. Berreskuratutako ibai-ohéen km-ak											
32. Presio garrantzitsuen eraginpean dauden ur-masen kopurua	DPH	54		42		4			0			
33. Presio garrantzitsuen eraginpean dauden ur-masen %	DPH	34,18		26,58		2,53			0			
34. Egoera kuantitatibo txarrean dauden lurpeko ur-masen kopurua	DPH	0		0		0			0			
35. Egoera kuantitatibo txarrean dauden lurpeko ur-masen %	DPH	%0		%0		%0			%0			
36. Kutsadura lausoaren menpeko lurpeko ur-masen ehunekoa	DPH	%0										
37. Egoera onean edo hobean dauden lurgaineko ur-masen kopurua	DPH	85		97		134			138			
38. Egoera onean edo hobean dauden lurgaineko ur-masen %	DPH	62		70		%97,00			%100,00			
39. Egoera onean edo hobean dauden lurpeko ur-masen kopurua	DPH	19		19		20			20			
40. Egoera onean edo hobean dauden lurpeko ur-masen %	DPH	95		95		100			100			
41. Luzapena aplikatzen zaien ur-masen kopurua	DPH	42		41		3			0			
42. Luzapena aplikatzen zaien ur-masen %	DPH	%27		%26		%2			%0			
43. Helburu arinagoak aplikatzen zaizkien ur-masen kopurua	DPH	0		0		0			0			
44. Helburu arinagoak aplikatzen zaizkien ur-masen %	DPH	%0		%0		0			0			
45. Narriadura gehigarria izatea espero den ur-masen kopurua	DPH	0		0		0			0			
46. Narriadura gehigarria izatea espero den ur-masen %	DPH	%0		%0		0			0			

Ingurumen eko elementua	Adierazleak	Iturria	Balio eguneratua -2013	2015			2021			2027		
				Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)	Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)	Neurtutako balioa	Aurreikusitako balioa	Betetz e-maila (%)
47. Beren egoera kimikoaren edo ekologikoaren zuzeneko kontrola duten lurgaineko ur-masen %												
48. Beren egoera kimikoaren edo ekologikoaren zuzeneko kontrola duten lurpeko ur-masen %												
49. Hornidurarako erabiltzeko eskaera osotara (hm ³ /urtea)	DPH		233,87		233,87			227,33				222,45
50. Hornidurarako erabiltzeko hornitutako bolumena (hm ³ /urtea)												
51. Berme-irizpideak betetzen ez dituzten hornidura-eskaeren unitateen %	DPH		48,28		48,28			42,53				0
52. Nekazaritzarako erabiltzeko eskaera osotara (hm ³ /urtea)	DPH		2,84		2,84			2,71				2,65
53. Nekazaritzarako erabiltzeko hornitutako bolumena (hm ³ /urtea)												
54. Berme-irizpideak betetzen ez dituzten ureztaketa-eskaeren unitateen %	DPH		100		100			0				0
55. Nekazaritzako erabileretako itzultzea (hm ³ /urtea) (lehen zikloa)	DPH		4,4									
56. Urtegiaren edukiera osotara (hm ³):	DPH		83,4		83,4			83,4				83,4
57. Gehieneko gezatze ahalmena (hm ³ /urtea)												
58. Gezatzeak hornitutako bolumena (hm ³ /urtea)												
59. Berrerabilitako bolumena (hm ³ /urtea)	DPH		2,2		2,6			2,6				3
60. Ureztatze-azalera guztira (ha)												
61. Ureztaketa lokalizatuko azaleraren %												
62. Ihintatze bidezko ureztaketaren azaleraren %												
63. Grabitate bidezko ureztaketaren azaleraren %												
64. Nekazaritzako lurzoru eta soroei aplikatutako ongari nitrogenatuaren soberakinak (t/urtea)												
65. Ur-masetan deskargatutako fitosanitarioak (t/urtea)												
66. Aldian izandako uholdeen eraginpeko pertsonen kopurua eta eragindako kalteak												
67. Aldian izandako uholdeek eragindako kalteak (milioi euro)	UAKP		23		23							
68. 91/271/EEE Zuzentarauaren arabera tratamendu bat jasotzen duten biztanle baliokideen ehunekoa	DPH		37,73		37,73							

Bestalde, **erkidego barruko esparrurako** prestatutako Ingurumen-memoriak ingurumen-arloko jarraipena egiteko planaren zehazpen bat barne hartzen du. 2009-2015 Plan Hidrologikoaren ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanean jasotako adierazleen sistemarekin jarraitzea proposatzen du, hasierako adierazleen zerrenda birgaitze- eta leheneratze-jarduerak izan dituzten azaleren inguruko beste batekin osatuz.

Ondorioz, ingurumen-arloko jarraipena egiteko, adierazle hauen inguruko datuak jasoko dira:

- Saneamendu- eta arazte-azpiegiturretan (berriak nahiz birmoldatuak izan) aurreikusitako gastua nola gauzatu den.
- 91/271/EEE Zuzentarauaren arabeko saneamendua duen biztanleria.
- Egoera onean dauden lurgaineko ur-masen %.

- d) Emari ekologikoen erregimena betetzen duten estazioak (ur-emia neurtzekoak) dauzkaten ur-masen kopurua.
- e) Konektibitatea hobetzeko egokitzapen-proiektuetarako aurreikusitako gastuaren betearazpena.
- f) Zebra-muskuiluak kolonizatutako ur-masak (*Dreissena polymorpha*).
- g) Espezie inbaditzaileak kontrolatu eta desagerrarazteko jarduera kopurua.
- h) Hirigune finkatuetan uraldien kontra defendatzeko egiturazko neurrietan aurreikusitako gastuaren betearazpena.
- i) Natura 2000 Sarekoak diren eta Babestutako Eremuen Erregistroan sartuta dauden eremuen kopurua.
- j) Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako Ibai Erreserba Naturalak.
- k) Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako Babes Bereziko Eremuak.
- l) Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako Hezeguneak.
- m) Leheneratu eta birgaitzeko neurriak aplikatu zaizkien azalerak, Natura 2000 Sarean sartutako eremuen azalerak zehaztuz.

Jarraipena urtero egingo da, eta horren arduraduna Uraren Euskal Agentzia da.